

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2014-02-21  
EGUBAKOITZA  
586. ZENBAKIA  
14. URTEA  
DOAKOA  
GOIENA.NET  
TOKIKOM

## "PSNren eta Bilduren ituna zail ikusten dut"

**Koldo Martinez** | Medikua eta Geroa Bai ko kidea | 8




## Hondakinen gaineko galdeketa

Eskoriatzan da, domekan, bi auzotan eta kale batean | 4

'Potologuak' antzezlanaren estreinaldia da gaur Elgetan | 31



Inbertsioek gora egingo dute Bergarako aurrekontuan | 20



Leintz Gatzagako zinegotziek doan eta borondatez dihardute lanean | 11



## BERTAKOA, BERTATIK BIZIBERRITZEN

'Azoka bergaratzen' prozesuarekin Bergarako azoka biziberritzeko dinamika abiaraziko dute | 19

Arianne Kareaga (zinegotzia), Asier Latorre (Izotz saltokia), Arantza Belategi (Arantza dendakoa), Andoni Larrañaga (Bagarako ordezkaria) eta Veronica Fortuna (Lamitxoa arrandegia). | JAGOBA DOMINGO

# Hiltzeak dakartzan gastuak bizi bitartean arintzeko hainbat bide daude

Heriotzen ondorengoez dakarten zama eta poltsikoari eragiten dioten karga arintzeko hainbat izaeratako elkarteak daude Debagoienean. Kofradiak dira ohikoenak eta jendetsuenak; Arrasatekoa eta Aretxabaletakoa handienak; Oñatin, ermandadeak daude. Eta badira auzoetakoak ere. | 2

## SINADURAK

Zer ote da borondatea? | 6  
AITZOL ITURBE

6 | Sarez erosgai bakarrik? |  
AITZIBER ARANBURUZABALA

Gazte gain prestatuak | 25  
IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ

40 | Gu bagoaz |  
AGURNE BARRUSO

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4  
IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11  
KIROLA 28 | KULTURA 31  
ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36  
ESKELAK 37 | NON-ZER 38



## 'Urrezko aizkora': finalerdia Oñatin domekan | 28

## Neguko merkealdiaren lehen azoka bihar, zapatua, Arrasaten

35 bat saltokik eskaintzak kaleratuko dituzte | 12

## SEAT LEON ST BERRIA



## Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



# Bizi bitartean, hiltzerako aurrezten

- ▶ Gastuei aurre egiten laguntzen duten askotariko elkarteak daude bailaran
- ▶ Arrasateko San Felipek eta Aretxabaletako kofradiak kide asko dituzte
- ▶ Oñatin ermandade ugari daude, eta Eskoriatzan auzo-kofradiak ere bai

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Gauza ezaguna da zein garesti den hiltzea; horrez gain, eta dakarren gastua albo batera utzita ere, une zailak izaten dira hildakoaren familiarentzako. Hala-koetan egin beharrekoen zama, zein poltsikoari eragiten dion karga arintzeko, badira bailaran izaera desberdineko hainbat elkarte.

Arrasateko San Felipe Apostol Elkarlaguntzako Elkarte eta Aretxabaletako San Jose-San Martin kofradia dira jendetsuenak; funtzionamenduan ere antzerakoak dira elkarren artean: bizi diren artean, bazkideek kuota bat ordaintzen dute urtean, eta hiltzean hainbat zerbitzu eta diru kopuru bat ematen dizkio elkarteak hildakoaren familiari.

Badira, ordea, bailaran, bestela funtzionatzen duten elkarteak; Eskoriatzan, adibidez. Mazmela elizatean –beste batzuetan ere bai– auzoko kofradia dute. Han ez dute urteko kuota, eta ez da bakoitza ibiltzen hilko denarako dirua jartzen, baizik eta auzokoren bat hiltzen denean gainerako familia guztien artean –kofradian dauden artean– egiten diote aurre gastuari, eta egiten dituzte hainbat izapide, familiak haietaz arduratu beharrik izan ez dezan.

## Auzo-elkartasuna

Honela, eta hildako guztien gastua antzerakoa izan dadin, gauzak zehaztuta dituzte Mazmelan. Adibidez, hildakoa garraiatzearena lotuta dute ehorztetxe batekin –hildako lekuaren arabera aldatzen da kostua, baina aurrez badakizkitez zenbateko aukera desberdinak–; kaxa nolakoa izango den eta, ondorioz, honen prezioa ere bai. Kanposantuan, berriz, hilarriak berdinak dira denentzat.

Hauetz gain, beste gastu batzuk ere izaten dira: "Auzoetan eta behar izaten dira organista bat edo kantariren batzuk-edo, funtzioa apur bat girotzeko; beraz, diru kopuru txiki bat behar izaten da horientzako ere. Gero, auzoetako elizetan lehen bezala astero mezarik egoten ez denez, lore gutxierekin ere egoten dira, eta beste diru bat jartzen da loretarako eta eliza txukuntzeko". Gastu horien guztien batuketa egin eta kofradiako kide diren familien artean –hildakoarena

**DATUA**

**750**

EURO

Arrasateko San Felipe Apostol Elkarlaguntza Elkarteak bazkide bat hiltzen denean, kopuru hori jasotzen du familiak, zerbitzuez gain. 600 euro dira, berriz, Aretxabaletan.

salbu, noski– ordaintzen dutela azaldu digu azkenaldian koordinazio lanetan ibiltzen den Juan Karlos Belokik.

Mazmelako kofradian pare bat izan ezik auzoko etxe guztiak daudela dio Belokik, "%90etik gora", beraz. Ondorioz, auzokoren bat hiltzen denean 80 bat lagun artean ordaintzen dituzte gastuak: "Ehundik gora ere izan ginen, orain jaitsita dago, gero eta jende gutxiago bizi da-eta auzoan".

Kofradian adostuta dituztenez gain, familiak beste zerbitzuren bat nahiko balu, senideen kontura izango litzateke. Honela, ez dira sartzen, adibidez, eskelak, gorpua erraustea eta beilatoki zerbitzua –nahiz eta, azken horretarako, tarifa bat adostuta, eduki, baduten beilatoki batekin–. Juan Karlos Belokik dio kofradiako kideen esku dagoela elkarreko baldintzak aldatzea; oraingoz, horrela funtzionatzen dutela.

## Garaletara egokitzen

Azkenaldiko joerak ikusita, agian iritsiko zaie Mazmelakoiei ere

kofradiak bere gain hartzen dituen zerbitzuak egokitu beharra. Zentzu honetan, Aretxabaletako San Jose-San Martin kofradian, adibidez, izan dira aldaketak azkenaldian. Honela, orain arte, hildakoaren familiari eskura ematen zitzaion diru kopurua zen 500 euro; horrez gain, baina, beste kopuru bat zuzenean ematen zien kofradiak elizari eta abesbatzari, mezengatik.

Kofradiako zenbait kidek hala eskatuta, baina, orain erabaki dute 100 euro gehitzea familiei ematen zaien diru kopurua, eta familiek ikusi dezatela diru horrekin zer egin: "Aretxabaletan egiten zen hileta, bederatziz eguneko bederatzizurrena eta urte-meza. Eta batzuek hasi ziren esaten jendeak ez duela, egun, bederatzizurrenik nahi; baina egin egiten dela"; hala azaltzen du Jose Ignacio Arenaza kofradiako diruzainak. Pentsatzekoa da hileta zibilak egiteko joera, adibidez, gero eta handiagoa izango dela denborarekin, eta izan daiteke kofradiako hainbat kideren hautua ere. Aurrerantzean, beraz, familia egongo da zuzenean Elizarekin, adieraziko dio ze ospakizun egin nahi duten –edo ez dutela egin nahi–, eta konponduko dira euren artean.

Abesbatzarekin, baina, orain arte moduan jarraituko dute, bestelako konpromisoren bat ez zutelako adostuta bi aldeetan. Hurrengo batzar orokorrean, urte amaieran, aztertuko dute berriz ere gaia.

Aldaketak aldaketa, dena den, Jose Ignacio Arenazak argi utzi nahi du alde guztiekin berba eginda hartu dituztela erabakiak,



Oñatiko hilerriko irudia. | GOIENA

## ESANAK

**"Ehundik gora ere izan ginen kofradian; orain jaitsita dago"**

J.K. BELOKI | MAZMELAKO KOFRADIA

## ESANAK

**"Gurasoak hiltzean, seme-alabek ez dute jarraitzen"**

J.A. URTEAGA | OÑATIKO S.ANTON

eta beste gauza bat ere bai: aldaketa proposatu dutenak ez direla elizara joaten ez direnak, "baizik eta elizara joaten den jende nagusia". Elizarekiko atxikimendua izan arren, beraz, egoera zein den aztertu eta gaur eguneko

joeretara egokitzea proposatu dutela, ondorioz –eta azkenean hala erabaki da–.

Aretxabaletako San Jose-San Martin kofradiak 150 urtetik gorako historia du; kofrade eta onuradun, 4.500 kide inguru dira egun. Aipatutako diruaz gain, heriotza bat gertatzen denean, hainbat zerbitzu ematen dizkio familiari: hilkutxa, garraioa... Urteko kuota da 22 euro.

## San Felipe Apostol

Arrasateko San Felipe Apostol Elkarlaguntza Elkarteak ere zerbitzu horiek ematen dizkio hildakoaren familiari, eta dirua ere bai, zerbitzuaren osagarri. Kasu honetan, kopuru osoa familiari eman izan diote zuzenean –gaur egun, 750 euro–, eta gisa berean jarraitzen dute: "Horrela garbiago da", dio Alberto Ojanguren elkarteko nagusiak.

Aretxabaletako kofradia bezala, Arrasateko San Felipe Apos-



San Felipe Apostol Elkarlaguntza Elkartearen aurtengo batzarra. | J.I.



## Auzoan dirua batu, inor hiltzen denean

Batzuk besteekiko antzerakoak izan arren, heriotzarekin lotutako elkarteek badituzte desberdintasunak elkarren artean. Bereziak dira, adibidez, Eskoriatzako elizateetako kofradiak. Bizi artean heriotza iristerako dirua jartzen ibili gabe, kofradiako kide bat hiltzen denean batzen dute dirua Mazmelakoan, gastuei aurre egiteko. Hil den pertsonaren familiak ez, gainerakoek ordaintzen dute. Auzoan, bizilagunen %90etik gora da kofradiako kide.

tol ere irabazi asmorik gabeko elkarte da. Ojangurenak dio, era bateko edo besteko elkarterekin –edo aseguru etxeekin– ezer ez dutenen kasuan, hiltzea asko kostatzen dela gaur egun: "3.000 eurotik behera...", buruarekin ezetz eginez.

San Felipeko bazkide bat hiltzen denean, berriz, batez beste, 1.700 euro kostatzen da denera; elkarteak ematen dituen zerbitzuez gain, familiak erabaki ohi ditu beste batzuk. Ondorengo adibidea jarri digu San Felipeko nagusiak: "Beilatokia, errausketa, kutxatxo, zorroa, eskelaren bat jartzen bada eta loreren batzuk, bazoaz 1.000 eurora". Kasu horretan, familiak dirutan jasotzen dituen 750 euroez gain, beste 250 horiek izango lirake familiaren kontura.

Kontuak kontu, Arrasateko elkarteak kideek azaldutakoaren arabera, urteetan urteko kuota ordaintzen ari diren bazkideei ongi ateratzen zaizkie kontuak

hiltzean –hala esan badaiteke–; alegia, hiltzean, zerbitzutan eta dirutan, jasotzen den kopurua, bizitza osoan kuota bitartez jarritako zenbatekoa baino gehiago dela. Berez merkeago, beraz, eta gainera jarri baino gehiago jaso. Gaur egun, urteko kuota da 30 euro, eta bi urteren buruan 45 eurora igotzea adostuta dute bazkideek –Eusko Jaurlaritzaren agindu bati jarraituz–.

### Oñatin, gehiago eta txikiak

Oñatin ermandade deitzen zaie gisa honetako elkartei. Banaka batzuk badaude, herriko kale edo auzoka, adibidez. Jose Antonio Urteaga da San Anton ermandadeko –101 kide– presidentea. Bertan, 50 euro jartzen dituzte urtean familiako, eta kideren bat hiltzen denean 700 jasotzen ditu sendiak; dena dela: "Ermandadeak baju daude Oñatin; gurasoak hiltzen direnean seme-alabek ez dute jarraitu nahi izaten".

ALBERTO OJANGUREN | SAN FELIPE APOSTOLEKO NAGUSIA

## "Lan asko da, gau eta egun; gauean ere aldean eduki behar izaten da telefonoa"

115 urte ditu Arrasateko San Felipe Apostol Elkarlaguntza Elkarteak. 2013 amaieran, titular, ezkontide eta onuradun artean, 13.339 bazkide ziren. Kasu honetan, hil–autoak ere badituzte. Soldatapeko bi langile ditu, eta nagusia bera da elkartearentzat lanean ordu asko ematen dituen beste bat; borondatez, esan daiteke.

### Zu zara hemengo nagusia.

Bai. Aitagarreba izan zen aurretik.

31 urte datoz orain hil zela, eta orduan

aukeratu ninduten ni. Esan zidaten banekiela nondik nora zihoan, eta neu jartzeko.

### Eta, zer dakar karguak?

Lan asko, gau eta egun; ze gauean ere aldean eduki behar izaten da telefonoa. Gaur goizean



07:00etan deitu didate; aurrekoan, goizeko 03:30ean. Baten bat hil dela eta... Gestioak egin behar izaten ditugu, gorpua ekarri... Lokalak ere nik jarritakoak dira [Zigorrolan dituzte], ze etxean ezin da egin. Lehen egiten genuen etxean dugun txoko baten, baina hainbeste laguntzako zerbitu derrigor behar da.

### Zergatik jarraitzen duzu jardun honekin?

Lantegia utzita, honekin entretenitu egiten naiz. Beti egoten dira gauzak egiteko; jendea hartu eta.

### Eta jarraitzeko asmotan?

Oraintxe ari gara besteren bat jarriko ote dugun edo, eta deskantsatzen dugun apur bat. Baina neu ere hemen egongo naiz, uztera ez noa.

### Jendeak eskertuko du zuen lana.

Bai, eta eskertzekoa da. Beti egoten da baten bat, baina kexa gutxi izaten dira.

# Zumaian bizi

RESIDENCIAL  
**Ortiz**  
BIZIGUNEA  
facebook.com/inmoloiola

aukeratu etxebizitzarik egokiena



edo zure 2. etxebizitza

ETXEBIZITZAK 170.000 €  
-tik aurrera



**AUKERA**  
Eta orain,  
Zuri egokitutako  
finantzazioa

inmoloiola



info@inmoloiola.com

**606 957 532**

www.vivirenzumaia.com / www.zumaianbizi.com

# Debagoienerako 300 lanpostu epaileen esku

Garagartzako eta Eskoriatzako Fagorren bi plantarekiko interesa du Cevitalek

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Aljeriako Cevital enpresak erakutsi du Fagorrekiko interesa. Frantziako Brandt plantarekiko interesetik abiatu eta Euskal Herriko Garagartzako eta Eskoriatzako produkzio zati bat berreskuratzera inoia, zehazki.

Hain zuzen ere, Eskoriatzan etxetresna elektriko txikiak eta lapikoak egin izan dituzte Fagorren ibilbidean, eta "Garagartzako kasuan, labeen eta sukaldagaineen lerroen negozioarekiko" interesa erakutsi du konpainiak, Fagorrekiko iturriek Goienari adierazitakoaren arabera.

Operazio horrek izan dezakeen zenbatekorik ez dute zehaztu, baina bai Debagoienerako 300 bat lanpostu berreskuratzeko aukera ekarriko zukeela. Edozelan ere, "behin lantegiak kanpoko enpresa batek erosi ostean, SA bilakatu lirateke seguru aski, eta ez dakigu ze baldintzatan bueltatuko liratekeen langile horiek euren lanpostuetara; dena den, hori guztia espekulazio hutsa da", azpimarratu dute Fagorrekiko iturriek.

## Frantziako Brandten garrantzia

Izan ere, operazio enpresarial horren gaineko azkeneko erabakia Mondragon Taldetik eta Debagoienerako kanpo dago. "Frantzia-



Garagartzako planta. | J.D.

ko operazioa aurrera ez badoa, hemengo ere ez. Eta Frantziakoak aurrera egiten badu, berriz, hemengoak ere aurrera egiteko aukera dauka, baina ez dauka zertan automatikoa izan. Izan ere, hartzekodunen konkurtsoan gaudenez, azkeneko erabakia administratzaile konkurtsoalek daukate (eaiilek), eta Frantziako eta Espainiako administratzaile konkurtsoalek desberdinak dira". Haien erabakia jakiteko, otsailaren 27ra arte itxaron beharko dela zehaztu dute Fagorrekiko iturriek.

## Bideragarritasun handiena

Fagor Etxetresnek egoera zaila bizi dutenetik –hartzekodunen konkurtsoan daude izako azarotik– bideragarritasun "handiena" erakutsi duten produkzio lerroe-

tako bi dira Garagartzakoa eta Eskoriatzako, eta Bergarako Geysler-Gastech lantegikoa da horietako beste bat; berogailu elektrikoak egiten dituzte bertan eta Vaillant eta Fagor Etxetresnak konpainiek enpresaren %50 dute, bakoitzak. Gaur egun Vaillant enpresan bakarrik dihardute lanean.

## "Jatorri frantsesa"

Cevital enpresa, berriz, izatez aljeriarra da, baina "jatorri frantsesa" dauka, eta hala iritsi da Frantziako Brandt-erako interesa erakustera, Fagorrekiko iturriek jakinarazitakoaren arabera. "Diru asko dauka, eta lehenago ere erosi izan dituzte lantegiak Frantzian. Horrela iritsi dira Fagorrekiko. Fagor Etxetresnetako zuzendari Sergio Treviño Frantzian ibili da negoziatuz, bai, baina konpartsa moduan, esandako moduan, hartzekodunen konkurtsoan sartuta gaudenez, azkeneko berba administratzaile konkurtsoalek duelako".

Afrika iparraldeko industria talde handienetakoa da Cevital. 19 filial ditu eta hainbat sektoretan dihardu: nekazaritza-elikagaiak, siderurgia, energia, automobilgintza, banaketa eta etxetresna elektrikoak. 13.000 langilek dihardute horietan lanean. Zabalte garai betean dago orain.

# 1.000 auzotarrendako galdeketa Eskoriatzan

Domekan 10:00etatik 18:00ak arte egingo dute; 19:00etan jakinaraziko dute emaitza

U.M. | ESKORIATZA

"Eskoriatzar gehiengoak argi eta garbi erakutsi du Udalak zaborrak biltzeko atez ateko sistema ezartzeko hartutako erabakiaren aurka dagoela. Jasotako 1.240 sinadurak, manifestaldi ugari eta zabor poltsez atunduriko Eskoriatzako balkoi eta leihoak protesta moduan ikusi ondoren, ematen duenez ez dira nahikoa izan Udalak bere erabakia birplanteatzeko. Horregatik guztiagatik, herri kontsulta hau aurrera eramatea erabaki dugu".

## 16 boluntario

Hori abiapuntu egin dute domekarako hitzordua Eskoriatza Garbia plataformakoek. 10:00etarako gertu izango dituzte galdeketa hautestontziak Intxaurtxueta 20ko EPAn (Eroski ondoan). "Bi hautestontzi izango dira. Lehen orduan zigitatu egingo ditu notarioak. Eta gero, 16 herritar boluntario egongo dira bozketa zaintzen, 18:00ak arte, bi txandatan banatuta. Ez da egongo Eskoriatza Garbiako kide bat bera ere", azaldu du Rafael Salidok, Eskoriatza Garbia Herri Plataformako ordezkariak.

## Bi auzo eta bi atari

Hondakinak batzeko atez atekoa edo bosgarren edukiontzia, zer nahiago duten galdetuko diete Eskoriatzako San Pedroko eta Intxaurtxueta auzotarrei eta

Gaztañadui kaleko 27-29 atarrietako bizilagunei. "1.053 inguruk izango dute bozkatzeko aukera. Auzotarren zerrenda dugu, 18 urtetik gorakoena. Ezin izan dugu errolda erabili, datuen babeserako legerik ez urratzeko. Botoak, berriz, etxez etxe banatu ditugu: bina gutun-azal eta bina boto, azalpenak ematen dituen gutun batekin", Salidok esandakoaren arabera. 18:00ak arte izango da botoa emateko aukera. Ordu horretan notarioak botoak balioztatuko ditu, eta Eskoriatza Garbiakoek 19:00etan jakinaraziko dute emaitza. Gero, osoko bilkuran aurkeztuko dituzte. "Hiru hilabetetan proba pilotua egin dutenen iritzia jakin gura dugu. Gu herritarren iritzia eta erabakia errespetatzeari aldekoak gara, Igeldon egiten diharduten modura. Eskoriatzan erakutsi gura duguna da ez dela errespetatu behar herritarren iritzirik", azpimarratu du Eskoriatza Garbiako ordezkariak.

ESANAK

"Herritarren erabakia errespetatzeari aldekoak gara"

RAFA SALIDO | ESKORIATZA GARBIA



Iker Bengoetxea, Irati Lopez eta Leire Carreras ikasleak. | ARIZMENDI

## Arizmendi Ikastolako hiru ikasle, Europako Parlamentuak antolatzen duen gazte forora

GOIATZ ARANA | DEBAGOIENA

Martitzenean abiatu ziren Turkiara Arizmendiko hiru ikasle. Zehazki, izako Espainiako kanporaketan lehenengo hamarren artean sailkatzeagatik eman die aukera aurten Ankara Gazte Foroan parte hartzeko. Astelehenera arte izango dira han, beste nazio batzuetako gazteekin.

Hirugarren urtez Arizmendi Ikastolak Europako Gazte Parla-

mentuan (European Youth Parliament) parte hartuko du. Hainbat kanporaketa gainditu behar izaten dituzte: lehenengoa EAEn; jarraian, Espainiako; eta azkenik, Europako. Gazteek balizko parlamentua osatzen dute, eta talde bakoitzaren lana da ponentzia bat aurkeztu eta defendatzea eta beste ikastetxeen ponentziei ekarpenak egitea; hori dena ingelesez, gainera.

## 'Guifi.net' dinamizatzen hitzordua Bergaran

"Telekomunikazio sare libre eta irekia" da *guifi.net*, eta, Debagoienerako egitasmoa dinamizatu nahian, batzarra deitu dute martxoaren 1erako Bergaran. Bertan izango da Elgeta, Arrasate, Antzuola eta Oñatiko ordezkariak, besteak beste. 10:30ean hasiko da egitasmoa, *guifi.net*-en aurkezpena eginda.

## Energia mini-eolikoa hizpide izango da Arrasaten

*Energia Mini-eolikoa, eredu energetiko berri baterantz* hitzaldia egingo du Iñaki Garaioak, Baiwind enpresako ordezkariak. Eguenean egingo du, 11:30ean, Arizmendi Ikastolaren Arrasateko Ferixaleku gunean, eta interesa duen edozeini zuzendutakoa da. Hori bai, eguaztena aurretik izena eman behar da, hemen: [lanbide@arizmendi.ikastola.net](mailto:lanbide@arizmendi.ikastola.net).

# Txerriak, txerrikiak eta beste bihar Arantzazun

Bihar, zapatua, iluntzean hasiko dituzte aurtengo Txerri Jaiaren bueltako ekitaldiak

U.M. | DEBAGOIENA

18:00etan argazki emanaldi batekin hasiko da aurtengo Txerri Jaia. Baserrietan ohikoa izan den txerri-hilketaren ugarri garrantzitsuenak jaso dira. Natxo Santos argazkilari-zale oñatiarraren argazkiak izango dira ikusgai.

## Azpiazu eta Elortza adituak

Hitzaldia etorriko da ondoren, adituen eskuetatik. Hain justu ere, Jose Antonio Azpiazu antropologo oñatiarra eta Jerardo Elortza filologo eta irakasle oñatiarrak parte hartuko dute. "Biak gaur egun arte iraun duen baserriko txerri-jarduerekin mintzatuko dira, batez ere aspektu historiko-kulturalaz baliatuz eta bereziki txerriaren inguruan garatu

diren usadioez eta ohiturez", antolatzaileen esanetan. Hitzaldia irekia eta doakoa izango dela azpimarratu dute.

## Txerrikiak, dastatzeko

Egitarrarekin segituz, edo hobe esanda, hura borobiltzeko, 19:30 inguruan, Arantzazuko Zelai-Zabal, Sindika eta Goiko-Benta jatetxeek eta Arantzazuko Santutegiko hotelak eskainitako *txarripoteoan* parte hartzeko aukera emango dute: euro eta erdiren truke, txerriki pintxoak eta edaria dastatzeko aukera izango da.

Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioak eta Arantzazuko Adiskideak elkarteak antolatutako ekimena da Txerri Jaia, Arantzazu Gaur Fundazioaren laguntzarekin.

# Debagoieneko alkateak elkarrizketatuko dituzte Goiena telebistan 'Harira' saioan martitzenero

Inazio Azkarragaurizar Arrasateko alkatea izango da lehen gonbidatua datorren astean

UBANE MADERA | ARRASATE

Goiena telebistak otsailaren 25ean hasiko du beste saio bat: 'Harira', martitzenetan, 22:00etan, Eneko Azkaratek aurkeztuta. Debagoieneko alkateei egindako elkarrizketa saioa izango da eta Arrasateko alkate Inazio Azkarragaurizar izango da lehen gonbidatua. Herritarrek alkateari galderak egiteko aukera izango dute, alde zuzenetik bidalita.

Arrasateko alkatearen ondoren etorriko da gainerako herrien txanda. Baina, alkateez gain, indar politikoetako bozeramaileei ere eskainiko zaie hitza. Eta baita herritarrei ere. Izan ere, herritarren kezka, iradokizunak, iritziak, kexuak... ere jasoko dira saioan. Bada, astelehena izango da galderak bidaltzeko azken eguna.

## Gaurkotasuna eztabaidagai

Ez da, ordea, Goiena telebistak otsailean estreinatuko duen saio bakarra. Horren ostean, otsailaren 28an, egubakoitza, beste bat etorriko da: *Tertulia*. Larraitz Zeberio aurkeztuta, gaurkotasunezko gaiak jorratuko dituzte mahai-inguruan. Euskarazko dokumental bat eskainiko dute barikuro (22:00etan hasita) eta dokumental horren protagonistak, egileak edo gaiarekin zerikusia dutenak batuko dira eztabaidara Goiena telebistako platoon. *Badira Bagara, Aulki Hutsak, Azken egunak Gurian...* dira lehenengo asteetan eskainiko diren dokumentalak.

Bi hilabeteren ostean, hamabostean behin eskainiko da *Harira* saioarekin tartekatuz eta mahai-inguru saio bihurtuko da. *Harira*-n, alkateak elkarrizketatu ostean, beste erakunde batzuetako agintari edo ordezkariak elkarrizketatuko ditu Eneko Azka-



Inazio Azkarragaurizar Arrasateko alkatea, udaletxeko bulegoan. | GOIENA

ratego: diputatuak, sailburuak, legebiltzarkideak...

## Gazteendako bideoklipak

Baina martxoak ere ekarriko ditu berritasunak. Horien artean,

Amaia Txintxurretarena, gazteei zuzendutako euskal musika taldeen bideoklipen gainekoa: *Amaia DJ*. Disko jartzaileen eran agertuko zaigu txikien eta gaztetxoaren artean arrakasta handia daukan

Goienako aurkezle oñatiarra. Eta ikus-entzuleek aukera izango dute, alde zuzenetik, mezuak, klip eskariak, zorion agurrak, argazkiak eta bestelakoak bidaltzeko, sare sozialak, telefonoa edota

posta elektronikoa erabilia. "Euskal taldeen bideoklip berrienak eskaini nahi ditugu, baina ez da bideoklip saio hutsa izango. Saioa gara ikus-entzuleekin eta, bereziki, gazteenekin, elkarreragiten eta haien mezuak, eskaerak, iruzkinak, agurrak... pantailarazten", dio Amaia Txintxurretak.

## 'Pedalka' eta 'Kantari'

Aipatutako hiru saio horiek ekarriko ditu Goienak datozen asteetan, *Berriak*, *Debagoiena zuzenean* eta *Harmailatik* saioekin batera. Baina, bestalde, jarraipena izango dute, era berean, *Kantari* karaokeak eta *Pedalka*-k, Julen Iriondoren bidaia saioak. Hain zuzen ere, Alpeak aldenik alde zeharkatu zituen bizikletan, Kantauritik Mediterraneora, eta bidean aurkitutako tokien eta pertsonen berri ematen du kazetari oñatiarrak.

Goiena telebistak beste saio batzuk estreinatuko ditu urteak aurrera egin ahala. Esate baterako, Bergarako Udalarekin lan-kidetzan eta Koldo Eleizalde lehiaketako parte, gazteek pertsona ezagunei egindako elkarrizketa saioa antenaratuko du maiatzean eta ekainean. Aurrerago, beste berritasun batzuk.

## 'HARIRA' SAIOAN PARTE HARTZEKO

Alkateari galdera egiteko

**E-posta:** [harira@goiena.com](mailto:harira@goiena.com)

**Twitter:** #harira

**Whatsapp:** 688 69 00 17 (ahots zein idatzizko mezua)

**Telegram:** 688 69 00 17 (ahots zein idatzizko mezua)

**Erantzungailu automatikoa:** 688 69 00 17 (ahotsa)

## Goiena telebistak astero ekoiztutako saioak

### BERRIAK

- ▶ Eguneroko albistegia, astelehenetik egubakoitzera, Debagoiengan gertatutakoaren berri.
- ▶ Orduetgia: 14:30, 16:30, 18:30, 20:30, 21:30, 23:00.
- ▶ Aurkezlea: Monika Belastegi.

### DEBAGOIENA ZUZENEAN

- ▶ Eguneroko magazinea: erreportajeak, kronikak, elkarrizketak... *Auzorik auzo, Kultura hitzorduak, Erakusleio, Sukaldaritza...*
- ▶ Orduetgia: 20:00, 21:00, 22:30, 23:50, eta 14:00 eta 16:00 (errepikapena).
- ▶ Aurkezlea: Txomin Madina.

### HARMAILATIK

- ▶ Kirol saioa, astean behin, astelehenetan. Asteburuko kirol ekitaldien kronikak, elkarrizketak, solasaldiak...
- ▶ Orduetgia: 19:30 eta 22:00, eta 15:00 (errepikapena, martitzenetan).
- ▶ Aurkezlea: Xabier Urtzelai.

### HARIRA

- ▶ Elkarrizketa saioa, Debagoieneko alkateekin, martitzenetan.
- ▶ Orduetgia: 22:00 eta 00:20, eta 15:00 eta 19:00 (errepikapena, eguaztenetan).
- ▶ Aurkezlea: Eneko Azkarate.

### TERTULIA

- ▶ Eztabaida saioa, egubakoitzetan. Hasieran, dokumentala eta solasaldia, gaurkotasunezko kontuen gainean.
- ▶ Orduetgia: 19:00, 22:00 eta 00:20.
- ▶ Aurkezlea: Larraitz Zeberio.

### AMAIA DJ

- ▶ Euskal taldeen bideoklip saioa, egunetan, martxoaren 6an hasita, gazteei zuzendua.
- ▶ Orduetgia: 22:00 eta 00:20, eta 15:00etan, barikuetan (errepikapena)
- ▶ Aurkezlea: Amaia Txintxurreta.

## Argia ikastola 'Tertulia'-n

*Badira bagara* Tuterako Argia ikastolaren gaineko dokumentalarekin estreinatuko da *Tertulia* saioa barikuan, hilak 28. Solasaldia ere egingo dute hiru lagun artean: Pili Igartua, Argia ikastolako gurasa eta lehendakari izandako bergarra; Sara Nuñez, Argia ikastolan lanean ibilitako irakasle arrasatearra; eta Olatz Artola, MUko ikasle ohi eta dokumentalaren egileetako bat. Larraitz Zeberio aurkeztuta (22:00).

# Artzainen topaleku bihurtuko da bihar Bergara, Artzainen III. Egunean

Debagoieneko XVI. Jardunaldi Gastronomikoak gaur, egubakoitza, abiaraziko dituzte

TXOMIN MADINA | DEBAGOIENA

Ardiek eta artzain munduak hartuko dute bihar, zapatua, Bergara, bertan egingo dute eta Debagoieneko Artzainen III. Eguna. Azoka, tailerrak eta bildotsa burduntzian eginda jateko aukera izango dira, besteak beste. Hori guztia, 10:00etan hasita.

Hala, azokari dagokionez, Debagoieneko Pastoriek elkarte-kideen produktuak, txakolin

ekoizleak, artilea lantzen duten artisauek eta Jakioneak egongo dira. Tailerrek ere izango dute lekua: 11:00etan gatzatua egiteko egongo da; eta ordu berean, Amaia Diaz de Monasterioguren *Goazen gosaria prestatzera!* izenekoa eskainiko du.

## Gazta dastatzea, umeak...

12:00etan, berriz, udaletxeko oso bilkuren aretoan Idiazabal

gaztaren dastatze gidatua egongo da. Eta bildotsa ere probatu ahal da Bergaran, izan ere 09:00etatik aurrera bildotsa burduntzian erreko dute, eta 12:30etik pintxoak banatuko dituzte. 20 bildots erreko dituzte denera. *Ardi latxaren bila* izeneko jokoa ere egingo dute, berriz, umeekin 10:00etatik 12:00etara. Ardi latxa ezagutzera eman gura dute joko honekin.

Horrez guztiaz gain, Debagoieneko Kroxeter taldeak *urban knitting* egingo du San Martin plazan, eta bertan egindakoekin apaingotako dituzte Domingo Irala kaleko zuhaitzak. Bihar erabakiko da, baita ere, zeinek irabaziko duen Debagoieneko zelaian ardi latxa erakusten duten argazki digitalen lehiaketa. Jaso dituzten argazki guztien artean aukeratutako hogeirekin erakusketak jarriko dute.

## Produktuen jatorria eta beste

Bestalde, gaur, egubakoitza abiaraziko dituzte Debagoieneko 16. Jardunaldi gastronomikoak. Bi hilabete pasatxo iraungo dute oraingo jardunaldiek: gaurtik apirilaren 27ra.

Bildotsa, Debagoieneko ardi esnekiak eta peilak dira menuetan agertuko diren produktuak, eta oraingo honetan zazpi jatetxek egin dute bat ekimenarekin: Arrasateko Hilarionek eta Santa Anak, Bergarako Lasak, Elgetako Maialde Hotelak eta Oñatiko Goiko Bentak, Torre Zumeltzegik eta Etxe Aundi.

Jardunaldiak baina, ez dira menuetara mugatuko. Hala, produktuen jatorria eta elaborazio prozesua ezagutzeko bisita gidatuak egingo dituzte Lapatza, Mendibitzu eta Gomiztegi base-rietara.

## Egunean hasiko dira Goienaren aurtengo gida banatzen

Guztira, 20.000 ale banatuko dira, hiru gida ezberdinetan banatuta: Bergarakoek, Antzuolakoek eta Elgetakoek, Bergara aldekoa; Leintz Gatzagakoek, Eskoriatzakoek, Aretxabaletakoek, Arrasatekoek eta Aramaiokoek, berriz, Arrasate aldekoa; eta Oñatikoek, Oñatikoak. Jaso, berriz, egubakoitzeko GOIENA papera jasotzen dutenek, Goiena Klubeko bazkideek eta Goienako euskarrietan publizitatea egin duten negozioek jasoko dute gida. Ohi denez, Debagoieneko negozio eta zerbitzu guztiak batzen dituen gida da Goienarena. Urtez urte osatuta eta eguneratua.

## ZABALIK

AITZOL ITURBE  
goiena.net/komunitatea/



## Zer ote da borondatea?

Auzolana errotua dago Antzuolan, eta baten bat aipatzeko uzteagatik barkamenak aurretik eskatuz, estimuzko aipamena egin nahi nieke horretan ari direnei. Arrola, AKE, Olalde, Peña Aiastui eta Eskola Kiroleko guraso boluntarioak, kirolean; Oinarin, txistulariak eta trikitilari gazteak, kultura ondarea mantendu eta herria girotzen; Kikirixio, Gaztetxea eta Jubilatua, haur, gazte eta adinekoen aisialdian; kontsumo talde hasi berria, kontsumo eredu jasangarriak bul-tzatzen; Anelkar, antzuolarron elkartasuna beharrik handiena dutenei helarazten... Bejondeizuela guztioi! Baita beste edozein arlotan, inolako interes pertsonalik gabe, lanean aritzen zareten antzuolar guztioi ere.

Borondatezko lana aipatzen hasita, ezin aipatu gabe utzi zinegotziak, bejondeizuela! Ez da edonolako konpromisoa 4 urterako zinegotzi izateak dakarren karga (egindako lanaren arabera noski, EAJko eta PSE-ko zinegotzietan ez baita karga handirik suposatzen) eta ardura hartzea.

Antzuolako Udalarari 11 zinegotzi dagozkie. Egun, 11 horietatik 9 elkartzen dira osoko bilkuretan, eta herriko 7en artean banatzen dituzte lanak. Adibidez, azken legegintzaldira arte zinegotzi guztien artean banatzen zituzten herriko festetako lanak 7en artean egiten dituzte orain. EAJko bi zinegotzietan diote ez direla antzuolarrak (inor gutxi ukatuko die hori) eta horregatik ez dutela festetan lanik egiten.

Herriko 7 zinegotzietan lanak bi izen ditu, konpromisoa eta borondatea. Jakin nahi nuke ea EAJko Maria Eugeniak ba ote dakien zer diren, baleki, ez lukeelako bere lana lanean zintzo eta borondaterik onenarekin ari direnen jarduna oztopatzea bideratuko. Horretarako ordaintzen diote, eta nabari da.

Gure herriaren jardunarekin bateragarriak ez diren jarrera gaiztoengatik, Maria Eugeniari pikutara joateko gonbita egitera animatu nahi zaituztet! Hemen lehenengoa!

## USTEAK USTE

AITZIBER ARANBURUZABALA | aaranburuzabala@goiena.com

## Sarez erosgai bakarrik?

Ohikoa da, egun, ikuskizunetarako sarrerak aurrez sarez erosteko aukera izatea, baita Debagoienekoetarako ere. Ez litzateke, nire ustez baina, bide bakarra izan beharko. Garrantzitsua deritzot gustuko duzun jarlekua aurrez aukeratzeko bidea izateari. Sare konexioa badut; beraz, beste balizko ikusle askok ez moduan, ahal dut bide hori erabili. Ez nator bat, baina, sarez erositako txartelak izaten duen prezioaren gainkargarekin. Garai baten egiten zen moduan, aurre-salmentarako toki gehiago jartzea proposatuko nuke, bada; eta zergatik ez taberna edo dendetan, merkatariek lan gehiago izango dute, baina, akaso, euren atak zabaltzeko beste aitzakia bat ere bai.

## MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.net/komunitatea/



## HANDIK ETA HEMENDIK

## Geure buruarekin edo besteekin berdin jokatzeko dugu?

Enrike Letona

<http://blogak.goiena.net/jaiki/>

Lehen munduan jaiotzeko zortea izan dugunok, oro har, ondo bizi garelako onartu behar dugu.

Nahiz eta hemen ere gero eta jende gehiagok zailtasunak izan hila bete bukaerara heltzeko.

Bizi kalitatean aurrera egin dugu eta urte gehiago bizi gara.

Baina errealitateak behin eta berriz erakusten digu heriotza eta gaixotasuna gure inguruan lasaitasun handiz ibiltzen direla han eta hemen kolpatuz.

Askotan urrutikoei, baina batzuetan gertukoei ere kalte eraginez.

Orain aipatu nahi dudana lagunak ikasketak amaitu ondoren negozio bat jarri zuen.

Bera nagusi eta bera langile.

Gaztetsua zen, eta gazte

izaten jarraitzen du.

Ahalegin handia egin zuen, negozioan inbertituz bizimodua aurrera ateratzeko.

Eta nola ez, ilusio guztia bertan jarri zuen.

Jendez gainezka zuen kontsulta eta ordu luzeak pasatzen zituen lanean.

Adineko jendearekin egiten zuen lan asko eta gurekin maitekorra zen bezala, eurekin ere jarrera bera izaten zuen.

Lana ondo egiteaz gain, maitasuna ere transmititzen zien, horretan inoiz nekatu gabe.

Eta bat-batean gaixotasunak kolpatu zuen.

Alaitasuna tristura, inpotentzia eta ezintasun bilakatu zen.

Ezin zuen lanik egin, ezin zuen ohiko maitasuna transmititu eta hanka sartze bat edo beste egingo zuen bezeroekin hasieran, lana utzi arte.

Hori ere eritasunaren eraginez, jakina.

Borroka luzea eraman du aurrera.

Askotan desesperazioak gairatu du.

Ezin zuen ulertu, zergatik berari?

Negar ugari ere egin du,

jakina.

Baina borrokan jarraitu du eta azkenean, poliki-poliki osasuna berreskuratu du.

Urtarrilean lanean hasi zen berriz ere.

Kezkatuta dago ez duelako lan handirik.

Zituen bezero asko beste profesional batzuegana joan zaizkio.

Baina aurrera egiteko prest eta gogotsu dago.

Berarekin egoten naizenean animoak ematen dizkiot eta gaixotasuna gainditzeko indarra izan badu, poliki-poliki bezeroak ere berreskuratuko dituela esan ohi diot.

Eta nik neure buruari behin eta berriz galdetzen diot.

Ematen ditugu bigarren aukerak?

Nik zalantza daukadanean ariketa simple bat egiten dut eta nire buruari galdetzen diot ni egoera horretan aurkituko banintz, nola nahiko nuke jendeak tratatzea gaia?

Eta zintzo erantzunez, denok dakigu zein den erantzuna, ez?

Maite zaitugu, lagun, hori ez ahaztu inoiz.

Animo, lortuko duzu eta!!!

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkarte  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA  
**Lehendakaria** Aitor Izagire  
**Zuzendari nagusia** Iban Arantxabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Ubane Madera  
**Sailtako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketaria** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo  
**Argazkilaria** Imanol Soriano  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziertra Martin, Imanol Elortza  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA**  
ARRASATE 20500:  
Udalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**  
ARETXABALETA 20550:  
E05 Basabe Poligonoa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.com

**Legu Gordailua:** NA-3329/2000  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 20.100 ale  
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAN ez du bere gain hartzen IRTIZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## GUTUNAK

Duintasun  
Martxa

Juan Ramon Garai  
Arrasate

Datorren hilabetean, martxoaren 22an, Estatuko herri guztietatik zutabeak helduko dira Madrilera: Duintasun Martxa da.

Martxa horretako etsai komun baten aurkako aldarrikapen nagusiak hiru dira:

-Legez kontrako zorraren ordainketarik ez.

-Troikako gobernurik ez.

-Murrizketarik ez.

Estatuko Gobernua Troikako lapurren esku dago; hau da, gutxi batzuen onura pribatuaren alde bakarrik, jendartearen gehiengo pobretzen ari den bitartean.

Eskubideak lapurtzen, oinarriko zerbitzuen aurrekontua murrizten: osasuna, hezkuntza, energia, pentsioak, gizarte zerbitzuak, emakumeon erabakitzeko eskubideak kentzen...

Egunero esaten digute krisitik irteten ari garela, txarrena pasa dela, dena ondo doala...

Eurek, krisiarekin irabazi handienak izan dituztenek, pertsonen eskubide eta betebeharren kontura, ondo dakite gizartearen gehiengo ez dela krisitik irtengo.

Troikaren eta gobernuen politikak ez daude horretarako pentsatuta.

Politika horiek aldatu beharko genituzke, eta Duintasunaren Martxaren aldarrikapena horixe da: giza eskubideen eta jendarte justiziaren aldeko mobilizazioa.

Behekoek argia ikus dezagun krisiaren tunelaren amaieran, eragin onuragarriak biztanleriaren gehiengoentzat eta ez pribilegiatu bakar batzuentzako izan behar dira.

Pobreziara eramaten gaituzten politiken kontra, geure ahal guztiaz borrokatu behar dugu.

Duintasunaren Martxaren helburua horixe da: ustelkeria bukatuaz, emakumeen eta gizonen berdintasunean eta askez osatutako jendartearen alde egitea.

Kalera, bada garaia eta.

... ez dirudi  
Ynestrillas izan  
zenik

Aitor Urrutia  
Eskoriatza

2014ko otsailaren 15etik 16rako gauean, Eskoriatzako EAJ-PNVren ehugarren urteurrena ospatu genuenetik, Batzokiko fatxadan ipinia genuen ikurrina kendu ziguten.

Hasieratik jakitun izan ginen bazeudela hainbat eskoriatzar inolako graziaz

egiten ez ziena guk ikurrina hura ipini izana, iaztik hona herriko plaza inguruan, eta bereziki udaletxeko balkoitik eskaintzen zaigun bandera akelarrea dela eta.

Inola ere, hitzetik hortzera dabiltzan garai berri hauetan, errespetu gehiago espero genuen, are gehiago, tarteko ikurrina izanda.

Baina, hara non, lehengo eta oraingo faxistek ohitura berdina dituzte, eta beti, alderdi berdinen aurka.

Beste inola ezin izan zitekeen bezala, errugabetasun printzipioa gordez, zantzu guztiek pentsatzera garamatzate ekintza ezin izan zela Ynestrillas eta bere mutilena izan, 20-30 metro gorago bakean utzi zuten beste ikurrina bat baitago, eta aurrez aurre, bandera espainiarra ezkatzen saiatzen den bandera nahaste-borraste bat, eurretari asko Eskoriatzan bizi direnen etorkinen sorterrietakoak, "España una y no cincuenta y una" oihukatzen duten horiei gehiegi gustatzen ez zaizkienak modukoak.

Dirudenez, arazoa ikurrina bere jaiotetxean egotea zen; hau da, euskotarren aberri luze eta zabalean barreiatu dagoen batzokietariko batean.

Arazoa batzokia zen, eta ordezkatzeko duena, eta ez bandera.

Nahiz eta daukagun benetako arazoa gure

gizartean izaten jarraitzen dugun faxista mordoa den, harroko gailentzen direnak helburu bakartzat kalean agurra kendu ez diezaioten hainbeste pasota eta hainbeste zuri eta motelen jarrera kolaborazionistaz baliatuz.

Ez dago Ynestrillas izan beharrik faxista izateko.

Metodo faxistak erabiltzen dituzten guztiak faxistak dira, espainiarrak izan, euskal herritar, alemaniar, italiar edo greziarrak izan.

Ziur nago, ordea, gertaera triste hauek tarteko izan arren, EAJ-PNVtik, gure ehun urtetako historian ezaugarritzat izan ditugun konpromisoen eskutik, sinisten dugun herri, gizarte eta aberriaren alde lanean jarraituko dugula.

Baina, hau da tristezia!, horrenbeste urte ondoren aurre egin beharreko lehenengo egoera faxismoa izan beharra, bertakoa bada ere...

Edukiontzi  
marroia ez da  
espazio-ontzia

Anjel Guridi  
Aretxabaleta

Aurrekoan esandako moduan, atez atekoa hasten denean Aretxabaletan %8,1 gutxiago birziklatuko dugu bost edukiontziekin konparatuta.

Baina hau ez da izango egia, gure helburua birziklatzea da, eta ahaleginak egingo ditugu bost edukiontziekin lortutako emaitzak lortzeko.

Hau da, paper eta kartoi guztia birziklatzeko, ez bada dena sartzen kaxa urdinean, garbigunera joan beharko dugula noizbait kotxea hartuta.

Gai organiko guztia birziklatzeko, konposta egiteko sistema erabili beharko dugu.

Hau da, giltzarekin zabaldu konpost lekuen atea eta organikoaren hondakinak itxi bere lekuan.

Kuriosoena da antz handia daukala edukiontzi marroien erabilerekin.

Bai, edukiontzi marroia ez da gai organikoak ilargira eramaten duen espazio-ontzia, baizik eta biztanleek elkarlanean erabiltzen duten tresna, gai organikoarekin konposta egiteko.

Ontzi arinen eta beiraren kasuan ez da egongo arazorik dena banantzeko, beira edukiontzian jartzen bada oraingo moduan izango da eta ontzi arinen kasuan plastiko poltsatan sartuta dena banantzeko posibilitatea edukiko dugu.

Atez atekoak derrigortu egiten du, baina mugak dauka; bost edukiontzien sistemak ez du derrigortzen, baina ez dauka mugarik.

Zer nahi dugu, atez atekoa, bost edukiontzia... edo birziklatzea?

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrek erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00



## Berriak

Eguneko albisteak

Monika Belastegik aurkeztuta

- ▶ Arratsalde: 14:30, 16:30 eta 18:30
- ▶ Gaez: 20:30, 21:30 eta 23:00



**Koldo Martinez** | Medikua eta Geroa Baiko kidea

# "Gertuago ikusten dut aldaketa Nafarroan PSNkoa edo UPNkoa ez den presidente batekin"

- ▶ Nafarroako egoera politikoaren eta bioetikaren gainean dihardu mediku eskoriatzarrak
- ▶ Eskoriatzan jaio eta gaztaroa Arrasaten eman zuen, baina 18 urtetik Iruñean bizi da

**ENEKO AZKARATE** | ARRASATE

Eskoriatzan jaio eta gaztaroa Arrasaten bizi izandakoa da Koldo Martinez. Zabaltzen eta Geroa Baiko aurpegi ezagunenetakoa eta bioetikan aditua, medikua lanbidez. Medikuntzari eta bioetikari, baina, batez ere, Nafarroako egoera politikoari buruz dihardu. Aspaldi Iruñera bizi izatera joandakoa bada ere, Debagoiengan daukan familiako harremani eusten die.

**Hamaika saltsatan sartuta zaude-nez... zein da Koldo Martinez?**

Medikua naizela esaten dut. Zaintza trinkoetan jardun dut beti. Horretaz gain, Zabaltzen elkarte independenteko presidentea ere banaiz eta oraintsu aukeratu naute berriro beste lau urterako.

**Geroa Baiko kide eta bultzagile ere bazara. Zertarako sortu zen?**

Koalizioa bat da eta helburu garbi batekin jaio zen: Nafarroan aldaketa bultzatzea, aldaketa aurrerazale eta ahalik eta abertzaleena. Eta Zabaltzen da koalizio barruan dagoen kide independentez, hau da, alderdietan ez daudenez, osatutako taldea.

**EAJ ere badago koalizio horretan.**

Bai. *Eskuma* eta *ezkerra* oso kontzeptu zaharrak dira niretako eta egiazkoak izango balira ere, egia da batzuetan EAJ eskumako alderdi moduan har dezakegula, baina beste alde batetik begirata nik ez nuke horrela hartuko. Izan ere, beren burua oso ezkerrekotzat duten hainbat alderditan oso praktika, jokabide eta iritzi eskumakoak ikus daitezke. Niri *aurrerazale* berba gehiago gustatzen zait, *eskuma* edo *ezkerra* baino. Nire ustez, kontzepturik ezkertiar edo aurrerazaleena *demokrazia* da. Eta ikusiz gero azkeneko 40 urteotan zeintzuek jokatu duten modu demokratikoan eta zeintzuek ez...

**Ustekabea izan zen Geroa Bairen emaitza Espainiako Kongresuko hauteskunde haietan?**

Emaitza onak espero nituen, nahiz eta, esaterako, Uxue Barkosek eserlekua lortuko zuenik uste ez. Jendeak argi ikusi zuen zein zen Amaiurren eta Geroa Bairen jarrera eta ideologia. Badirudi, gainera, gorantz goazela.

**Egonkortu egin da Geroa Bairen espazioa?**

Uste dut jendeak bat egin duela Geroa Bairen politika egiteko moduarekin, tresnekin, egunero jardunean erakutsitako jarrerarekin... Nafarroan zentraltasuna lortzen ari gara eta hori, geure burua euskaldun eta



Koldo Martinez medikua Zabaltzen elkarteko presidentea ere bada. | JAVIER BERGASA

euskaltzale daukagunondako, euskararendako eta, oro har, Nafarroako jendartearendako ona dela uste dut.

**Barcinaren gobernuaren azken krisi edo eskandaluaren ostean, oraingoan bai esan daiteke Nafarroan aldaketa gertuago dagoela?**

Inoiz baino gertuago. Baina zuhurtziaz jokatu behar da, ze 2007an ere gauza bera esaten bainuen, eta begira non gauden. Oraindik ere ez naiz PSOErekin fidatzen. Badirudi PSNko buruan argi ikusten dutela zentsura mozioarena, baina PSOErekin zeinek daki... Madrilen dago erabakia, zoritxarrez. Hala ere, gauzak zela dauden ikusita, badirudi oraingoan aldaketa gauzatuko dela.

**"Zail ikusten dut PSNren eta Bilduren arteko harremana edo ituna"**

**"PSN, Geroa Bai eta Izquierda-Ezkerrak gobernuan egon beharko lukete"**

Lehenengo egunean Natalia Chivite PSNko senatariak esaten zidan ea zela azaldu behar zien Andaluziako sozialistei Bildurekin batera zebiltzala Nafarroan. Eta esaten nion hori bezain azalgaitza dela PPrekin edo UPNrekin batera ibiltzea.

**Zer gertatu behar da aldaketa gauza dadin?**

PSNk orain arteko jarrera eta iritzia aldatu behar du, eta zentsura mozioa aurkeztu edo babestu, ze ez baitut uste Yolanda Barcinak dimitituko duenik.

**Maiatzaren 25ean hauteskundeak Nafarroan, Europakoez gain?**

Bai, uste dut baietz, zalantzak ditut, baina hauteskundeak egingo ez balira tamalgarria izango

**"Atzerapauso moral ikaragarria eta penagarria da PPren Abortuaren Legea"**

**"Eutanasiaren eta suizidioaren aldekoa naiz, sufrimendua saihesteko"**

litzateke eta Nafarroak berriro ere atzera egingo luke eta Nafar eskuma atzerakoi honek azkeneko 40 urteotan bezala agintean segituko luke.

**Zergertatu behar da, hauteskunde ostean, Nafarroako gobernuaren benetako aldaketa gauza dadin?**

Boto emaileen eskuetan dago hori, baina, gutxienez, PSN, Geroa Bai eta Izquierda-Ezkerrak gobernuan egon beharko lukete, EH Bilduren babesarekin. Askoz ere gusturago hartuko nuke lauron arteko gobernu bat, hala ere. Hori litzateke normaltasunaren eta aldaketaren erakusle.

**Posible ikusten duzu, epe laburrean, UPNkoa edo PSNkoa ez den gobernu bat?**

Une honetan posible litzateke. Zergatik izan behar du derrigorrez PSNkoa denok nahi dugun Nafarroako gobernu berri horretako presidentea? Nafarroan badira ospe handiko pertsonak, ez daudenak partidu baten edo bestean, jakinduria handikoak, eta Nafarroako presidente izan daitezkeenak.

**UPN edo PP gobernutik kanpo duen gobernu batek ze aldaketa ekarriko du Nafarroan?**

Nafarroak jasan ditu 40 urtez Frankismoa eta beste 40 urtez UPNren gobernuak, sozialistak ere tartean izan badira ere. Hor-

taz, 80 urte hauei buelta emateko lehenengo jakin beharko genuke zela dagoen Nafarroa, zela dagoen muina: gobernu, ogasuna, ekonomia... 80 urtez makina barruan sartuta egon dira eskumakoak eta gu kanpoan izan gara. Lehenbizi, hori guztia ezagutu beharko genuke.

**ETAk erabaki garrantzitsu bat iragarriko ei du aurki. Ze espero eta ze desio duzu?**

Espero dut ETAk behin betiko armak entregatzea nonbaiten eta norbaiti eta nahiko nuke geure bizitzetatik betiko desgertzea ETA.

**Prestigidun medikua zara eta, besteak beste, Bioetika elkarteko presidentea zara. Zer da?**

Bioetika ikasi genuen hainbat medikuk sortu genuen elkarte. Horietako asko eta askok Diego Graciarekin ikasi genuen, Madrilgo Konplutentsean. Lagun arteko erakunde bat baino askoz ere gehiago da eta erreferente bihurtu da bioetikaren alorrean.

**Gaur egun indarrean dagoen Abortuaren Legea egokia iruditzen zaizu?**

Bai, jakina.

**Eta PPrena?**

Atzerapauso moral ikaragarria eta politikoki penagarria iruditzen zait. Erabat aurka nago. Gaur egun indarrean dagoen legean bada kasu bat zinetan adingabeei baimentzen zaien, hala nahi badute, abortatzea gurasoen oniritzirik barik. Eta kasu horrek ika-mikak sortzen dituela badakit. PPkoak legea aldatzen hasi direnean, ordea, beste hainbat gauza ere aldatu nahi izan dituzte. Elizak botere handia du PPren barruan edo PPK beldurra dio Elizari.

**Adingabekoei eutanasia aplikatzeko eskubidea aitortu zaie legez Belgikan. Halakorik hemen?**

Datozen urteotan ere eutanasiaren gaiak hizpide izan behar du. Eutanasiaren eta suizidioaren aldekoa naiz. Urratsak egiten hasiak gara. Gero eta normaltasun handiagoarekin egiten dugu berba gai hauen gainean, baina denbora behar dugu. Eutanasia eskatzen ari den pertsona batez ari garenean, benetan sufritzen ari den pertsona batez ari gara. Gaur egun jendartean badago anbiguotasun bat, baina baita lasaitasun handiagoa ere gai hauek eztabaidatzeko.

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.







**ARETXABALETAKO 2014 MARTXOAK 8**  
 DEBAGOIENAKO KALE KULTUR ERAKUSTALDIA Aretxabaletako kiroldegian

BREAKONSTAGE 2014-rako SAILKAPENA JOKOAN



**16:30** HIPHOP dantza ikastaroa. Kiroldegiko aerobic aretoan.

**17:30/18:30** DJ bataila gunea (kiroldegiko lurrean)  
 - 2vs2 Nesken arteko kale-dantza txapelketaren finalaurrekoak  
 - 1vs1 Breakdance txapelketaren finalaurrekoak

**19:00 FUN DANTZ! IKUSKIZUNA** Eszenatoki nagusian

**TALDEKAKO KALE DANTZEN TXAPELKETA**  
 (BreakOnStage jaialdirako sailkapena)

**K-conexion** (Irun), **Banbboo** (Donostia), **Smoke Clouds**,  
**Fusion Noise** (Bilbo), **Urban Dölls** (Iruña), ...

**CIRCLE OF TRUST** (Zaragoza) Breakdance taldea **DJ PUTone**

**CYR WEEL Vento** (Salamanka) **BMX FLATLAND Neugma** (Zaragoza)

**1vs1 Breakdance finala 2vs2 kale-dantza finala**

**20:30** SARI BANAKETA - BUKAERA

Sarrera  
 Aurrez Arkupe Kultur etxean erosita 2€  
 Leihatilan 3€



Aretxabaletako  
 Udala



BILBAO ARENA  
 MARTXOAK 29

## DUELA 10 URTE

2004-02-27

## Elkarriren sinadura bilketa

Jendaurrean egindako agerraldi batean, Elkarriko kide eta boluntarioek Debagoiengan 1.500 sinadura batzeko helburua agertu zuten Bake Konferentziaren aldeko kanpainaren barruan. Anekdotan moduan, esan behar da elurra zela-eta astebete atzeratu behar izan zutela ekimena. Azkenean, martxoaren 6an egin zuten sinadura bilketa, eta, aurreikuspenak gaindituz, 3.245 sinadura batu zituzten gure bailaran.



Elkarriko kideen agerraldia. | AMAGOIA LASAGABASTER

2004-02-24

## Kolektorea jartzeko lanak Bergaran

Ur zikinen kolektorea jartzeko lanak zirkulazio aldaketak eragin zituzten orain dela 10 urte Bergaran. Itxita egon zen Torrekua eta San Antonio arteko errepide zatia. Erlojuz kontra bukatu beharreko lana izan zen Sobrino enpresarendako; izan ere, Euskal Herriko Txirrindulari Itzuliko lehenengo etapa Bergaran hastekoa eta bukatzekoa zen apiril hasieran. Bada, esan beharra dago bete egin zutela emandako hitza.

## DUELA 5 URTE

2009-02-20

## Euskararen erabilera

Soziolinguistika Klusterrak Aramaion egindako euskararen kale erabileraren neurketaren emaitzek kezka handia piztu zuten Euskara batzordean. Gehienbat, gazteen artean —14-25 urte— egindako neurketaren emaitzek. 2001eko neurketan erabilera datua %81 zen eta 2009an, berriz, datua %32 izan zen.

## ELGETA

**Jose Inazio Ibarluzea** Hamaika ofiziotan ibilia, udal brigadan dihardu azken hilabeteotan. Gustura egiten da berriketan *Irei*-rekin. Ez dira gutxi kontatzeko dituen pasarteak! | LARRAITZ ZEBERIO

# "Asentzioko putzu erdian musika jaialdia egitea otu zitzaigun behin"

**E**lgetan *Irei* da, eta goitizenez ezagutzen dute gehienek. Izen -abizenak, ordea, Jose Inazio Ibarluzea Askasibar —Elgeta, 1960— ditu. Etxe azpiko garajea aurkituko dugu maiz, lanean. Askotan, izan duen azken buruzazioan buru-belarri.

**Nondik datorkizu *Irei* goitizena?** Aita zenaren baserriaren izena da *Irei*. Eibarren dago. Bi anaioi gelditu zaigu goitizena.

**Arotza zara lanbidez?**

Egurrarekin lan egindakoa naiz, baita soldatzaile, galdaragile... eraikuntzan ere ibilitakoa naiz. Badakizu, *pobre seguro!* Horrelaxe tokatu zait bizitzan, eta zer egingo diogu, ba!

**Festazalea ere bazara. Zezenketa-rekin akordatzen naiz.**

Lehenengo aldiz egin zenean antolatzaile lanetan ibili ginen. Gero, 25. urteurrena zela-eta berriz egin genuen. Gustura ibiltzen naiz horrelakoetan!

**Iaz lehen aldiz egindako errekreazioan erreketek joan zinen. Gustura ibili zinen?**

Oso esperientzia ona izan zen. Erreketek joatea erabaki genuen, lehendik baikara gu abertzaleak! [Barre]. Eta iaz, txarrena, eguraldia izan zen. Entsegu egunean elurra ziharduen, eta hotz handia zegoen. Botatarrekin joan

arren, hankak busti-busti egin da itzuli ginen. Baina aurrean ere badut parte hartzeko asmoa.

**Elgeta herri bizia da?**

Bai. Kuadrillak elkartzen dira horrelakoetarako. Akordatzen naiz nola sasoi batean musika jaialdiak oso modan zeuden. Benito Lertxundi, Xabier Lete... eta otu zitzaigun horrelako bat egitea agertokia Asentzioko putzu erdian ipinita. 200 litroko bidioiak erabili genituen, baina, azkenean, eguraldi txarra egin zuen eta frontoira ekarri behar izan genuen jaialdia.

**Makina bat anekdota izango duzue, orduan, kontatzeko?**

Beste bat, goitibehera lasterketak. Asentzion behera joaten ginen. Bergarako kuartera joan ginen baimena eskatzera, eta irteerak -eta emateko basurde ehiztariei eskatzen genizkien walkie-talkieak. 16 bat urte izango nituen.

**Auzolanean antolatzen zenituzten horrelakoak?**

Lan handia egiten zen. Behin, 45.000 pezetako benefizioa izan genuen. Aferria egitea pentsatu genuen, baina gero erabaki genuen hesiak erostea. Alokatu egiten genituen urtero, eta erostearekin gastu finko bat kendu genuen urteroko aurrekontutik.

## HERRITARRAK



Jose Inazio Ibarluzea, eguaztenean, etxe azpiko garajea. | L.Z.

**"Kalderoia eta txirikila topatu eta lankide gazteak ez zekien zer ziren"**

**"Txirrinboliakin ibiltzen ginen gu eta buruan sartu zait halako bat egitea"**

[Irribarre] Akordatzen naiz, beste behin, arkume bat genuela saritan emateko. Arrota baserrian geneukan basoan lotuta. Ez zen, ba, desagertu arkumea! Pentsatu genuen baten batek harrapatu zuela. Beste bat erosi behar izan genuen eta gero... hara non agertu zen hasierakoa! Orduan bai, azeria egin genuen! Akordatzen naiz Ozkarbixan egin genuela.

**Urteotan asko aldatu dira gauzak Elgetan?**

Bai. Gaur egungo umeek ere beste modu batera egiten dute jolasean. Aurreko egun batean bolatokia lanean nenbela kalderoia eta txirikila agertu ziren. Lankide gazteak —40 bat urte izango ditu— ez zekien zer ziren. Eta horren harira akordatu nintzen gu txikitari txirrinboliakin ibiltzen ginela, metalezko aro bat alanbre batekin bultza egiten genuena. Ez dakit zeinendako, baina halako bat egin behar dudala sartu zait buruan. Eta egin-

go dut! Umeren bati oparitutiko diot gero. Ea zer egiten duen.

**Elgetako ze tributakoa zara zu, Realekoa ala Athleticakoa?**

Ez naiz futbolzalea, baina Athleticakoa. Kuadrillan gehienak Realekoak dira, baina, zirikaturakoa haserretzen ez naizenez, aspaldian bakean uzten naute.

**Denbora luzea ematen duzu etxe azpiko tailerrean?**

Bai. Bi urte egon naiz langabezian eta hementxe eman dut denbora. Beti dago zereginen bat, eta, bestela, bilatu egin behar da!

**Frontoi aurrean dauden eserlekuak zuk egindakoak dira.**

Etzerako egin nituen bi. Gustatu eta Udalak gehiago egiteko eskatu zidan. Frontoiaren aurreko aldean daude. Botatoko eraikinetik jasotako bederatzi metroko habeekin egindakoak dira. Egur ona da, haritza. Eraikinetik ehun urte bazituen atera kontuak zuhaitzak zenbat izango zituen!

## NIRE HERRIAN

### AZKENALDIKO BERRIKUNTZAK

Guri, esaterako, primeran etorri zaigu etxe aurrean egin duten obra. Parkea asko gustatzen zait, eta, lehen ez bezala, bista zoragarriak ditugu orain. Konpostaren kontua ere badoa aurrera poliki-poliki. Badugu zer ikasia oraindik, eta deskuiduak egoten dira, baina jendea badoa ikasiaz, eta gero eta hobeto sailkatzen dugu.

### ZERBITZUAK HOBETZEKO

Banketxe bakarra dugu eta eurek esandako egun eta ordutegian joan behar da. Nork bere diruarekin ezin du nahi duena egin. Gero, turismoa bultzatzen dugu, baina kanpoko jendea dator eta ez dago ganorazko zerbitzurik. Salbuespenak salbuespen, ostalariek nahi dutenean zabaltzen dute eta nahi dutenean itxi...

# HERRIAK

## LEINTZ GATZAGA

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagak dituen berezitasunen artean, bada bat bakarria dela Debagoiengan: udalbatza alderdi politiko barik osatuta dago; hau da, Leintz Gatzagako zinegotziak, alkatea barne, ez dira inongo alderdi politikotako ordezkari.

Hautesle Elkarte moduan funtzionatzen dute. Eta gainera, borondatez. Erabateko borondatearekin lan egin ere. Argi eta garbi esanda, norbera aurkezten da kargurako (herritarren artean batzarra egin ostean) eta, gainera, ez dute ezertxo ere kobratzen Udalean egiten duten lanaren truke. "Artista handi samarra izan behar da norberarendako hemendik zerbait ateratzeko", dio, adibidez, Eugenio Otsoa alkateak. "Kobratu? Hemen, ez kobratzeaz gainera, norberak jartzen ditu askotan gasolina eta, jakina, denbora", dio Imanol Saez de Biterik, Mendi zinegotziak.

### Orduak lapurtzen

Hori, diruari dagokionez; zer esanik ez, borondatezko lan hori norberaren lanbidearekin zein bizimoduarekin uztartzeko Gatzagako zinegotziak dituzten zailtasunak ugariak direla. "Familiatik ordu batzuk kendu, lanetik beste batzuk, lagunetatik... Eta hala ere, sentsazio gazi-gozoa daukat; egunak 24 ordu ditu eta Udaleko

# Herriaren alde, ezer ere kobratu gabe

- ▶ Leintz Gatzagako udalbatza ez dago alderdi politikorik
- ▶ Alkateak eta zinegotziak musu-truk eta borondatez egiten dute lan

karguak eskatzen dituen lanetara iristen ez naizen sentsazioa, ezta gutxiago ere", dio Asier Ugartek, Hirigintza zinegotziak. "Nire lanorduegatik ez daukat udaletxean egoteko denbora larregirik. Pena da, zeren herri txikia izan arren dedikazio handia behar baitu. Eskerrak alkateak ordu asko sartzen dituen...", gaineratu du Mikel Gonzalezek, Ogasun zinegotziak.

Alkatea bera ere nahiko lanekin ibiltzen da Udaleko lanak egin ahal izateko. Hark aitortu duen moduan, eskerrak fabrikako lanpostuan malgutasuna duen eta egun batean "galtzen" dituen orduak beste egun batean berreskuratzeko aukera duen.

Edozelan ere, agintari nagusiak azpimarratu gura du zailtasunak zailtasun merezi duela: "Merezi du herriarendako lan

apur bat egitea, nahiz eta batzuetan une zailak bizi izan. Ordu estra asko dedikatu beharra izaten da. Baina bakoitzak bilatzen dio bere konpentsazioa. Hau da, ekimen bat irteten bada, apustu berriren bat sortzen bada, herrian sintonia apur bat badagoela ikusten bada... horrek konpentsatu egiten ditu norberaren lanak eta norberaren nekeak".

### Herriaren interesak bermatuta

Hori bai, neke eta buruhausteok aparte lagata, argi dagoena da Gatzagan herriaren eta herritarren interesa bermatuta dagoela. Ez dago interes alderdikoirik eta ezta interes partikularrik ere udal ordezkarien artean. Horren adibide da Hautesle Elkarte moduan funtzionatu beharra ere herri ekimen bitartez erabaki

zutela. "Denon artean pentsatu genuen herri txikietan alderdien arteko lehiak eta ez dutela bermatzen legegaldi batetik bestera gutxienekoak lortzeko ahalmenik. Errazago ikusten genuen beste modu honetan egitea. Ni egon ez arren, lehenago ere hala zen, eta hurrengokoek ere aukera bera dute. Orain alderdi politiko gehiago dago... baina eurek ikusiko dute", azaldu du Otsoak. Izan ere, hori esateaz bat iragarri du azkeneko legegaldia izango duela aur-

## Herri ekimena baliatzen du Leintz Gatzagako udalbatzak

tengoa. 64 urte beteko dituela eta "liberatzeko" asmoa duela.

### Herri ekimenaren garrantzia

Kontuak kontu, bai bertakoei zein kanpotarrei begira, funtzionatzeko modu ezohiko horrek merezi izateaz gainera, ematen duen emaitza bera ere guztiz positiboa dela azpimarratu du Leintz Gatzagako alkateak, herritarren interesak zuzenean kontuan hartzen dituztelako, herri ekimena baliatuta: "Herriko elkarteek sentsibilitate guztiak ordezkatzeko dituzte: ehiztariak, baserritarrak, emakumeak, erretiratuak... eta euren eskaerak eta esanak erabat aintzat hartzen ditugu. Adibidez, orain ikusi dugu euskara zaindu egin behar dugula, hikaz berba egiteko beharra dagoela. Horrelakoak iristen zaizkigu herri ekimenetatik. Eta, esaterako, nahiz eta herritar asko ez etorri osoko bilkuretara, kalean gurekin topo egiten dutenean berehala esaten dizkigute esan beharrekoak. Bestalde, jendea nahiko kontziente da Udalako ekonomia aldetik dituen zailtasunekiko. Eta guri dagokigunez, laguntzak eta etorri bezain laster jendearekin berba egiten da, gauzak egiteko".

Egiten diren edo egingo dituzten proiektuen berri ere herri ekimenak erabilia zintzo-zintzo jakinarazten dizkiete herritarrei. Martxoan dute hurrengoa.

### EUGENIO OTSOA

#### ▶ Alkatea

#### ▶ Arrasate, 1951


#### ▶ Teknikaria

#### ▶ Zela iritsi den alkate

**izatera** Bosgarren legegaldia du karguan Otsoak; 1987an aurkeztu zen lehen aldiz. "Arrasatetik etorri ginen, hemen baserri bat erosi eta herriko jendearekin eta sintonia ona lortu genuen, eta lehenengo legegaldia samurra izan zen; gero etorri zen bigarrena...".

**▶ Jardun gogorra** Zapatu eta domeka ugarian lan egitea tokatzen zaio alkateari. Eta jakina, astean egiten duenean, desorduetan. "Gogorra da, bai. Halako udal txikietan ez dago aurrekontu nahikorik inor liberatzeko. Azken legegaldian animatu nintzen gazte batzuek animatu nindutelako. Gogoarekin ikusten nituen eta asmo sanoarekin etorri naiz. 64 urte egiten ditudanean liberatuta egoteko. Azken legegaldia nuke eta esperantza daukat errelebu izango dela. Ona da hemendik pasatzea".

## Udalbatzako kideen erretratua eta esperientzia



UBANE MADERA

### ASIER UGARTE

#### ▶ Hirigintza zinegotzia

#### ▶ Aretxabaleta, 1975

#### ▶ Produktu diseinatzailea

#### ▶ Zela iritsi den zinegotzi

**kargura:** "Laneko bulegoa jartzeko Arrasaten eta Aretxabaletan ezer ez lortu ostean, Eugenio Otsoak lagundu zidan. 12 urte daramatzat Gatzagan; laguntasun hori moralki bueltatzeko beharra nuen".

**▶ Jardun gogorra** "Bi seme alaba ditut, eta eskerrak emazteari", aitortu du.

### IMANOL SAEZ DE BITERI

#### ▶ Mendi zinegotzia

#### ▶ Andoio (Araba), 1968

#### ▶ Teknikaria

#### ▶ Zela iritsi den zinegotzi

**kargura:** Konpromiso sozialagatik eta borondatezko kontuetan izaten diren berezko zailtasunengatik iritsi zen Saez de Biteri Mendi zinegotzi izatera.

**▶ Jardun gogorra** "Bilkurara etortzeko oso lo gutxi egin dut gaur; 04:30ean iritsi naiz lanetik eta 08:15ean jaiki".

### IÑAKI AGIRREURRETA

#### ▶ Gizarte eta Kultura zinegotzia

#### ▶ Arrasate, 1964

#### ▶ Fisioterapeuta

**▶ Zela iritsi den zinegotzi kargura:** "Herri txikietan konpromiso tazitua dago noizbait hemen egon beharra dagoela".

**▶ Jardun gogorra** Bizitza eta lan pertsonala udal jardunarekin "ez da erraza kudeatzea", dio. "Herri txiki batean, norberak egiten du edo...", gaineratu du.

### JUAN LUIS ZABALA

#### ▶ Zerbitzuetako zinegotzia

#### ▶ Arrasate, 1962

#### ▶ Teknikaria

#### ▶ Zela iritsi den zinegotzi

**kargura:** Aukera handirik ez zegoela eta: "Herri txikia gara eta txandak egiten dira. Gipuzkoako Uretan nenbilen LABeko ordezkari sindikal. Hura utzi eta hemen hasi nintzen", kontatu du.

**▶ Jardun gogorra** "Lanetik irteten eta sarri zuzenetan nator batzarretara... Gaupasaz ere etorri naiz".

### MIKEL GONZALEZ

#### ▶ Ogasun zinegotzia

#### ▶ Aretxabaleta, 1973

#### ▶ Laboral Kutxako langilea

#### ▶ Zela iritsi den zinegotzi

**kargura:** "Esperientzia interesgarri eta aberasgarria izango zela eta talde polita osatuko genuela uste izateak asko lagundu zuen".

**▶ Jardun gogorra** "Familia, lana eta Udala atenditzen saiatu arren, lanarengatik ez dut Udalean egoteko denbora luzerik. Eskerrak alkateak ordu asko sartzen dituen...", dio.

# Udazkeneko eta neguko eskaintza onenak, kalean

Merkemerkauaren 11. aldia bihar, 10:00etatik 20:00etara, etenik gabe

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Ibai-Arte merkatari elkarteak 11. Merkemerkaua antolatu du bihar. Elkarteko kide diren saltokiak kalera irtengo dira, udazkeneko eta neguko stock-a eskaintza berezien bidez salgai jartzeko. 10:00etan hasiko da azoka eta 20:00ak arte egongo da zabalik, etenik gabe. Hau da, bazkalorduko geldialdirik ez da egongo.

## Eskaintzak kalera

Merkemerkauaren 11. edizio honetan 35 saltoki irtengo dira kalera denboraldiko produktuak "prezio oso onean" saltoki aurrean eskaintzeko. Besteak beste, Maala, Olarte, Otalora, Garibai, Biteri, Zerkaosteta eta Erdiko kaleetako denda eta saltokiak kalera aterako dituzte euren produktuak.

## Askotariko produktuak

Era berean, saltoki aurrean jarri ezin direnak edota erdigunetik urrun dauden elkarteko dendariak Herriko Plazan, Biterin edo Olarte kalean jarriko dituzte postuak. Ibai-Arte jakinarazi duenez, herritarrek "deskontu handiak" aurkitzeko aukera izango dute

bihar, askotariko produktuetan: emakumeendako, gizonendako eta haurrendako arropa, lentzeria, mertzeria, osagarriak, oinetakoak, optikak, aholkularitza, fruta... Urtean birritan antolatzen da Merkemerkaua, irailean eta otsailean.

Merkemerkaua antolatzen aritu den Mabel dendako Angel Alonsok aitortu du ez dela lan erraza halako ekimen bat prestatzea: "Hiru hilabete lehenago hasten gara mugitzen. Jendeak uste du bakarrik antolatzen dela, baina lana eskatzen du. Erakundeekin eta kale animatzaileekin egon behar izaten gara, esaterako. Gainera, merkatari bakoitzarekin ere elkartzeko gara gara, bakoitzak bere aletxo jar dezan", azaldu du.

DATUA

# 35

SALTOKI IRTENGO DIRA

Ibai-Arteko 35 saltoki irtengo dira kalera biharko Merkemerkauan.



Bi herritar eskaintzei begira, azken Merkemerkauan. | IMANOL SORIANO

## Eguraldi onaren garrantzia

Alonsok, bestalde, eguraldiaren faktorea aipatu du: "Orain arte zorte ona izan dugu, ea zapatuan ere eusten dion. Izan ere, merkatari, bezero zein animatzaileendako eguraldia oso faktore garrantzitsua da". Salmentak onak izan ohi dira: "Saltzaileak zein erosleak gustura daude Merkemerkauarekin. Stockean beti izaten ditugu eskaintza interes-

garriak; ez dugu ahaztu behar gure helburua dela denboraldi amaieran stocka zero izatea".

Azoka bereziaren 11. edizio honetan kale animatzaileek ez da faltako: 11:00etatik 13:00etara Beriba Samba eskolako eskutik batukada eta 17:00etatik 19:00etara erraldoi eta kilikien konpartsa irtengo da kalera. Kaleetan zehar eta karpetan musika egongo da jarrita egun osoan.

## Zuhaitz Eguna dela-eta, deialdi irekia biharko

Antoniñerrek 40 intxaurrondo eta gaztainondo landatuko dituzte; Institutuan elkartzeko dira

J.B. | ARRASATE

Udalak Zuhaitz Eguna antolatu du biharko, herritar guztiei begira. Iaz lehen aldiz egin zen deialdia herritar guztiendako eta aurten errepikatzea erabaki dute. Musakolako Antoniñerrek inguruan Udalak duen 14 hektareako lursail baten egingo dira landaketak: 20 intxaurrondo eta 20 gaztainondo. Arrasate Institutuko goiko aparkalekuan elkartuko dira, 10:00etan.

## Espezie jangarriei lehenetasuna

Udalak espezie jangarriei eman gura die lehenetasuna, Ingurumen teknikari Pello Garaik asteon argitu duenez: "Jangarriak diren espezieak oso interesgarriak dira. Beste barik basora joan beharrean, intxaurrak edo gaztainak biltzeko aukera izango genuke. Gainera, fruituok guztion lurretan jasoko genituzke". Ez da lan astuna izango, eta landatzeko materiala Udalak jarriko du, baita

hamarretakoa ere. Arropa eroso eta botak eramatea gomendatu dute, lokatza egongo da-eta.

## Familian landatzeko gonbita

Era berean, Zuhaitz Eguna familiar igarotzeko proposamena egin du Garaik: "Zuhaitzen aldeko kontzientzia piztea gura dugu. Ederra da ikustea haur batek zuhaitza landatu ostean 20 urte barru zuhaitz horren itzalaz gozatzela". Hala, gurasoei dei egin diete seme-alabekin bertaratzeko. Lurrari lotuta gaudela gogoratu gura izan du Garaik: "Basoak dira gure planetaren birrikak, gure birikek hartzen duten oxigenoa garbiagoa izateko ezinbestekoak dira zuhaitzak".

Bestalde, joan den zapatuko Zuhaitz Ferian jendea "etengabe" ibili zelako pozik dago Udala.

## Inazio Azkarragaurizar alkatea Goiena telebistan hilaren 25ean

Eneko Azkaratek elkarrizketatuko du, 'Harira'-n

J.B. | ARRASATE

Inazio Azkarragaurizar Goiena telebistan izango da hilaren 25ean, 22:00etan. *Harira* saioa bueltan dator eta Arrasatekoarekin hasiko da bailarako alkateen erronda. Gori-gori dauden kontuen berri emango du alkateak, hala nola hiri hondakinak, aurrekontuak, TAO sistema, udal aurrekontua eta aurtengo inbertsio nagusiak.

Oposizio indar nagusiek ere ahotsa izango dute saioan. Hala, EAJko bozeramaile Juan Karlos Garitanok eta PSE-EEko

Aritz Arrietak Bilduren eta Aralarren gobernu jardueraren balorazioa egingo dute.

Herritarrek ere izango dute parte hartzeko aukera: posta elektronikoa erabiliz [harira@goiena.com](mailto:harira@goiena.com), twitter bidez [#harira](https://twitter.com/harira), Whatsapp edota Telegram aplikazioak erabilita idatzizko zein ahozko mezuak edota erantzungailu automatikoan ahozko mezua lagata. Hiru aukera horietarako telefono zenbaki bakarra erabili beharko da: 688 69 00 17. Eneko Azkaratek aurkeztuko du.

## Alacanteko Jesus Llopis Gilabert, Aratusteetako kartelaren egilea

J.B. | ARRASATE

Joan den astean Udaleko Kultura Sailak jakinarazi zuen Maite Albes arrasatearra izan zela aurtengo kartel lehiaketako irabazlea. Bada, Albesek aurkeztu zuen irudia ez da originala, eta, horregatik, bigarren sailkatuaren kartela erabiliko du Udalak jaiak iragartzeko. Irabazlea Alacanteko Jesus Llopis Gilabert da. Albesek aurkeztutako irudia esku bide batzuek babestuta dago, eta, horregatik, Udalak ezin du irudia erabili. Hala, erabaki dute lehiaketan bigarren geratu zen kartela erabiltzea aurtengo jaiak iragartzeko.



Kartel irabazlea. | JESUS LLOPIS GILABERT

## 'Azalerako ipuinak' izeneko ikastaroa, Udal liburutegiaren eskutik

Udal Bibliotekak *Azalerako ipuinak* izeneko ikastaroa antolatu du martxorako. 0 eta 3 urte arteko umeendako eta haien guraso, aitajaun-amandre eta hezitzaileei zuzendutakoa da. Saioak martxoaren 12, 19 eta 26an izango dira, 10:30etik aurrera, Kulturateko Haurtxotekan. Izena emateko epea hilaren 24ra arte egongo da zabalik; Kulturateko bibliotekan eman beharko da izena. Helburua izango da giro lasaia sortzea, masajeak eskaintzen duen hitzik gabeko komunikazioa baliatuz, eta ipuin, poema, hitz-joko, kantu, jolas eta liburuak erabilita.

## Abaroa elkarteak bidaiari antolatu du Eskoziara, ekainaren 3tik 8ra

Ekainaren 3tik 8ra, Eskoziara irteera antolatu du Abaroa erretiratu elkarteak. 45 edo 50 lagunendako lekua egongo da eta gutxienez 35 lagunek eman beharko dute izena bidaiari aurrera egin dezan. Bidaiaren prezioa 1.250 eurokoa izango da eta interesatuek 500 euro aurreratu beharko dituzte. Prezio horren barruan sartzen da bidaiarako beharrezkoa den guztia. Abaroa elkarteko bazkideek otsailaren 17tik 28ra eman ahal izango dute izena, 10:30etatik aurrera. Abaroako bazkide ez direnendako, berriz, otsailaren 24tik 28ra izango da izen-emate epea. Eserlekuak izena emateko ordenaren arabera emango dira.

## Aratusteetan herri bazkaria egingo da gaztetxean

Otsail hasieran iragarri genuen aurtengo Aratusteetan ez zela herri bazkaririk egongo. Hala erabaki zuen Aratusteetako jai batzordeak. Hala ere, AGAKOk -Arrasateko Gazte Alternatiboan Kofradia Organizatua- egun osoan zehar jai giroa mantendu gura du eta horretarako herri bazkaria antolatu dute gaztetxean. Zapatuan, martxoak 1, izango da bazkaria, 14:30ean. AGAKOk kideek jarri dituzte txartelak salgai: Iluntz eta Irati tabernetan eros daitezke txartelok, zortzi eurotan. Egitarau ofizialeko ekintzekin batera garria izango da erabat gaztetxe herri bazkaria.

# Bibliotekako maileguak irrati frekuentzia bidezkoak dira orain

Martitzenean itxita egon zen liburutegia sistema berria martxan jartzeko

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Eguaztena ezkerreko mailegu sistema berria du Udal Bibliotekak. Irrati frekuentzia bidezko sistema da, RFID delako teknologia-rekin dabilena. Udalak Kulturarte itxi behar izan zuen martitzenean azken egokitzapen lanak egiteko. Izan ere, uztailean aste-betez egon zen itxita arrazoi berberagatik; orduan, sistema berrira egokitzeko etiketatze lanetan aritu ziren.

Arduradunen arabera, sistema berria erosoagoa, azkarragoa eta seguruagoa da. Erosoagoa da, prozesu guztia urrats bakarrean egiten delako: "Irrati frekuentzia bidezko sistemaren abantaila nagusia da askoz erosoagoa dela,

bai erabiltzaileendako eta baita bibliotekako langileendako ere. Dena urrats bakarrean egingo da: mailegua egin eta alarma sistema desaktibatu", adierazi du Udal Bibliotekako arduradun Mertxe Perez de Ziritzak.

## Lapurreten aurkako sistema

Horrez gain, seguruagoa ere bada sistema berria. Sistema zaharrak, adibidez, ez zituen hutsik zeuden DVDak identifikatzen; aurrerantzean ez da hori gertatuko: "Hutsik dauden aleak ezingo dira itzuli eta, beraz, askoz seguruagoa izango da alde horretatik".

Perez de Ziritzaren arabera, sistema zaharrarekin DVDak "askotan" hutsik itzultzen ziren.

Halako kasuetan, nahiz eta erabiltzaileei deitu, arazoak izaten zituzten ale horiek berreskuratzeke: "Beste batzuei ahaztu egiten zitzaizkien entregatzea".

## Etiketatea banan-banan

Sistema berrira egokitzea "lan handia" izan da. Uztailean astebetez ale guztiak etiketatu ostean, martitzenean egun osoan aritu ziren lanean, buru-belarri. Sis-

tema zaharra desaktibatzen aritu ziren eta baita sistema berria ordenagailuetan instalatzen ere -mailegua norberak egiteko makinak ere eguneratu zituzten.

Horrez gain, irteerako alarma detektagailuak aldatu egin dituzte; berriak kristalezkoak dira.

## Egun batez itxi behar izatea

Udalak argitu du bitartekoak eguneratzearen eta hobetzearen ezarri dela sistema berria eta horretarako ezinbestekoa izan dela egun batez Udal Biblioteka itxi behar izatea.

Bibliotekako arduradunak ere honela dio: "Egin beharreko lanak ikusita, guztiz ezinezkoa da halako egun baten biblioteka zabalik mantentzea".



Irteerako detektagailu zaharrak kendu -ezkerrean- eta berriak jarri dituzte. | J.B.

## Ludoteka ibiltariaren azken saioa egingo dute bihar Musakolan

Ludoteka ibiltaria Musakolan egon da azken hiru asteetan. Hiru saio horietan sukaldetan aritu ziren gaztetxoak: bizkotxoak eta pizzak egin zituzten orduan, eta bihar ere prestatuko dute jakiren bat. Bihar, beraz, Musakolako azken saioa izango da, haurreskolan: hezitzaileak 10:30etik egongo dira zain hurren "ideia zaparrada" entzuteko. 13:30ak arte egongo dira bertan. Martxoan San Andres auzoan egingo du geldialdia Txatxilipurdik kudeatzen duen ekimenak.

## Izquierda Castellano bi kideren hitzaldia bihar Irati tabernan

Arrasateko Askapenak hitzaldia antolatu du biharko, *Europa Astinduz* ekimenaren barruan. Izquierda Castellana elkarteak bi kide gonbidatu dituzte antolatzaileek Irati tabernan; 10:30ean elkartuko dira gosaltzeko eta 11:00 aldera hasiko da saioa. Herri boterearen inguruan dauden esperientziez jardungo dute eta, besteak beste, Madrilgo auzoetako dinamikak eta Burgosko Gamonal auzoan gertatutakoa izango dira adibideetako batzuk.



Langile bat sistema zaharra desaktibatzen, martitzenean. | J.B.

## 64.616 ale Kulturateko bibliotekan

Martitzenean bertan egindako kalkuluen arabera, Kulturateko Udal Bibliotekan -Santa Marinakoa aintzat hartu barik- 64.616 ale daude, mailegurako direnak eta liburutegitik atera ezin direnak kontuan hartuta. 64.616 ale horiek honela daude banatuta: 47.755 liburu, 6.186 aldizkari, 6.179 DVD, 3.373 CD eta 1.027 fitxategi digital. Gainerakoen artean daude partiturak, mapak, planoak eta bestelakoak. Kopuru hori, Udal Bibliotekako arduradunek azaldu dutenez, "etengabe" aldatzen doa.



**GOIAZ! 2014**  
Lanbide Heziketaren Azoka  
Martxoak 26 eta 27an;  
Kulturaten, Arrasaten.



NiNeu / YoMism@ BideoCV  
lehiaketa antolatu dugu.

Pentsatu, grabatu eta bidali  
zure bideo curriculum-a!

Informazio guztia:  
[www.debagoiena.net](http://www.debagoiena.net)



[www.facebook.com/goiazdebagoiena](http://www.facebook.com/goiazdebagoiena)



[www.twitter.com/goiazdebagoiena](http://www.twitter.com/goiazdebagoiena)



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Foru Aldundia



Gipuzkoa ekintzailea

## LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK EZAGUTUZ

*"Ez dut inoiz arazorik izan lanik aurkitzeko, hamaika tokitan ibili naz jada"*

Zuzendaritza Idazkaritzan goimailako heziketa zikloko ikaslea da Maitane Lasa. Ez da berria, ordea, Enpresagintza Fakultatean. Aurretik, Administrazio eta Finantzak ere ikasi zuen. Berrito ikasten hasi eta lana aurkitu du. Bekaduna da unibertsitateko idazkaritza akademikoan. Ikasten duen bitartean lana egitea erraza dela dio.

### Zerk bultzatu zintuen Lanbide Heziketa ikastera?

Lan esparruan sartzeko aukera ona eta azkarra izateaz gain, irteera asko ditu. Hasieratik nuen lan egiteko interesa eta aukera zuzenena zela iruditu zitzaidan.

### Nola ezagutu zenuen LH?

Batxilergo Humanistikoa ikasi nuen, eta bigarren mailan ezagutu nuen, orientatzailearen eskutik. Berez ikasketetan arazoak dituzten ikasleei gomendatzen zaie heziketa mota hau, baina aukera on eta azkarra da lan esparrura zuzenean sartzeko. Nire kasuan, ikasketak bukatu nituenetik ez dut lan faltarik izan.

### Inguruko laguntza jaso zenuen LH aukeratzeko orduan?

Bai, gurasoek asko lagundu zituzten, eta oso garrantzitsua izan zen hori niretzat. Lagunak ere badituzte ikasketak hauetan dabilzanak, eta haiek ere animatu ninduten.

### Ezagunei edo lagunei gomendatuko zenieke LH?



Bai, horixe. Badituzte bi lagun erdi mailako bi ziklo ikasi dituztenak eta gaur egun biek lanpostu finkoa dute. Unibertsitatean baino denbora laburragoa pasatzen dugu ikasten eta lanerako aukera berak edo gehiago ditugu.

### Lanera begira, onurarik izan du Lanbide Heziketako ikasketak egin izana? Erraza da lana aurkitzea?

Orain, berriz hasi naiz ikasten, baina ez dut inoiz arazorik izan lanik aurkitzeko. Hamaika tokitan ibili naiz jada, unibertsitatean, enpresetan... Hori bai, praktikak norberak hauta dituzten gomendatuko nuke. Oso garrantzitsua da gus-tuko leku batean aritzea eta ikasketak aukera aprobetxatzea.

### Ikasketetan zer izan da gogorra?

Ikasketak aukeratzeko. Gerora nire gus-tuko gaietan sakontzen nuen, erraza izan da ikasketak aurrera eramatea. Orain ikasten nabilen bigarren ziklo honetan hainbat materia baliozkotuta ditut aurreko ikasketak direla-eta. Beraz, ez zait gogorra egiten ikasten aritzea.



ARRASATE HERRI ESKOLA

## Herri Eskolakoak Pagasarrin

Arrasate Herri Eskolako guraso elkarteak mendi irteera antolatu zuen joan den domekarako. Bilbo ingurura egin zuten txangoa; Pagasarrin ibili ziren, eta, eguraldia lagun, Bizkaiko hiriburua inguruko paisaiaz gozatu zuten. 65 lagun elkartu ziren eta, adierazi dutenez, egun polita pasatu zuten, familia giroan.

## ZALDIBAR

EMAITZAK	
Sonografos - Birigarruak	17-0
Abokajarro - Sport in tus bragas	3-0
Dribling - Fidel & Discipulos	2-4
Ostantz - Haizea's Weah	7-1
Cantauri - Jibaros F.C.	5-7
Betrayer - Iluntz	3-2
Lasagabaster - Aldatz	3-3

SAILKAPENA	
TALDEA	J P
1 Dribling	11 30
2 Aldatz	11 23
3 Sonografos	11 22
4 Betrayer	11 22
5 Lasagabaster	11 22
6 Haizea's Weah	11 21
7 Iluntz	11 20
8 Fidel & Discipulos	11 14
9 Sport in tus bragas	11 13
10 Abokajarro	11 12
11 Ostantz	11 10
12 Jibaros F.C.	11 9
13 Cantauri	11 5
14 Birigarruak	11 0

PARTIDUAK	
HILAK 22, ZAPATUA	
10:00 Sport in tus bragas - Fidel & Discipulos	
11:00 Birigarruak - Haizea's Weah	
12:00 Lasagabaster - Betrayer	
13:00 Dribling - Sonografos	
HILAK 23, DOMEKA	
11:30 Cantauri - Ostantz	
12:30 Iluntz - Jibaros F.C.	
Ostantz	

## Dribling txapelkun fase erregularrean

Fase erregularra amaitzeko bi jardunaldi falta dira, baina Dribling da txapelketa.

## Partidu bat atzeratuta

Aldatz eta Abokajarro taldeen arteko partidua atzeratzea eskatu zuten Aldatzek. Atzerapena aurreko domekan eskatu behar da.

## Ford Mugarrik Tolosan jokatu du bihar, 20:00etan

Lehen Nazional Mailan jokatzen duen Ford Mugarri eskubaloi taldeak Tolosaren aurka jokatu du bihar (20:00). Talde arrasatearra laugarrena da sailkapenean, 23 puntuekin. Tolosa, berriz, bederatzigarren postuan dago 18 puntuekin. Pablo Gartziaeren mutilek garaipena lortu beharko dute, Eibar eta Zaragoza ez daitezela askorik aldentu.

## Atletico San Sebastian taldearen kontra jokatu du MUK

Mondragon Unibertsitatea saskibaloi taldeak Donostian jokatu du bihar, Atletico San Sebastian taldearen aurka (18:00). Josu Larreategiren mutilek lidergoa eskuratu gura dute, lider den Bide Bide Donostia puntu bakarrera dago-eta. Horretarako, MUK irabazi eta talde donostiarrak huts egin beharko du.

## Lesioak gaindituta, bueltatu da Ibai Bolinaga mailarik onenera

Euskadiko Ligaren barruan, finalerdien aurreko azken lehia jokatu du etzi

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Euskadiko Ligan jokatu ahal izateko Soralezeko klubarekin dabil orain Ibai Bolinaga pilotaria (Arrasate, 1991). Gaztetxoekin entrenatzen hasi aurretik harapatu dugu asteon, Uarkapen.

Gaztea bezain heldua da Bolinaga, eta, lesioak lesio, aurrera egiteko grina erakutsi du. Aitor-tu digunez, ez zuen denboraldi hasiera erraza izan: "Hiru edo lau hilabete lesionatuta eman ditut. Lehendabizi, fisura bat izan nuen eskumuturrean eta gero, eskuetan arazoak izan nituen". Hortaz, "serio-serio" orain gutxi hasi da lehiatzen, urte berriarekin batera. Sentsazio onekin ari dela dio; Euskadiko Ligan bost partidua jokatu ditu eta guztietan irten da garaile. Gasteizen jokatutako beste txapelketa baten ere bi norgehiagokak irabazi zituen. Zazpitik zazpi, beraz.



Bolinaga, Uarkapen, gaztetxoekin entrenatzen hasi aurretik. | JAGOBA DOMINGO

## Euskadiko Liga, lehenetara

Euskadiko Liga da lehenetara Bolinagarendako. Domekan ligako azken partidua jokatu du eta lehen postua izango dute jokoan. Gero, bi aste barru finalerdiak

jokatu dituzte. Hortik aurrerakoak ez ditu erabaki: "Ikusiko dugu ze txapelketatan parte hartu. Debarroko txapelketa dago, hemen ingurukoa dena. Herri artekoa ere hasiko da laster, eta,

horrez gain, beste hainbat txapelketa daude; Gasteiz inguruan, adibidez".

## Aste bukaerako partidua

Bestalde, gaur eta bihar hainbat partidua jokatu dira Uarkape pilotalekuan. Gaur, hasteko, umeen arteko lagunarteko partidua jokatu dira, 19:00etan. Ondoren, 20:30 aldera, Udaberri txapelketa barruan hiru partidua jokatu dira: infantil mailan, Murua eta Llodio Azpeitiko Ilunpe taldeko bikotearen aurka jokatu dute; gazte mailan, Garate eta Salegi Amezetako Zazpi Iturri taldearen aurka lehiatuko dira; azkenik, senior mailan, Zua Zuak eta Lazkanok jokatu dute.

Bihar goizean Euskal Ligako jardunaldia jokatu dute kadeteek, 11:30ean hasita: Moronek eta Zeziagak Izarraren aurka jokatu dute. 12:30ean, berriz, Udaberri txapelketa izango da protagonista, senior mailan: Arabaolatxak eta Etxazarretak Debako Euskal Giroa taldeko bikotearen aurka neurtuko dituzte indarrak. Domekan, azkenik, Iraola eta Zubizarreta alebinek eta Bengoa eta Iturriotz kadeteek jokatu dute, 11:00etan hasita.

## Anaitasuna hartuko du Mondrak etzi

J.B. | ARRASATE

Mondrak Anaitasuna hartuko du domekan Mojategin (16:30). Azken jardunaldiko azken txanpan oso baliotsuak ziren bi puntu galdu zuten arrasatearrek, eta etxean jarraian jokatzen duten bigarren jardunaldia aprobetxatu gura dute sailkapeneko goiko postuei begira jartzeko. Izan ere, Erregional Preferente mailan oso parekatuta dago dena; Mondra zazpigarrena izan arren sei puntu eskasera du liderra, Amaikak Bat.

Gotzon Urzelai Mondrako entrenatzaileak ezingo du Azkoitiko taldearen aurkako partiduan gura duen hamaikakoa zelairatu, hainbat jokalarik min hartuta daude-eta.



Iker Lopez kapitaina baloiekin, artxiboko irudi baten. | GOIENA



## Besaidekoak, mendian eta sagardotegian

Besaide Mendizale Elkartearen 30 lagunek mendi irteera egin zuten domekan. Ibilbide polita egin zuten Gipuzkoako kostalde inguruan; Andatza eta Belkoin -argazkian- tontorak egin zituzten, esaterako. Gero, Adunako sagardotegi baten bazkaldu zuten.

## Atleta arrasatearrek hainbat domina lortu zituzten Euskadiko Txapelketan

J.B. | ARRASATE

Joan den aste bukaeran Euskadiko Txapelketa jokatu zen Donostiako Anoeta belodromoan. Arrasateko pertika jautzilariek nagusi izan ziren beste behin. Jonathan Perezek urrezko domina lortu zuen -4,80 metroko jauzia-, Maialen Axpek eta Istar Dapenak zilarrrezkoa -3,80 metroko jauzia egin zuten biek- eta Malen Ruiz de Azuak brontzezkoa.

Iñigo Uribarrenek, bestalde, 200 metroko lasterketan hartu zuen postua; laugarren postua eskuratu zuen, 22,60 segundoko marka eginda. Kontuan hartu behar da emaitza ona dela Uribarrenendako, normalean jauzi hirukoitzean lehiatzen da-eta. Aste bukaera honetan Sabadellen (Katalunia) hartuko dute parte lau atletek, Espainiako Txapelketan.

## Arrasate Rugby Taldearen partidua, bertan behera

Domekan Arrasate Rugby Taldeak eta Uribealde B taldeak jokatu behar zuten partidua bertan behera geratu da. Mungia taldeak ezingo du gutxieneko jokalarik kopurua ekarri domekan Mojategira eta hala jakinarazi zion atzo euskal federazioari. Beraz, domeka goizean ez da errugbirik izango Mojategin.

Amaia Merino | Zine zuzendaria

## "Gatazkaren inguruan jorratu ez diren arloak azaleratzen saiatu gara"

Domekan (19:30) filma ikusi eta gero, zuzendari eta ekoizlearekin solasaldia egongo da antzokian

IMANOL GALLEGU | ARRASATE

*Asier ETA biok* iazko Donostiako Zinemaldian aurkeztu zuten, eta euskal zinemaren saria irabazi zuten. Bultzada horren ostean, Euskal Herritik kanpo ikusteko aukera ere izan da, Meridako Festival de Cine Inediton aurkeztu baitzuten dokumentala. Areto komertzialetan ere estreinatu da eta bertan ibilbide luzea egin du. Horietakoz batzuetan, baina, polemika handia eragin du: Asierren atxiloketarik edo bertan jorratzen den gaiarengatik. Larunbatetik astelehena bitarte Amaia antzokian eskainiko dute filma, baina, dudarik gabe, domekako saioa izango da emanaldi bereziena. Egun horretan, filma ikustez gain, Amaia Merino filmaren zuzendarietako batekin solasaldia egongo da. Jendearekin izango duen solasaldiaren aurretik, GOIENAK egindako galderak erantzun ditu.

**Filma aste bukaera zehar emango dute, baina zu domekan egongo zara, ezta?**



Amaia Merino zuzendaria. | MIGUEL ALVEAR

Halaxe da, aste bukaeran zehar hainbat aldiz eskainiko dute, baina solasaldia domeka arratsaldean egingo da. Jendearen galderak erantzuteko orduan, baina, ez naiz bakarrik egongo, filmekeko ekoizlea izan den Ainhoa Andreak ere bertan egongo da. **Nolako solasaldia izango da?** Ez dugu formula zehatzik adostu. Jendearen gogoetak, galderak, kezak... horiek guztiak erantzuten saiatuko gara. Guk, gure

aldetik, film batean ikusi ezin diren arloez mintzatuko gara, baina, nire ustez, jendearen galderak garrantzitsuagoak dira. Gu horiek erantzuteko asmoarekin joango gara Arrasatera.

**Nola definituko zenuke *Asier ETA biok*?**

Aitor eta Amaia Merino anai-arrebek egindako dokumentala da. Hasiara batean, hemendik kanpo gatazkaren beste ikuspuntu bat erakusteko egin genuen arren, gure sorpresarako, hemen oso harrera ona izaten ari da. Estreinatutatik 21.000 pertsonak ikusi dute gure filma, guztiz txundituta gaude.

**Filma galderak erantzun edo berriak planteatzeko egin zenuen?**

Aitorrek eta biok, euskaldunak izan arren, azken 27 urte hauek kanpoan igaro ditugu, eta beti igarri dugu euskaldun zarena izateak zenbat aurreiritzi dituen. Film hau egitean gure ikuspuntua eta Asierrena islatu nahi izan ditugu. Aldi berean, orain arte estatu mailan euskal gatazkaren inguruan jorratu ez diren arloak azaleratzen saiatu gara.

**Hori guztia, gainera, fikziora jo gabe?**

Errealitatean oinarritu gara, bai. Anaiak bizitako gertakari eta erlazioa dira filmaren ardatza.

**Nolabait esateko, adiskidetasuna da filmaren oinarria.**

Bai, baina adiskidetasun hori gatazkaren erdian gertatzen da eta gertakariak kolokan jarriko dute Aitorren eta Asierren arteko erlazioa.



Eguaztenean gaztelarako taldeak egindako solasaldia. | IMANOL GALLEGU

## Galdutako irakurketa bisuala berreskuratzeko solasaldiak

I.G. | ARRASATE

Prosa edo poesia. *Literatura* hitza bi kontzeptu horiei lotuta dago. Jende askorentzat, hor amaitzen da literatura eta bere irudimenaren hegaldia.

Aurreko urtean, ideia hori apurto eta literaturari esparru berri bat zabaltzeko asmoarekin, Kulturateko literatura solasaldien barruan komikia sartu zuten antolatzaileek.

**Irudiaren irakurketa**

"Hitzak irakurtzetik irudiak irakurtzera aldea dago, baina jendeak bizkor jaso du aldaketa", aipatu du Antonio Altarribak, solasaldietako koordinatzaileetako batek. Haren ustez,

jendeak irakurketa soil bat egitetik irakurketa osoagoa egitera pasatu behar du.

**Hurrengo saioak**

Hain zuzen ere, martxoan boro bilduko dute irakurle askoren jakin-mina piztu duen ziklo hori.

Aurretik baina, eguaztenean, euskarazko taldearen txanda izango da. Haiek, Joxe Azurmendiren gidaritzapean, *Bar-kamena, kondena, tortura* obraren inguruan mintzatuko dira. Betiko moduan, solasaldiak 18:30ean hasiko dira. Gogoan izan behar da saio guztiak irekiak direla, baina liburua irakurria izatea ezinbestekoa da.

## Los Txingones taldearen eskutik festa mexikarra gaur Iluntz tabernan

Pipermin erronka, janari mexikarra, garagardoa, mozarroak, tekila... 21:00etatik aurrera, Mexikoko edozein herritan egiten den festa baten itxura izango du Iluntz tabernan. Hori guztia girotzeko, gainera, Los Txingones talde misteriosuak sorpresaz beteriko emanaldi berezia eskainiko du. Festa giroan murgiltzeko ez da aitzakia askorik behar izaten; hala ere, Iluntz tabernan, aitzakiak baino gehiago, pisuzko arrazoiak emango dituzte gaur gauean. Sofak sortu ohi duen lozorritik irten eta *padrisimo* pasatzeko aukera ezin hobea antolatu dute Arrasateko taberna beterrano horretan.

## Screamers and Sinners taldeak diskoa aurkezten segitzen du

Screamers and Sinners boskoteak duela hilabete kalera-tu zuen *Demon Tales* lana aurkezten jarraituko du asteburuan. Gaur, egubakoitza, Elorrioko gaztetxean izango dira Odolkiak Ordainetan tafallarrekina batera; azken horiek aurkeztuko dute diskoa. Zapatuan, berriz, folk-rock musika egiten duen The Potes arrasatearrekin batera Zumaia-ko gaztetxean joko dute. Egun horretarako, gainera, Arrasate eta Aretxabaletako lagunekin autobusa antolatu dute; guztira, 50 bat lagun joango dira kostalderaino ondo pasatzeko asmoz.

## Oinarritzko argazkigintza eta bideogintza ikastaroak

Argazkigintza ikastaroa martxoaren 18an hasi eta apirilaren 29ra arteko martitzen emango da. 25 euroren truke -langabe eta ikasleentzat 15-, 18:00etatik 20:00etara argazkilaritzaren oinarritzko kontzeptuez gain, Photoshop eta Lightroom programak landuko dira. Bideogintzako saioak martxoaren 19an eta 26an emango dira 18:00etatik 20:00etara. Ikastaroaren prezioa 10 euro da-5 eurokoa ikasle eta langabeentzat-. Argibide gehiago: [gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net](mailto:gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net) edo 943 25 20 65 telefono zenbakian.

## Bihar, Oihan Vega DJak piztuko du erdiguneko gazte txokoa

I.G. | ARRASATE

Nork esan du zapatu arratsaldeak aspergarriak direla? Bada, erdiguneko gazte txokoa ez dute zapatu aspergarriak nahi, eta bihar, 18:30ean, DJ saioa izango dute. Hain zuzen ere, Oihan Vega geroztako du gazte txokoa.

**Erritmoaren errege**

2007. urtetik aurrera Oihan Vega telebistako aurkezle eta irratiko esatari ezaguna Euskal Herriko DJ erreferente bilakatu da, 100 herri baino gehiagotatik igaro baita bere disko festa entzunarekin.

Euskal Herriko disko festa handienak egin ditu, Donostian, Aste Nagusian, Zurriolako hondartzan 3.000 pertsonaren aurrean, eta Kilometroak eta Ibilaldia jaialdietan 8.000 pertsonaren aurrean.

Biharkoa, baina, saio berezia izango da. Formatu txikiagoko emanaldi honetan, Oihan Vega gertuago izateko aukera gozatzeaz gain, horrelako saio txikietan sortzen den giroaz gozatzeko aukera izango da. Duda barik, Bergarako DJak Arrasateko gaztetxo guztiak dantzari jarriko ditu bihar arratsaldean.

**PUB HAIZEA**

arrasate

arbolapeta

arrasate

★

beinke

*Sipi Sipi*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82



Surfixed lasterketaren hasiera, San Anton kalean, joan den urtean. | ANTON MIETTINEN

# Kantoikrit, kantoien arteko kriterium berria

Orain arteko Surfixed probaren ondorengoa da eta irudi eta logo propioa izango ditu aurrerantzean

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Kantoien arteko kriteriuma da Kantoikrit eta bizikletaren inguruan uda partean antolatuko duten asteburuan jokatu da, pinoi finkoan, herri barruan eta gauez. Asteburu hori antolatuko duen taldearen izena ere bada.

Azken bi urte hauetan surf festaren barruan antolatu duten Surfixed probaren ondorengoa

da Kantoikrit. "Oso pozik antolatu dugu proba hori surf festaren barruan, baina zein harrera ona izan duen ikusita eta bizikletaren inguruan zerbait gehiago egiteko asmoarekin, atera egin dugu lasterketa hori surf festatik. Bizikletaren inguruko hainbat ekitaldi izango dituen asteburu oso bat antolatzea da gure asmoa, eta horren barruan sartuko da



Logoa eta irudia. | KANTOIKRIT

aurrerantzean proba hori, izen eta irudi berriarekin: Kantoikrit", argitu du antolatzaileetako batek, Antton Zubiak.

## Bizikleta

Bizikletari zuzendutako asteburu hori uda partean izango da, eta, lasterketaz gain, bideo emanaldiak dituzte, besteak beste. Ekitaldietako bat, hala ere, gaueko kriteriuma izango da. "Orain artekoaren antz handia izango du Kantoikrit probak ere. Honek ere 20 bat kilometro izango ditu, 13 erabat urbanoa izango den zirkuitu bati. Pinoi finkoan lehiatuko dira txirindulariak eta gauez izango da. Aldatuko den gauza bakarra, agian, helmuga izango da; San Anton kalean bukatu barik, litekeena da lasterketa Foruen plazan bukatzea", aurreratu du Zubiak.

Probaren eta elkartearen logoa eta irudia egin dituzte eta orain, ibilbidea bera zehazten, asteburu horretan egongo diren beste hainbat hitzordu lotzen eta guztia antolatzeko behar dituzten baimenak, aseguruak, sariak, materialak edo kartelak, adibidez, egiteko diru laguntzak ari dira lortzen. Errifak ere atera dituzte dirua batzeko.

## Txartelak salgai

Errifak salgai daude dagoeneko, euro baten, Luisena tabernan eta Lizarralde bizikleta dendan. Hiru sari zozketatuko dituzte: pinoi finkodun bizikleta bat, L'Uomocolmartello ekipamendu bat eta Luisena tabernan 30 euroko pintxo-bonua. Zozketa apirilaren 26an egingo dute eta sariak San Anton plazan emango dituzte egunean bertan. Zozketa eguna bitartean herrian antolatuko diren ekitaldi nagusietan ere egongo dira txartelak salgai.

## Bilduren akusazioa "faltsua" dela dio EAJk

O.E. | OÑATI

"Bilduren Oñatiko Udal Gobernuak prentsa oharra atera zuen 2013ko enplegu sorrerari buruz, aurreko legegaldiko zenbait datu alderatuz. Baina horrez gain, EAJk "gezurra" esan eta pertsonen aurretik "hormigoia eta megaproiektuak" jartzen zitueneko akusazioa egiteko aprobetxatu zuen. "Oñatiko EAJk ez du inolako oharrik kaleratu gai horretaz; ondorioz, gezurra esaten duela dioen akusazioa faltsua da". Hori adierazi du, prentsa ohar bidez, herriko EAJk joan den astean Udal Gobernuan enpleguko datuekin ateratako oharren harira.

## Enplegu plana

Horrez gain, EAJren oharra dio Enplegu Plana 207-2011ko "lehen tasuneko proiektua" izan zela eta plan hori osatzen zuten gainerako ekimenak aipatzea "ahaztu" zaiola Udal Gobernuari. EAJk dio lanik gabe zeuden 74 herritarri eman zitzaizela lana, 579 herritarrek enplegurako formazioa jaso zutela eta enpresa txikietan kontratazioak egiteko laguntza programa ere ezarri zutela. Enplegu planak milioi bat euro pasa hartu zuela dio oharra eta erdia pasa Udalak finantziatu zuela zuzenean. "Datuak hori daude eta pertsonak beti izan dira lehen tasun EAJk zuzendutako gobernuetan", dio oharra.

## 'Zazpi aldiz elur' antzezlanak ikusteko sarrerak salgai

O.E. | OÑATI

Mikel Laboaren omenezko ikuskizuna da *Zazpi aldiz elur*. Mireia Gabilondo beragararrak zuzendu du, Kike Díaz de Radarekin batera, eta Ttanttakaren eskutik dator Oñatira datorren egubakoitzean, otsailaren 28an, Santa Ana antzokira. Sarrerak, baina, salgai daude dagoeneko. 10 eurotan eros daitezke [www.barrabarra.eu](http://www.barrabarra.eu) atarian. Batzuek dagoeneko erosi dituzte.

Iñaki Salvador eta Anjel Unzu musikariak, Maria Bersarte abeslaria eta Iñaki Rikarte eta Mireia Gabilondo aktoreak dira protagonistak. Laboaren kantuak oinarri dituen ikuskizun intimista da *Zazpi aldiz elur*. Bernardo Atxagaren artikuluan oinarrituta dago.

## Lege soziologia zer den azalduko diete ikasleei

O.E. | OÑATI

Lege soziologia zer den azaltzeko hitzaldia egingo dute datorren astean. Oñatiko hiru ikastetxeetako Batxilergoko 162 ikasleei zuzenduta egongo da. Eguenean izango da, otsailak 27, goizean, Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundearen, eta 25. urteurrenaren barruan sartzen da.

Lau hizlari etorriko dira: Larraitz Ugarte zuzenbidean doktorea eta diputatua, Jose Antonio Azpiazu historialaria, eta zuzenbideak doktoreak diren Iker Barbero eta Adam Czarnota.

Friendship programarekin herriko ikasleak lege soziologiaren askotan entzun badute ere, askotan galdetzen ei dute zer den, zehazki, eta horregatik antolatu dute hitzaldia.



Aozaratza kalea, obretan. | IRATI GOITIA

## Oinezkoei begirako kalea izango da Aozaratza

Udalak bilera egingo du auzotarrekin zehazteko zein erabilera izango duten ibilgailuek kale horretan

O.E. | OÑATI

Aozaratza kaleko obrek aurrera jarraitzen dute. Noiz bukatuko dituzten zehatz esaterik ez bada ere, litekeena da martxoaren bukaerarako itxura berria izateko kaleak.

Obra horien helburua da kale hori oinezkoei egokitutako kalea izatea.

Helburu hori aintzat hartuta, baina, hainbat lan egin behar dituzte: batetik, azpiegitura guztia berri egingo dute. Hau da,

saneamendua, ur hoditeria eta sare elektriko berria jarriko dute. Hori guztia egiteko, orain arteko lurzoria jaso egin dute eta azpiegitura lanak bukatutakoan, asfalto berria jarriko dute. Gero, maila berean egongo dira oinezkoak eta ibilgailuak.

Kale hasieran, garai batean Arantzazu taberna zegoen orubean, plazatxo bat egingo dute.

Biribildune nagusiari lotuta, berriz, biribildune bera ez dute aldatuko, neurriak egokiak direlako, baina Aita Lizarralde kaleetik saihesbidera joateko ibilgailuek egin beharreko bira estua da, eta hori leundu, zabaldu, egingo dute.

## Bilera

Aozaratza kalean auto asko egoten ziren lehen aparkatuta, eta hori ere saihestu gura du Udalak lan horiekin. Aurrerantzean kale horretan egongo diren ibilgailuak mugatuak izango dira, baina muga hori edo ibilgailuek kale horretan izango duen erabilera nolakoa izango den adosteko, Udalak bilera egingo du auzotarrekin. Data zehazteke dago, baina datorren astean izan daiteke.



Juan Luis Marquez 'Txarli' | ESK-ko kidea

## "Gordilloren eta Cañameroren bila doaz, beraiek dira buruak"

- ▶ Sevillan, Las Turquillas eremu militarra okupatzeagatik inputatuta dago
- ▶ Andaluziako Auzitegi Gorenean epaituko dute, SATeko kideekin batera

JULEN IRIONDO | OÑATI

Las Turquillas-en okupazioagatik 23 lagun daude inputatuta.

### Ze epai espero duzu?

Berriki atera da sententzia bat beste okupazio batena, eta inputatuta zeuden 54 lagunetatik lau kondenatu dituzte, SATeko arduradun direnak zehazki. Zazpi hilabeteko kartzela zigorra eta 1.200 euroko isuna jarri diete. Baina ez dakit; zigortu nahi bagaituzte, zigortuko gaituzte.

### Horrelakoren bat espero duzu, dena dela?

Bai, horrelako zerbait. Azkenean, [Juan Manuel Sanchez] Gordilloren eta [Diego] Cañameroren bila doaz, ze beraiek dira buruak; jendeak jarraitu egiten die horiei, eta horregatik doaz euren bila.

### Eta denak absolbitzea litzateke justuena...

Noski. Andaluzian gertatzen dena ikaragarria da; eta Las Turquillas-ekoa, zentzugabekeria. Herritarren %40 lanik gabe dagoen zonalde batean 1.200 hektareako lur eremua edukitzea ezertarako erabiltzen ez dena...

### Eta zer egin ahal izango litzateke ba? Zer proposatzen du SATek?

Hainbat gauza. Lurra lantzea; olibondoak landatuko lituzkete eta, batez ere, lehorreko lurrak erregadioko lur bihurtzea nahiko lukete. Ze erregadioak askoz ere lanpostu gehiago ematen ditu.



Juan Luis Marquez Txarli. | J.I.

Zerealak landatzen badituzu, makina bat pasa eta lagun bakar-rak lan asko egin dezake. Proposatzen dutena da Marinaledan bezala piperrak, alkatxofak, babak... landatu eta ereitea, eta gero han bertan kontserba potee-

tan sartu, eta lanpostuak sortu horrela. Horrez gain, Las Turquillas-ek aintzirak-eta ere baditu, hegaztiekin eta, eta badute asma turismoa bultzatzeko eta nekazaritza ekologiko eskola bat egiteko.

## Gureak tailerra bisitatu dute Ikastolako ikasleek, 'NiZu=' programarekin

"Desgaitasunaren inguruan sentsibilizazioa eta gerturatzea eragitea" da ekimenaren helburua

J.I. | OÑATI

Gureak taldeak Bergaran duen tailerrean bisitan izan dira Txantxiku ikastolako 6. mailako ikasleak. Gureak elkarteak eta Ikastolen elkarteak elkar-lanean egiten diharduten NiZu= (Ni zu bezala) programaren barruan gauzatutako irteera izan da. Ikasleak ezgaitasuna duten pertsonekin harremanetan jarrita, haiek "hurbilagotik ezagut ditzaten eta horiekiko hurbiltasuna landu dezaten" nahi duen programa da aipatutakoa.

Programak lau atal ditu: sentsibilizazio lana, gelan; tailerrera bisita; hausnarketa, gelan; eta zabalkundea, ikaskideei, gurasoei, gizarteari oro har... Gureak-en tailerrera bisi-

ta egin eta gero, beraz, programaren hirugarren eta laugarren puntuak jorratuko dituzte ikasleek datozen asteetan.

### "Desgaitasuna ulertu"

Programa honen helburua da, esan bezala, "ikasleek desgaitasuna ulertu" dezatela. Horrez gain, "desgaitasuna duten pertsonen lanerako gaitasunak eta bizi egiturak gertutik ikus ditzatela" ere nahi dute, eta baita "dibertsitatea onartu eta baloratu" dezatela ere.

Honez gain, tailerreko bisitok in ikustarazi nahi dute "taldeko lanaren bidez gauza handiak lor daitezkeela" eta "persona guztiek funtzio bat dutela", ardura gehiago edo gutxiago izan.



Ikasleak, Gureak-en tailerrean. | TXANTXIKU IKASTOLA



URGAIN

## Institutuko ikasleak, sariarekin

Urgainen Zuazola-Larraña Institutuko DBHko 2. mailako ikasle Saioa Varela, Jone Alberdik eta Sara Mantxolak jaso dute saria Zure janaria ez da hondakina izeneko lehiaketarako egindako lanagatik. Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearren barruan, Euskadiko Hiri Hondakin Koordinazio Organoaren lehiaketan, sare sozialetan boto gehien jaso duen bidea da Oñatikoena; zetazeoak ikusteko txangoa irabazi dute.

## Zuhaitz landaketa domekan herrian: 10:00etan, plazan

Natur Eskolaren XVIII. Ingarumen Jardunaldien barruan, zuhaitz landaketa egingo dute domekan herrigunean. 10:00etan plazan elkartu eta Enpresagintza fakultatea eta hilerria artean askotariko zuhaitzak landatuko dituzte, ehun bat.

Adin guztietako herritarrei dago zabalik deialdia, denentzako moduko lanak izango dira eta. Lanerako apropos jantzita joateko eskatu dute, eta baita atxurren bat-edo edukiz gero eramatea ere.

Horrez gain, martitzenean, 42.000 miliako itsaspeko bidai; Malaspina 2010: zirkumnabigazio-espeditzioa izeneko hitzaldia (19:00etan) egingo du Iñigo Azua mikrobiologoak, eta eguenean Guadalquivir filma (20:00) ikusteko aukera izango da. Bestalde, Imanol Artolaren Egurra eta natura erakusketa ere ikusgai dago martxoaren 2ra arte (18:00etatik 20:00etara, egunero); dena, kultura etxean.

## 'Ikastetxeak kantari': urteko lehena zapatuan

19:00etan hasiko da saioa Santa Anan, eta ume guztiek batera abestuko dute amaieran

J.I. | OÑATI

Ikasturteko ebaluaketa bakoitzeko egiten dute saio bat *Ikastetxeak kantari* ekimenean diharduten umeek, eta zapatukoa izango da aurtengo lehenengoa. Urgain, Elkar Hezi eta Txantxiku Ikastolako abesbatzek bakarka abestuko dute aurrena, eta saioaren amaiera aldera bost abesti abestuko dituzte neska-mutiko denek batera.

Ehundik gora ikasleek dihardute kantu koralerako zaletasuna eskoletako umeen artean bultzatzeko asmoz Ganbara abesbatzak martxan jarritako ekimen honetan. Ikastetxe bakoitzak du bere abesbatza, eta ordubeteko entsegua egiten dute astean. Saio horietan prestatutako piezak abestuko dituzte zapatuan.

### Erantzunarekin pozik

Gisa horretako hiru saio egin zituzten, adibidez, aurreko ikasturtean. Horrez gain, ikastetxeek antolatutako ekintzetan ere hartzen dute parte, eta beste egun berezi batzuetan ere bai; azkena, adibidez, Ganbara Txiki abesbatzaren hamargarren urtemugako ekitaldian.

Eskolentzako baina eskolaz kanpoko orduetan egiteko jardura gisa planteatu zuen Ganbarak ekimena, eta oso pozik daude izaten ari den harrerarekin: "Halako ekintza batean ehundik gora neska-mutiko ibiltzea bada arrakasta", dio taldeetako biren zuzendari lanetan ibiltzen den Josu Zubiak. 1. eta 6. mailen arteko umeek abesten dute ikastetxeetako abesbatzetan.

# Bost dominarekin etorri da Josune Odriozola Valentziatik

Martxoan Madrilen jokatu du Espainiako beste txapelketa bat

OIHANA ELORTZA | OÑATI

"Oso pozik etorri nintzen Valentziatik, bai. Sekulako asteburua egin genuen eta emaitza oso onak lortu. Martxoaren bukaeran Madrilen jokatu da Espainiako beste txapelketa bat eta hara joateko entrenatzen jarraituko dut", dio Josune Odriozola igerilari oñatiarrak, pozik.

## Taldea ere bai

Bost domina lortu zituen Josune Odriozolak Espainiako txapelketaren barruan jokatu ziren azken probetan, urrezko bi eta zilarrezko hiru. Otsaileko bigarren asteburuan jokatu zituen, Valentzian. "Euskal Herritik zazpi lagun joan ginen. Batzuek esperientzia handiagoa genuen txapelketetan beste batzuek baino, baina oso ondo aritu ginen denok. Taldeko lanean ere bai", dio igerilariak.

Guztira, bost proba egin zituen Valentzian jokatu duen txapelketan: 400 eta 100 metro librea, 100 metro tximeletan, 200 metro estiloan eta 4x50 metroko errelebu proba bat. Urrezko dominak 400 metro librea eta 200 metro estiloan irabazi zituen eta beste hiru probetan, zilarrezkoa. Errelebu proban, Konporta taldearekin lehiatu zen.

## 'Artza' eta Almerich

Martxoaren 29an eta 30ean Madrilen jokatu du Espainiako txapelketako beste proba batzuetan du orain burua Odriozolak. "Beste bost proba ezberdin auke-



Josune Odriozola, igerilekuan. | ARATZ LOSADA

ratu ditut Madrilerako eta horiek prestatzen nabil orain", dio igerilariak.

Zubikoako igerilekuan egiten ditu entrenamenduak Odriozolak, Artza-ren eskutik. 06:00etarako joaten da aste barruko bost egunetan eta ordu eta erdiz entrenatzen da. 40 bat gaztetxo entrenatzen dira ordu horretan kiroldegiko igerileku handian. Artza-z gain, baina, badu beste entrenatzaile bat Odriozolak. Jabi Almerich da eta kanpoko probetan haren aginduetara egoten da. "Oinarrizko entrenamendua eta prestaketa, baina, Oñatin egiten dut", dio. Itsasoko zeharkaldiak

ere egiten ditu, "baina ez du zerkusirik, askoz lasaiagoak dira proba horiek".

Batxilergo mailako ikasketa egiten dihardu 18 urte dituen gazte oñatiarrak. Azterketak ditu orain eta eguna motz gelditzen zaio. "Ingelesera ere joaten naiz, baina ez dut beste ezertarako astirik", zehaztu du.

## Paralinpiar Jokoak

Bi urte barru, 2016an, jokatu du Paralinpiar Jokoak Brasilen, eta hara joatea gustatuko litzaioke. "Ederra izango litzateke, bai. Oraindik, baina, urruti ikusten dut hori. Auskalo".



Umerez, Espainiako txapelketan, Segorben (Castello). | ARRIKRUTZ-ALOÑA MENDI

# Pistetako probetatik errepideko lasterketetara

Espainiako eta Frantziako ziklo-kros txapelketetan hartu dute parte Arrikruz-Aloña Mendikoe

O.E. | OÑATI

Denboraldi berriko taldeak aurkeztu ditu Aloña Mendiko txirrindularitza sailak. Izan ere, udaberriarekin batera, errepideetako lasterketen egutegia izango dute aurrerantzean txirrindulariek. Horietako batzuk pistetako lasterketak alde batera utzi eta asfalto gaineko probetara pasako dira. Gogotsu eta indartsu.

## Lehen bost postuetan

Izan ere, ziklo-kros denboraldi oso ona egin dute Arrikruz-Aloña Mendi taldeko txirrindulariek. "Julen Umerezek Espainiako txapelketan hartu du parte Euskadiko Selektzioarekin. Horrez gainera, Umerez bera, Ekaitz Txintxurreta eta Xabi Murgiondo Frantziako txapelketan izan ziren, Lande-

tan, Gipuzkoako Selektzioak deituta. Lehenengo bost postuetan sailkatu ziren hirurak", esan du Ruper Arkauz prestatzaileak. "Taldea txikia dugu, baina maila handikoa. Selektzionatzailea bera etorri zen guregana. Txirrindulari gehiago ere eraman gura zituen, baina ezin", jarraitu du.

Txirrindularien jarrera, gogoa eta ahalegina azpimarratu gura izan ditu Arkauzek: "Ez ditugu egutegiko lasterketa guztiak egin, aukeraturakoak baizik. Oso ondo ibili dira, disfrutatu egin dute, eta hori oso garrantzitsua da. Zoriondu egin gura ditut denak". Denboraldia bukatzeko, Arrikruztzeko kobetara bisita egin zuten txirrindulariek, gurasoek eta zuzendaritzako kideek, eta elkarrekin bazkaldu zuten gero.

## Loiuko Urdaneta taldearen kontra jokatu du bihar arratsaldean Natra-Oñati saskibaloitza taldeak

Etiket kanpo jokatu du bihar, zapatua, Natra-Oñati saskibaloitza taldeak. Urdaneta taldea izango du aurkari, eta lehia estua izango da, bi punturen alde besterik ez dago-eta talde bien artean. Bizkaitarrak bigarren postuan daude sailkapen nagusian 26 punturekin eta oñatiarrak, aldiz, laugarren daude 24 punturekin. Partidua 18:00etan hasiko da.

## Hasiberrientzako eski irteera egingo du Aloña Mendik martxoan, eta izen-ematea zabalik dago

Mendiko eskian hasteko gogoa edo Pirinioetan eskiatzera oraindik ausartu ez direnontzako irteera antolatu du Aloña Mendiko mendiko sailak martxoaren 8rako eta 9rako. Portaletera joango dira. Mendiko eskiaren inguruko teknikak eta ezagutzak ikasteko lehen irteera izango da eta malda txikiko magaletan eskiatuko dute. Izen-ematea martxoaren 5era arte egongo da zabalik, Aloña Mendi tabernan.

## Txapeldunen Ligako partidua jokatu dituzte asteburu honetan beterranoek, denak zapatuan

Liga erregularra bukatuta, Txapeldunen Ligako partidua jokatu dituzte asteburu honetan beterranoen mailako futbol taldeek. Lau partidua zapatuan jokatu dituzte: Dollygan's eta Txarriak, 13:00etan; Zorrobero eta Joxeleyen, 14:30ean; Nandrolona eta Albok, 16:00etan; eta, azkenik, 17:30ean hasiko da Etxaizat eta Kili Kolo taldeen arteko lehia. Horrekin lotuta, martxoan Kopa txapelketa hasiko dute.

## Herriko gimnastak bikain etxetik kanpo ere

Benjaminen arteko topaketako lehen fasean hartu dute parte, Arrasaten, egun Aloña Mendik kategoriatan horretan dituen bi taldeek. Etxetik kanpoko lehen esperientzia izan zen herriko gimnasta gaztetxo horiendako, eta, nerbioak gaintuz, bikain aritu ziren jokatu duen probetan. Bigarren fasea Bergaran jokatu dute martxoaren 29an. Zorionak guztio!



ALOÑA MENDI

# 'Azoka bergaratzen', Oxirondo biziberritzeko

Otsailaren 26an prozesua azaltzeko batzar irekia egingo dute udaletxean

IRATI GOITIA | BERGARA

Martitzenean aurkeztu zuten Bergarako Udalak eta Bagarak Azoka bergaratzen prozesua. Helburua da herritarren parte hartzearekin azoka biziberritzea. Hala, udara arte, bilera dinamika bat jarriko dute martxan ekarpenak jasotzeko. Besteak beste, azokan 0 eta 12 urte bitarteko haurrendako aisialdi-gunea ezartzea aurreikusten da.

"Uste dugu, egun, azokaren espazioa gutxi erabiltzen dela. Batez ere, aste barruko dinamika da pobrea. Horregatik, horri bultzada bat emateko asmoz hasiko dugu prozesua", adierazi du Arianne Kareaga zinegotziak.

Hain zuzen, Enelurrek eginko lehen sektorearen eta azokaren gaineko azterketan horixe zehazten zen, azoka gainbeheran zegoela. Horregatik jarri nahi izan du abian Udalak, orain, Bagarak koordinatuko duen azoka biziberritzeko prozesua. "Ez da diagnostikoa izango, jendearen parte hartzearekin helburua ekin-tzetara pasatzea da", esan du prozesua koordinatuko duen Andoni Larrañagak.

## Hiru lan ildo

Hala, prozesuak hiru azpi-atal izango ditu, eta udara arte, bilera dinamika bat jarriko dute martxan, herritar eta eragileek ekarpenak jasotzeko.

Batetik, eraikineren erabile-raren azterketa egingo da. Bes-



Azoka biziberritzeko Udalaren eta Bagararen prozesu parte hartzailea. | IRATI GOITIA

tetik, lehen sektorearekin zerkusua duten eragile eta ekonomia lokalean lan egiten dutenekin –artisauekin, adibidez– hausnarketa bat egingo da tokiko ekonomia eta tokiko elikadura bultzatzeko. Hirugarrenik, 0-12 urte bitarteko haurrendako, azokan jarriko den aisialdigunearen gaineko parte-hartze prozesua egingo da. Haurrekin lan egiten duten eragile, guraso eta haurrekin, eurekin, egingo da hori.

## Aisialdigunea

Apirilean hasiko dituzte azokako bigarren solairuan jarriko den 0 eta 12 urte bitarteko aisialdigunearen lanak. Helburua da 2015eko urtarrilerako martxan izatea. Udaletik zehaztu dute kasu horre-

tan obrak egin behar dituztela lehenik, Foru Aldundiaren diru laguntza lortu dutelako. Zehazki, 115.000 euro inguruko diru laguntza. Guztira, 300.000 euro inguruko proiektua izango da. Udalak uste du aisialdiguneak berak azoka indartuko duela.

Behin haurrendako gune hori egiten denean azokan, Agorrosin dagoena kendu egingo da –Kirol Zerbitzuak bereganatuko du–. Auzoetako txiki-txokoak, baina, mantendu egingo dira.

Hain zuzen ere, saio irekia egingo dute prozesu guztiaren berri emateko otsailaren 26an osoko bilkuren aretoan, 18:30ean. Bada, herritarrak prozesuan parte-hartzera animatu nahi izan ditu Kareagak.

## Telebistako elkarrizketa, Koldo Eleizalde lehiaketako berritasuna

M.B. | BERGARA

Koldo Eleizalde lehiaketaren 29. aldia deitu du Udaleko Euskara batzordeak, eta aurrean badu berritasunik: telebistako elkarrizketa saila. Goiena Komunikazio Taldearekin lankidetzan, Goiena telebistako platoan grabatuko dituzte Euskal Herriko pertsona ospetsuei egindako elkarrizketak partaideek.

Bergaran jaioek, bertan bizi edo bertan lan edo ikasten dutenek har dezakete parte lehiaketan eta idatzizko generoak eta ahozkoak eskaintzen dira. Lehen multzoan, ipuin idatzia eta komikia izango dira eta bigarrenean, bertsoa, kontaketa eta interpretazioa –antzerkia, ipuin-kontaketa, umorezko pasadizoa eta txiste-saioa sartzen dira hemen– eta telebista-elkarrizketa.

## Telebista-elkarrizketa

Telebista-elkarrizketa gazteei bideratua da eta bi kategoria bereiziko dira, adinaren arabe-

ra: 1996-2000 urteen artean jaioak –biak barne– eta 1990-1995 urteen artean jaioak –biak barne.

Parte-hartzaileek aukeratu beharko dute elkarrizketatu nahi duten pertsonaia, Euskal Herrian ezagun samarra dena. Eta proiektua aurkeztu beharko dute martxoaren 7a baino lehen: galdera sorta eta grabazio txiki bat, euren burua aurkeztuta eta elkarrizketatua aukeratzeko arrazoiak azaldua.

Beste genero batzuetan ere badira zenbait nobedade: bertsoen arloan, esaterako, bertsoak zein koplak aurkeztu ahal izango dira eta lanak bakarka aurkeztu beharko dira, eta kontaketa eta interpretazioan lehen ere bereiz zeduen genero batzuk batu dira, nahiz eta partaidetzaren arabera bereiz baloratu ahal izango diren.

Telebista-elkarrizketa izan ezik, gainerako sailetan maiatzaren 7a da aurkezteko epemuga. Oinarriak: [www.bergara.net](http://www.bergara.net).

## Gazteak eta IKTak hizpide Mariaren Lagundian egunean

Gazteak eta IKTak, aukerak eta arriskuak delako berbaldia egingo du Maite Goñi IK Tetan adituak egunean, hilaren 27an, 18:00etan, Mariaren Lagundia ikastolan. Hitzordua irekia da eta seme-alabekin IK Tetan hezteko balibideak eta aholku batzuk eskainiko ditu Goñik.

## Euskal Inauterien eta artzaren gaineko hitzaldia astelehenean

Euskal Inauteriak eta hartza delako hitzaldia egingo du astelehenean, hilaren 24an, Jose Antonio Aspiazua ikerlari oñatiarrak. Berbaldia 19:00etan izango da, Irizar jauregian. Eguen-gizenean, berriz, hilaren 27an, sorgin-dantza egingo dute Xamatzeok herriko kaleetan, 19:00etan hasita.

## Txorimalo lehiaketan izena emateko epea zabalik dago

M.B. | BERGARA

Jardunek ireki du Erramu-zapatuko ferian egiten den txorimalo lehiaketarako izen-ematea; aurten, 20. aldiz. Nahi duen edonork parte har dezake, bakarka zein taldeka; gehienez, zortzi lagun.

## Arrazoi ekonomikoak

Edozein material erabil daiteke, baina txorimalo bakoitzak oina-

ri edo ardatz bat eraman behar du, lurtean tinko eta zutik egon dadin. Horrekin batera, txorimaloak euskararen aldeko esaldi bat eraman beharko du eta hori apirilaren 4a baino lehen aurkeztu beharko da Jarduneko bulegoan.

Lehiaketa bi taldetan banatuko da: 12 urtetik beherakoak eta gorakoak.

Lehiaketari dagokionez, apirilaren 12an, Erramu-zapatuan, egingo da, eta aurkeztutako txorimaloak Ibargarai kalean egongo dira ikusgai, 11:30etik aurrera. Sari banaketa 13:00etan egingo da.

Izen-ematea Jardunen bulegoan egin daiteke –943 76 36 61 eta 605 71 24 69– apirilaren 4a baino lehen.



Aitor Zabaleta  
Tel.: 606 58 18 10  
[www.txipi.com](http://www.txipi.com)

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA



Gosari bereziak

09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

## TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

# Aurreko urteetako esfortzuari esker inbertsioak gora egingo du

- ▶ Udal Gobernuak ezohiko osoko bilkuran onartu zuen 2014ko aurrekontua
- ▶ Udalak aurten kudeatuko duen aurrekontua 21.571.651 eurokoa izango da

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Astelehenean egindako ezohiko bilkuran 2014rako udal aurrekontuak onartu zituen udalbatzak. Aurrekontuak Udal Gobernuaren babesa izan zuen eta EAJ eta PSE-EE alderdien kontrako botoak jaso zituen.

Bergarako Udalaren aurrekontua 300.000 euro handitu da: guztira, 21.571.651 euro. Aurrekontu bateratua, Udalaren menpe dauden erakundeak –Euskaltzgia, Bihargintza eta Mizpirualde egoitza– kontuan hartzen dituen, 25.048.219 euro izango da. Bada, Ogasun zinegotzi Lauri Askargorta azaldu duenez, "Udalak aurreko urteetan egindako esfortzuei esker, aurten garapen eta inbertsioek pisu handiagoa izango dute".

## Inbertsioa eta garapena gora

Legealdiaren lehen bi urteotan Udalak gastua kontrolatzeko egindako kudeaketa zuzurrari esker, aurten, 2.427.915 euro bideratuko dira sustapen eta inbertsioetara, aurrekontuaren %11,5. Joan den urtetik hona, partida hau 670.000



Lauri Askargorta –Ogasun zinegotzia– eta Jaione Isazelaia –alkatea. | IMANOL GALLEGO

euro hazi da. Hori lortzeko, Udalak barne funtzionamendua eta argiteria nahiz ur gastuak zuzurtiaz kudeatu ditu, beharrezkoak ez ziren hainbat erabilera ekidinez. Kudeaketa horri esker, 170.000 euro aurreztu ditu Udalak. Horrez gain, Aldundiari bueltatu beharreko foru funtsa 65.000 euro jaitsi da.

Horrelako ekintzek ahalbidetu dute inbertsioen partida handitzea. Besteak beste, Oxirondo azoka biziberritzeko planaren

barruan, ludoteka berri bat egingo da, eta Mekolaldeko zubiaren lotunea ere aurten egin nahi du Udalak. Lan horiekin batera, Udalak datozen urteetan gastuak murriztuko dituen hainbat lan egingo ditu.

## Ongizate partidari eutsi

Askargorta zinegotziak hauxe adierazi du: "Gure herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea mantentzea da aurrekontu hauen ardatz eta helburu nagusia".

Diputazioarekin lortutako akordioari esker, Mizpirualde egoitzaren kudeaketa Aldundiaren eskumenera joango da. Egoitzaren transferentzia 90.000 euro murriztuko da eta 2014. urtetik aurrera Gipuzkoako Foru Aldundiak gastuen %25 hartuko ditu bere gain.

Bergarako Udalak eta Foru Aldundiak elkarlanean segitzen dute datozen urteetan ehuneko hori handituz joateko; izan ere, Aldundiari dagokion eskuduntza bat da.

Aurrekontuekin batera, hondakinen bilketa ordaintzeko herritarrek izango duten tasen igoera ere azaldu zuten. Familiek hiru hilean behin 1,09 euro gehiago ordaindu beharko dute; hau da, urte osoan 4,36 euro gehiago.

## EAJ eta PSE-EE, aurka

Oposizioak inbertsioak zalantzan jarri eta Udal Gobernuak aurkeztutako aurrekontuaren asmo eta lehentasun bakarria "hondakinen bilketarako sistema mistoa ezartzea" dela esan zuen Aintzane Oiarbide jeltzaleak. Horregatik, jeltzaleek aurrekontuei osoko emendakin bat aurkeztea erabaki zuten.

Mari Carmen Barrenetxea sozialistak presoen senideei zuzendutako 15.000 euroko partida eta enpresa batzuei emango zaizkien diru laguntzak ere kritikatu zituen.

Eztabaidaren ostean, EAJren emendakina bozkatu zen aurren, eta, oposizio osoaren babesa izan

arren, ez zuen aurrera egin. Jeltzaleek, hala eskatu eta gero, aurrekontuaren partida organikoa eta aurrekontuak banatuta bozkatu zituzten. Partida organikoa aho batez onartu zen, eta, hala, aurrekontuek aurrera egin zuten Udal Gobernuaren 11 botoekin eta PSE-EEren eta EAJren kontrako sei botoekin.

## AURREKONTUAK

	AURREKONTUA EUROTAN	%
Talde politikoaren gastua	310.805	%1,4
Zerbitzu orokorrak	1.916.661	%8,9
Udaltzaingoa eta babes zibila	1.017.694	%4,7
Gizarte Ongizatea	2.294.363	%10,6
Obra eta zerbitzuak	1.614.790	%7,5
Hezkuntza	702.940	%3,3
Hirigintza eta etxebizitzak	2.598.660	%12,0
Estolderia eta ura	1.449.380	%6,7
Kale garbiketa eta zabor bilketa	2.636.440	%12,2
Ingurumena	84.565	%0,4
Kultura, jaiak eta gazteria	1.849.662	%8,6
Turismoa, museoa eta ondare hist.	372.242	%1,7
Kirolak	1.829.705	%8,5
Euskara	636.982	%3,0
Auzoak eta mendiak	447.381	%2,1
Gastu finantzarioak	1.534.381	%7,1
Paga estra aurrekorrak	275.000	%1,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>21.571.651</b>	<b>%100</b>

ITURRIA: UDALA



Azokako goiko solairuan egongo da ludoteka. | GOIENA

## Inbertsio esanguratsuenak

### LUDETEKA BERRIA

Oxirondo azokako goiko solairuan jarriko dute, eta gaur egungoa baino zerbitzu zabalagoa eskainiko du. Udalak 366.000 euro bideratuko ditu lan horretarako. Azoka biziberritzeko planaren barruan dago proiektu hori.

### BERGARAKO ZIENTZIA

**MUSEOA** 2013an erabili ez zen 200.000 euroko aurrezkiaz gain, aurten Udalak beste 70.000 euro bideratuko ditu.

### MASTERREKAKO

**GARAJEAK** Jabeekin batera garajeen goialdea konponduko da; guztira, 253.000 euro.

### MEKOLALDEKO ZUBIA

Zubiaren intersektzioarako 629.000 euro bideratuko dira.

### PARTEITTI Bidea

konpontzeaz gain, baserri bideak eta bide bazterrak atontzeko 169.000 euro.

### OSINTXU

24.200 euroko kostua izango duen azterlan sozio-ekonomikoa egingo da.

### HERRI BARRUKO

**BIDEGORRIA** Sarea bultzatzeko plana garatzera 30.000 euro bideratuko dira.

### AUZOETAKO

**EKIPAMENDUA** Guztira, 50.000 bideratu dira; horietatik, 40.000 euro Osintxuko errekaren eskudel eta zubirako izango dira.

### LABEGARAIETAKO

**JOLASGUNEAK** 45.000 euroko kostua; aurten, 20.000 euro inbertituko dira.

## Aintzane Oiarbide

EAJko zinegotzia



## "Bildu-Aralarrek onartutako aurrekontuaren lehentasuna atez atekoa da"

"Aurrekontuak dira gobernu baten ildo politiko eta kudeaketaren ispilu. Bergarako 2014rako aurrekontuetan garbi ageri da Bildu-Aralarren lehentasuna atez atekoa ezartzea dela. Joan den urtetik hona %20 igo da hondakin kudeaketaren aurrekontua. Guztira, 1.800.000 euro hondakin etara. Bergaran, zaborren tasa %4 igo badute ere, zerbitzu hau defizitarioa da.

Bergarak geroz eta diru gehiago ordaindu beharko dio Mankomunitateari hondakinen kudeaketarako. Eta honek zerga gehiago igotzea ekarriko du. Urteroko diferentzia 665.000 euro da eta urtero diru hori beste inbertsio batzuetara bideratu beharko litzateke: lanpostuak sortzeko, parkinga egiteko, adibidez, jendea Bergarako komertzio-erostera etor dadin...".

## Arlo ekonomikoa

"Bilduk gobernu taldeko soldat-ak igo ditu, lau pertsona daude

dedikazio desberdinarekin Bergarako Udal Gobernuan, soldat-arekin, eta bitartean, udal langileek soldata izoztuta daukate eta bergarar asko langabezian daude.

Inbertsio aldetik gauza gutxi ikusten dugu: merkatuan egingo den ludoteka, espazio handiagoa ematea izango litzateke egokiena eta ez omen dago dirurik honetarako. Museoa, oraindik zalantza asko argitu gabe dituen proiektua, eta Mekolaldeko zubia, partikularrek ordainduko dutena, Udalak zentimorik ipini gabe.

Inbertsioetan sartzen dituzte guretzat mantenu gastuak direnak; frontoiaren pareta pintatzea, adibidez.

Ez dago herri proiekturik aurrekontu hauetan, legealdi hasieran landu zen plan estrategikoaren arrastorik ez dago. Liburutegia eta Artxiboko aurrekontuak behera edo izoztuta, bergararrek eta bertaraten diren guztiek baloratzen duten Artxiboak leku falta dauka, baina ez omen dago dirurik horretarako ere. Dena hondakin etara. Euskara Sailaren aurrekontua ere behera.

Ez dirudi Udal Gobernu honek kulturaren aldeko inolako apusturik egiten duenik orain arteko zerbitzuetan.

Bergararrok geroz eta diru gehiago ordaintzen dugu zergetan, horren adibide IB-laren erre-karguagatik %150, eta hau diru bilketa hutsa egitea da".

## M. Carmen Barrenetxea

PSE-EEko zinegotzia



## "Aurrekontuek ez dituzte bergararren beharrak jasotzen"

"Aurrekontu kontinua da, eta berton ez dira herritarren beharrak jasotzen. Proposatutako inbertsioak, Oxirondo azoka, ludoteka, Mekolaldeko zubia eta Museoa kenduta, oso eskasak dira. Kontrara, hondakinen bilketarako sistema mistoa ezartzea diru gehiegi bideratuko da. Krisi garai hauetan, gainera, Udalak ez litzuke enpresa pribatuentzako partidak bideratu beharko, enplegua sustatzeko partida hain murrizta denean. Bergaran bizi dugun egoera kontuan izanda, gazteei zuzendutako lana sortzeko lehentasunezko gai izan beharko luke.

Bukatzeke, presoen familiei bideratutako 15.000 euroko partidaren aurka gaude. Diru horrekin gauza asko egin daitezke".

## LABEGARAIETA

## EMAITZAK

Poteo Izarrak - Beti Jai	17-5
Brunet - T.C.C.	3-12
Diego Valor - Red Piranhas	Atzeratuta
Komando Piperrak - Birgerias	Atzeratuta
Minimou Taldie - Irama Elgeta	Atzeratuta

## SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Poteo Izarrak	37	14
2 Diego Valor	34	13
3 Minimou Taldie	33	13
4 T.C.C.	21	14
5 Red Piranhas	18	13
6 Brunet	16	14
7 Irama Elgeta	13	13
8 Komando Piperrak	12	13
9 Beti Jai	12	14
10 Birgerias	3	13

## PARTIDUAK

OTSAILAK 22, ZAPATUA	
18:00	Diego Valor - Red Piranhas / Beti Jai
19:00	Diego Valor - Beti Jai / Red Piranhas
20:00	Red Piranhas - Birgerias / Diego Valor
OTSAILAK 23, DOMEKA	
16:00	T.C.C. - Poteo Izarrak / Irama Elgeta
17:00	Brunet - Irama Elgeta / Poteo Izarrak
18:00	Minimou Taldie - Irama Elgeta / Brunet
19:00	Komando Piperrak - Birgerias / Minimou Taldie
20:00	Minimou Taldie - Komando Piperrak / Birgerias

## Poltsak berriz ere balkoietan eta leihoetan zintzilikatzeko deialdia egin du Bergara Garbiak

Data zehatza aipatu ez duten arren, epe laburrean manifestazio bat ere deituko dutela iragarri dute

I.G./Z.V.D.M | BERGARA

Bergara Garbiak prentsa-ohar bidez azaldu du: "Inposaketa gauzatu da". Otsailaren 4an sistema mistoa martxan jarri zenetik, poltsak eskitokietan beharrezko lurrean -gaika bereizita- uzteko kanpaina abiarazi zuen. Oharrezko zehazten denez, protesta era honekin jarraitzeko asmoa dute, eta duela hilabete batzuk herriko leihoetatik eta balkoietatik kendu zituzten poltsak berriz eskegiko dituztela aipatu dute. Eta, egun zehatza iragarri ez duten arren, epe motzera beste manifestazio bat deitzea erabaki dute.

### Inposaketa eta xahutzea

Plataformak bidalitako oharra jasotzen duenez, "ez dute ezertarako balio izan jasotako 4.691 sinadurek, ezta 5. edukiontzien

aldeko herri galdeketa jasotako 4.771 botoek".

Bergara Garbiak dio "herriarren gehiengoari demokraziak ematen dizkien baloreen defentsan mantentzeko unea" dela. Eta historiaren konparaketa bat eginez jarraitzen dute: "Bergarako Bildu -Aralar taldeak Bergarako Desbesarkatzea sortu du, baina oraingoan ez da armadaren kontra, zerbitzua eman behar dion herriaren kontra baizik".

Bide baketsuak erabiltzeari fidelak izaten jarraituko dutela diote herri plataformatik, "norbaitek nonbaitetik diktadore hauei, zintzoki lortutako baina gaizki erabilitako euren aulkien babesean dituzten interes pertsonalen ginetik herriaren subiranotasuna dagoela ikustarazten dien bitartean".

## Umeendako ipuin kontaketa saio bikoitza egongo da gaur, egubakoitza, Udal Liburutegian

Ines Bengoa ipuin kontalariak haurrentako kontaketa saioa egongo du gaur, egubakoitza, Udal Liburutegian. *Karabi-Karaba* izenburuarekin egongo du emanaldia eta bikoitza izango da: 18:00etan, 3 eta 5 urte arteko umetxoendako emanaldia izango da eta 18:30ean, berriz, 6 eta 8 urte artekoendakoa. Aurreko hilabetean ekin zion Udal Liburutegiak umeendako halako saioak antolatzeari, eta bete egin zen aretoa. Aurrerantzean ere, hilean behin -hirugarren egubakoitzean- ipuin kontaketa saioak antolatzen jarraituko dute.

## Xaxau elkartean parte hartzeko eta Mendekoste jaiek antolatzen laguntzeko dei egin dute

Xaxau elkartea osatzen duten herri mugimenduko taldeek Mendekoste jaietan parte hartu eta Txosna batzordeko kide izan nahi duten norbanako eta taldeei dei egiten diete eta batzordean parte hartzerantz gonbidatu. Hori horrela, datorren martitzenean, otsailaren 25ean, 18:00etan, kultura etxean egongo den batzarrean parte hartzerantz animatu nahi dituzte. Txosna batzordea Pazkoetako oinarrietako bat da, eta, txosnagunea kudeatzeaz gain, ekitaldi ugari egiten dituzte jaiek irauten duten bost egunetan.

## Hala Bedi irratia gainera '30 urte kolpez kolpe' ikus-entzunezkoa domekan kartzela zaharrean

Gasteizko Hala Bedi irratia 1983an jaio zen, eta, urtemuga ospatzeko, irratia historia argitara atera nahi izan dute. Liburua eta ikus-entzunezkoa egin dituzte horretarako eta dokumental hori da, hain zuzen, domekan gaztetxean ikusteko aukera egongo dena, 19:00etan.

Bestetik, otsailaren 27an, beste ikus-entzunezko bat ikusteko aukera egongo da. Diskoira musika taldearena, hain zuzen ere, 19:00etan.

## Martxoaren 7an amaituko da kirol taldeek urteko eskariak, proiektuak eta datuak aurkezteko epea

Aurkeztu beharrekoak dira: Ogasun eta Gizarte Segurantzako agiriak, denboraldirako egitasmoa, aurrekontua, taldearen ezagueriak, zein den entrenatzailea, ze lehiaketatan parte hartuko den, ze torneo edo ekintza antolatuko diren eta Udalarekin batera ze ekintza antolatuko den edo Udalak antolatutako ze ekintzatan parte hartuko den. Bestalde, 2013. urtean Udaletik jasotako diru kopurua justifikatzen duten fakturak eramatea ere eskatu dute. Hori ere martxoaren 7a baino lehen, udaletxera.



BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

## Diploma eta domina ekarri dute pianistek

Asteburuan, Musika Eskolako hamar pianistak Andoingo IX. piano jaialdian hartu zuten parte. Primerako saioa egin zuten guztiek eta metal guztietako dominak eta diploma ekarri zituzten handik.





# PREZIOAK

## HANKAZ GORA JARTZEN DITUGU

OBRA BERRIA BUKATUTA "SAN LORENTZON"

Informazioa eta salmenta

943 424 430 • 637 726 522



www.ormak.es

# Erabat sasoian jarrita dator bihar Txapel Txin

Kale antzerkiak, torrada eta txapel lehiaketek eta pregoiak girotuko dute

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Bihar, otsailak 22, iragarriko dizkigu Aratusteak Txapel Txinek. Txapela jantzita agertuko da Herriko Plazan, eta herritarrak ere txapela janztera gonbidatuko ditu jai giroan murgiltzeko. Hala, Aratusteak girotzen hasiko dira Karnabalen Lagunak eta Udala, elkarlanean.

## Su espektakulua kalean

Goiz partea trikiti doinuek girotuko dute, eta kuadrillak izango dira kaleetako protagonista. Jaia, ostera, ilunkaran hasiko da. Teatrak Lakalle antzerki taldeak suarekin egindako espektakulua eskainiko du, kalean gora eta behera (18:30) –Herriko plaza, Durana eta Mitarte kaleak–. Eta batzuk suari begira dauden bitartean, beste batzuk lanean jardungo dute. Torrada lehiaketako epaimahaia elkartuko da orduantxe eta behin dastatuta txapeldunak izendatu. Torrada horiek norberak etxean eginda eroan behar ditu (8 torrada) eta 18:00ak eta 18:30ak bitartean aurkeztu plazan, izen-abizenak kartazal itxi batean zehaztuta.



Txapel Txin, Karnabalen Lagunak taldeko hainbat kide lagun dituela. | M.A.

Txapel Txinen Aratusteetako pregoiak mozorro-jaiari begira jarriko ditu herritarrak gero (19:30). Txapel dotoreenaren saria (50 euro) eta torrada lehiaketaren ere orduantxe banatuko ditu –1. saria, 100 euro; 2. saria, 50 euro; eta 3. saria, 30 euro; irabazleek bertan egon behar dute–.

Behin jai giroan murgilduta, tripa asetzeko ordua izango da eta txistorra eta torrada izango dituzte plazan elkartutakoek, sagardoarekin batera.

## Txartelak bukatzekotan

Aratusteetako gertatze lanak ere aurrera doaz, eta gero eta koadrila gehiago elkartzen dira muntaiak egiteko izendatutako lokalatan. Bestalde, Aratuste-domekako herri bazkarirako txartelak bukatzekotan daude. 600 lagunendako tokia dago, baina dagoneko 80 bat txartel bakarrik geratzen dira. Horiek erosteko Kultura Sailekoek Arkupen duten bulegotik pasatu behar da (08:00-15:00).

## TXAPEL TXIN | ARATUSTEETAKO PREGOILARIA

### "Aretxabaletarrek animatu beharrik ez dago, barruan dute 'karnabalerotasuna'"

Han eta hemen dabil egunotan Txapel Txin, zapatuko jairako gonbidapenak egiten eta Aratusteak girotzen.

**Aurtenere ailegatu zara, Aratusteak gertu ditugun seinale...**

Bai, aurten ohi baino beranduago dira, baina oso gogotsu nator.

**Umeek ere ondo ezagutzen zaituzte, ezta?**

Bai, horixe, lagun handiak ditut. Ikas-tetxeetan oso ondo portatu dira eta zapatuan ere nirekin izango direla pentsatzen dut.

**Eta zapaturako dena gertu?**

Bai. Pello Zabalari deitu diogu eguraldia enkargatzeko, eta goizetik gauera bitarteko egitaraua gertu dugu:



M.A.

antzerkia, pregoia... eta sagardoa eta txistorra gura beste.

**Txapelik ez dizugu ikusi...**

Amatxo daukat gertatzen; hortaz, lasai, zapaturako gertu izango dut.

**Aurten, gainera, osasuntsu jartzan saiatu zara...**

Ehuneke ehunean nago, indartsu, Olinpiadetarako gertu eta Maritxu neska-lagunarekin berba bat baino gehiago izateko moduan.

**Eta herritarrak ere gertu?**

Bai, ikusi ditut gertatze lanetan eta nik uste dut topera ailegatuko direla. Beharbada, dopin analisia egin beharko dugu; bestela, baten

bat azukrearekin pasatu edo...

**Aratusteei begira animatzeko dei egingo duzu?**

Aretxabaletarrek ez daukate animatu beharrik, barruan dutelako *karnabalerotasuna*, eta, betiko legez, izugarizko parranda egingo dugu.

## Atez atekoaren gaineko bilerak hasiko dituzte

Landa-guneetako bizilagunekin da lehenengo informazio bilera egunen, hilak 27, Arkupen

M.A. | ARETXABALETA

Gaikako hondakin bilketa sistema berria, hau da, atez ateko hondakin bilketa jarriko dela herrian iragarri ondoren informazio bilerak egiten hasiko da Udala datorren astean, argibideak eman eta herritarren zalantzak argitzeko asmoarekin. Udalak gura du herritar guztiengana iristea, eta hori ziurtatzeko goizean eta arratsaldean egingo dituzte bilerak, bata euskaraz izango da eta bestea gazteleraz.

## Goizean eta arratsaldean

Lehenengo bilera landa-guneetako bizilagunekin izango da, hau da, herrikan kanpo bizi direnekin –guztiekin jaso dute gutuna, deialdiaren berri eman–. Eguenean, otsailak 27, egingo dute Arkupe kultura etxean: goizean, 10:00etan, gazteleraz, eta arratsaldean, 18:30ean, euskaraz.

Kalean bizi direnekin, ostera, datozen asteotan hasiko direla informazio bilera horiek egiten jakinarazi dute.

## Igoera faserako sailkatu dira Arizmendiko neskek, kadeteak

M.A. | ARETXABALETA

Oñatin jokatu zuten domekan ligako azken partida kadete mailako neskek, eta irabazterik ez izan arren (0-0) igoera faserako sailkatu dira.

Aloñako neskek estu hartu zituzten Arizmendikoak, eta aukera bat baino gehiago izan zituzten bi taldeek markagailuan aurreratzeko. Hala ere, zorteak ez zien lagundu, eta batean langak eta bestean punteria faltak bere horretan utzi zuen markagailua. 70 minuturen ostean husnako berdinketarekin agurtu zuten liga Debagoieneko bi taldeek.

## Igoera fasea martxoaren 8an

Hodei Guridiren eta Xabi Gallasategiren gidaritzapean lanean diharduten Eskoriatzako eta Aretxabaleako kadete mailako neskek denboraldi polita egin dute. Hala, 26 punturekin hirugarren geratu dira sailkapenean Anaitasunaren (41 puntu) eta Eibarren (34 puntu) atzetik eta Mondraren (25 puntu) aurretik –laugarren geratu da eta igoera faserako sailkatu.

Selekzioaren partidua eta Aratuste jaiak direla tartean, martxoaren 8an, Emakumeen Eguenean, hain zuzen, hasiko dute igoera fasea.



Arizmendiko kadete mailako taldea Hodei Guridi entrenatzailearekin. | F.B.H.

## Bat-bateko sorkuntza saioa egingo dute Jaiki elkarteko kideek domekan

M.A. | ARETXABALETA

Bigarren bat-bateko sorkuntza saiorako dei egin dute Jaiki elkarteko kideek domekarako (18:00), kuarter zaharrean. Bi ordu iraungo duen jolas eta sormen saioa izango da, eta atea zabalik dute edonorendako –ez da eskarmenturik behar parte hartzeko eta izena eman beharrik ere ez dago.

Musika, dantza, antzerkia eta orokorrean arte ederren zale direnendako aparteko aukera da Jaikikoek eskaintzen dutena: "Jolasa berreskuratu eta sormena askatzeko espazio bila dabilzanendako". Jolasekin eta beroketekin hasiko dute saioa eta gorputzak prestatu eta konfiantza hartutakoan bat-batekoekin hasiko dira.

zenbaki  
aholkulariak-abokatuak



### • Juridikoa:

- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.  
- Penala: hutsegite epaiketak, salaketak, zirkulazio istripuak.  
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekursoak.  
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkurtoa.

• **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioko espedienteak.

• **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioa.

• **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12  
www.zenbaki.es



Mendizaleak Areantza auzora iristen orain dela bost urte. | M.A.

## Ibilaldi neurtua egingo dute gurean martxoaren 9an

Eskolarteko 27. mendi ibilaldi neurtua da eta izena emateko epea zabalik dago ikastetxeen bitartez

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Gipuzkoako eskolarteko jokoak antolatuta 27. mendi ibilaldi neurtuak egingo dituzte martxoaren 9an, domeka, bost herritan: Errenterian, Donostian, Azkoitian, Legazpin eta Aretxabaletan. Zaria Mendizale Taldeak antolatu du gurean, eta egunotan dabilza azken gertatze lanak egiten.

**Izen-emate epea zabalik**

Eskola kirolean jarduten duten neska-mutikoendako da ibilaldia, 6 eta 12 urte artekoendako, baina ez dabilzanek ere parte hartu ahal izango dute. Adinaren araberako taldeak osatuko dituzte eta taldekideek elkarrekin hasi eta bukatu beharko dute proba neurtua.

Dagoeneko zabalik dago izena emateko epea eta ikastetxearen bitartez eman behar dute interesatuek. Zariaiko kideei jakinarazita ere onartuko dituzte; izen-emate orria Gipuzkoako Mendizale Federazioaren webgunean dago [gmffmg.org](http://gmffmg.org). Edozein argibide gura izanez gero Zariaiko kideak Iralabari plazako 12. atartearen duten lokalean izango dira astelehen eta eguenetan (18:00-20:00). Eta bestela mezu bat bidali helbide elektronikora [zariaamt@gmail.com](mailto:zariaamt@gmail.com) edo telefonoz deitu honako zenbakietara: 628 699 382 eta 605 712 724.

**Ibilbide bi**

Iralabari plazan elkartuko dira ibilaldi neurtua egitera datozenak martxoaren 9an, 08:30etik 09:00etara bitartean, eta bertan hasiko dute mendi buelta. Bi ibilbide izango dira aukeran, bata motza, 2 ordu eta erdi ingurukoa, eta bestea luzea, 3 ordu eta erdikoa. Iralabari plazatik Eskoriatzako Apotzaga auzora joango dira, eta Lataginetik bueltan Aramaioko Untzillara; bertan banatuko dira bi ibilbideak eta luzea hartzen dutenek aldapa gogorragoak izango dituzte. Izurietara joango dira guztiak, eta handik herrira jaitsi, Iralabari plazara. Hamaietako egiteko gunea zehaztuta izango da, Untzillan hain zuzen, baina norberak eroan beharko du.

Azken ibilaldi neurtua orain dela bost urte egin zuten gurean, eta orduan Urkulu aldeko auzotan egin zuten ibilbidea.

### EMAKUMEEN FRONTENIS TXAPELKETA

#### Final-laurdenak jokatzeko gertu

Emakumeen frontenis txapelketa azken txanpan sartu da. Final-laurdenak jokatuko dituzte bihar; norgehiagoka biziak, seguru. Zortzi bikoteetatik bost aretxabaletarrak izango dira.



Txapelketako bikote bi. | A. ELKORO

#### FINAL ZORTZIRENEAN EMAITZAK

Maider Osa - Idoia Elkoro / Maite Fraile - Maite Otxoa	<b>23-25</b>
Larraitz Iñurategi - Olatz Pagaldai / Ane Lur Garin - Larraitz Madariaga	<b>25-23</b>
Iratxe Hernandez - Eider Zabala / Marijo Bastardo - Oihana Irazu	<b>25-11</b>
Rosa Ojuel - Lore Martinez - Ane Miren Zabala - Olatz Manuel	<b>25-10</b>

#### BIHARKO PARTIDUAK, OTSAILAK 22

09:30 Maite Fraile - Maite Otxoa / Yolanda Campoy - Idoia Bilbao
10:00 Rosa Ojuel - Lore Martinez / Iratxe Hernandez - Eider Zabala
10:30 Dorleta Elkorobarrutia - Ainhoa Gallastegi / Marina Garmendia - Ane Benito
11:00 Lur Deldago - Liemi Zangitu / Larraitz Iñurategi - Olatz Pagaldai

### Miriam Mendoza ipuin kontalariak saioa eskainiko du bihar Udal Liburutegian

M.A. | ARETXABALETA

Hilabete guztietan legez, ipuin kontalaria izango da bihar, zapatua, Arkupeko Udal Liburutegian (11:00). Miriam Mendoza izango da oraingoan. "Bazen behin... urrutiko erresuma batean... landareak eta animaliak hitz egiten zekiten garai

haietan...", halaxe hasiko du saioa Mendozak eta ipuinen mundura gidatu umeak.

**'Un pez fuera del mar' filma**  
Bestalde, zinemari dagokionez, *Un pez fuera del mar* izango dute ume eta gaztetxoek bihar eta etzi (17:00).

## 3. fasea hastera goaz! ARETXABALETA

**165.000 €-tik aurrera** (BEZ kanpo)

- 2 eta 3 logelako etxebizitzak
- Sukalde hornitua
- Trastelekua barne
- Horma-armairua

Iturrizar plaza



**Informa zaitez, konpromisorik gabe:**

ORTUZAL PROMOCIONES S.L Ibargarai 36 behea - BERGARA

Tel.: 943 79 40 00 - 943 76 11 18 - 619 71 82 78

[www.grupoortuibar.com](http://www.grupoortuibar.com)



Joan den urtean kalera ateratako mozorroak. | IMANOL SORIANO

## Salgai daude mozorro bazkarirako txartelak

Martitzenera arte egongo dira eskura Inkernun eta Goxo Txikin; 15 eta 10 eurotan daude salgai

M.B. | ESKORIATZA

Astebete baino ez da falta aurtengo Aratusteetarako, eta Udaleko Kultura Sailak gertu du horren bueltan gertatutako egitaraua. Tartean, Aratustezapatuan egingo den herri bazkaria dago; horretarako txartelak martitzenera, otsailak 25, arte egongo dira salgai Goxo Txiki eta Inkernu tabernan.

Urtero moduan, bi menu izango dira: helduenak 15 euro balio du eta honakoa izango du: marmitakoa, txerri-txuletak txingarretan erreta eta tarta. Umeena, ostera, makarroi, oilasko-bularka eta tartarekin egongo da osatuta, eta 10 eurotan daude txartelak salgai.

### Erreserba bazkarirako

Udaletik gogorarazi dute bazkaltzeko tokia erreserbatu ahal

dela aurten ere, [kultura@eskoriatza.net](mailto:kultura@eskoriatza.net) postara mezua idatzita edo 943 71 46 88 telefono zenbakira deituta. Bazkaria, esan bezala, martxoaren leian da, 14:30ean, pilotalekuan.

### Desfilea

Bestalde, egun berean egingo den mozorro lehiaketan parte hartzeko izen-ematea ere zabalik dago. Arratsaldean beharrez, eguerdian egingo dute aurten desfilea; hain justu, 13:00etan hasiko da Huhezi aparkalekuan, eta pilotalekuan amaitu. Lehiaketan parte hartzeko aurretik eman daiteke izena [kultura@eskoriatza.net](mailto:kultura@eskoriatza.net) postan edo 943 71 46 88 telefono zenbakian. Dena dela, egunean bertan ere eman ahal da izena, desfilea hasi baino ordu erdi lehenago agertuta.

## OHARRAK

### ANTZERKIA

Barry Manley *Barry Barrez* eta Aitor Xarterina *Baltziskueta* bakarlariek *Euskalduna naiz eta arraroa nago* lana eskainiko dute gaur, 22:30ean, unibertsitatean. Doan da sarrera.

### KIROL HITZORDUAK

Areto futboleko 1. erregionalean, eskoriatzarrek Laudioko Bagituxak taldekoen kontra jokatu-

ko dute bihar, 16:30ean, kiroldegian; eta 18:00etan, jarduera bereko baina Euskal Ligako partidua dago Eskoriatzaren eta Zierbanako Meatzari Petronoren artean.

### JOLASAK LUDOTEKAN

8 eta 12 urte bitarteko neska-mutilek wii eta mahai-futbol txapelketa dute bihar, 17:30ean, Tortolis ludotekan.

# Eskoriatzarren ahotan dihardu hiri hondakinen auziak

Udalak atez atekoa jartzeko batzar informatiboak egin ditu asteen ere

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Hondakinen gaia dabil azkenaldian eskoriatzarren ahotan, eta asteen ere horrela izan da. Eskoriatza Garbiak herri galdeketa deitu du eta Udalak, berriz, atez atekoa jartzeko batzar informatiboekin dihardu; oraingo asteen, Aranburuzabala, Dorletan, Olaetan eta Aingeru Guardan bizi direnekin elkartu da.

Pozik daude antolatzaileak egindako batzarrekin; hiruretan jende asko batu bazen ere, eguzten arratsaldekoan lepo bete zen Ibarraundi museoko aretoa, eta herritar askok zutik eta ondoko pasillotik jarraitu behar izan zuten batzarra. Joan den astean bezala, udal ordezkariak eta Debagoieneko Mankomunitateko teknikariek egin zuten lehenengo berba. Besteak beste, jakinarazi zitzaizkien hondakin organikoaren edukiontzietan jasotako kalitatea eskasa

## Herri galdeketa egingo dute etzi

Eskoriatza Garbia plataformak hondakinen gaineko herri galdeketa gertatu du. Etzi, domeka, izango da; bosgarren edukiontzia edo atez atekoaren aldeko botoa eman ahal izango dute Intxaurtueta, San Pedro eta Gaztañuiko 27. eta 29. atarrietako bizilagunek, 10:00etatik 18:00etara, Intxaurtueta EPA gunean. Prozesu horri buruzko informazio guztia topatuko duzue zenbaki honetako 4. orrialdean, *Debagoiena* atalean.

zela eta, ondorioz, ezinezkoa izan dela San Pedron, Intxaurtueta eta Gaztañaduin egindako proba pilotua herri osora hedatzea, eta banakora joan beharra izan dutela. Jarraian, herritarren txanda zabaldu zen; bereziki, sistemaren funtzionamenduari eta arlo ekonomikoarekin lotutako galderak egin zituzten.

### Zintzilikarioen kokagunea

Bestalde, hemendik aurrerako pausoen berri ere eman zuten antolatzaileak. Lehenengoa da Udalak aurreikusitako zintzilikarioen kokapena aztertzea eta oniritzia ematea edo ez. Atari bakoitza dabil egunotan hori lantzen; hilaren 27ra arte dute aukera kokaguneekin lotutako alegazioak aurkezteko; horiek aztertu eta martxo hasieran jasoko dute erantzuna, eta erakusketa egingo dute behin betiko kokapenekin.

## Sentsibilizazio kanpaina jarriko dute martxan mugikortasuna bultzatzeko

Hainbat tokitan informazio panelak jarriko dituzte, eta eskuorriak banatu

M.B. | ESKORIATZA

Herri erosoagoa eta garbiagoa lortze aldera, askotariko ekintzak dabilta egiten azkenaldian herrian. Tartean, Santa Ana eta Arbiñoste artean egindako aparkaleku berria dago. Herrigunear dauden aparkatzeko arazoak konpontzearekin batera, eskoriatzarrek hobeto aparkatzea gura du Udalak.

Baina aparkaleku berria mugikortasunarekin lotutako asmo handiagoko proiektuaren barruan sartzen da. *Oinezkoak lehenengo* izena duen proiektu horren helburu dira joan-etorriak egiteko modu erosoagoak eta garbiagoak sustatzea eta erraztea, oinezkoen lehentasuna ematea eta erdigunear ahalik eta ibilgailu gutxien ibiltzea.

Horren bueltan, Udalak sentsibilizazio kanpaina jarriko du



Aparkaleku berria. | M.B.

ematen dutenak. Besteak beste, panelak dauden tokitik herrigunera oinez joateko dagoen distantzia zenbat minututakoa den jakinaraziko da. Horrekin batera, eskuorriak banatuko dituzte herriko bi ikastetxetan.

### Egokitzapen lanak

Herrigunea oinezkoendako erosoago egiteko asmo horretan, *Oinezkoak lehenengo* proiektuaren barruan hain zuzen, erdigunea oinezkoendako mugatzea ere badago. Astegunetan arratsaldean eta asteburuetan zapatu eguerditik aurrera ibilgailuendako itxita egongo da Bolibarko bidegurutzetik Antsoategiko biribilgunerainoko zatia. Martxorako gura dute martxan jartzea; dagoeneko hasita daude egokitzapen lan horiekin eta datozen asteetan bukatuko dituzte.

martxan datorren astean. Aparkalekuetan eta herrian autoen pilaketarekin arazoak sortzen diren puntuetan, esaterako, informazio panelak jarriko dituzte, gertu dauden aparkalekuen berri

**LENIZ**  
ESKORIATZA

**SUZUKI**

## KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika



# Zaleak ez bustitzeko aterpe berria Estalan

- ▶ Futbolzaleek eta Kirol Elkarteak hala eskatuta jarri dute aterpea
- ▶ Taberna ondoan dago eta atletismoko pistarainoko azalera hartzen du

ANE ETXEBERRIA | ANTZUOLA

Aurtengo aurrekontuen barruan eta aurrera eramateko asmoen artean zegoen kontua zen hau. Hau da, Estala futbol zelaian aterpe bat jartzea zaleak ez bustitzeko. Kontua da futbol taldeek zale ugari dituztela herrian, baina negua luzea da eta euri asko egiten du eta zaleak ez dute busti gabe partiduak ikusteko aukera askorik. Orain, baina, hori aldatu egin da. Izan ere, taberna ondoan aterpe bat eraiki dute.

Orain arte, tabernak duen aterpe txikian batzen ziren zaleak, baina orain, banderen eta tabernaren artean beste leku bat dago, beste espazio bat. Atletismo pistarainoko zabalera du, baita teilatu bat ere. Oraingoan, hori da dagoena, baina asmoa da aldamenak ere egitea; hau da, alboak itxi haizetik eta euritik hobeto babesteko. Kirol zinegotzi Aritz Saidiren esanetan, "aurreikusitako aterpearen tamaina baino handiagoa egin da", herritar asko joaten baita zelaira.



Aterpe berria prest dago futbol zelaian. | ANE ETXEBERRIA

## Hobekuntzak Estalan

Aterpea eraikitzea, baina, ez da Estalan azkenaldian egindako hobekuntza lan bakarra. Izan ere, argiteria arazoak eta iturgintza sistema osoa konpondu egin dituzte eta hobi septikoa hustu egin dute. Halaber, beste lanen bat egiteko asmoa ere badagoela aurreratzen zuten Kirol zinegotziak, baina oraindik goiz

dela gaineratu zuten eta "aurtengo aurrekontua ere ez dela horren handia" esan zuten. Asmoak badaude, baina "denboraldia aurrera joan ahala ikusiko da egiten den edo ez; asmo horien barruan futbol zelaia berriz kautxuztatzea dago". Hori, baina, denboraldiak aurrera egin ahala egingo den edo ez ikusiko da.

Asteburu honetan, beraz, aterpe berria estreinatzen aukera paregabea egongo da, futbol partiduak etxean jokatu baitituzte futbolariek.

## Futbol partiduak asteburuan

Asteburu honetan etxean jokatu dute erregional eta gazte mailako futbolariek. Nagusiek azken partiduko bajak errekuiperatuko dituzte Vasconiaren aurka jokatzen. Azken jardunaldian 3-0 galdu ostean, bolada ona bertan behera geratu da; beraz, bide onera berriz bueltatzeko partidua jokatu beharko dute. Aurkaria, ostera, indartsu dator Getariako maisuki gainditu ondoren. Sailkapenean, gainera, puntu gutxiren alde dute; beraz, etxekoek indartsu eta gogoz atera beharko dute partidua irabaztera. Partidua zapatuan izango da, 16:00etan.

Gazte mailako futbolariek ere hiru gol jaso zituzten azken jardunaldian eta ezin izan zuten ezer egin Soraluzen. Hala, asteburuan, lehiari gogor ekin beharko diote Igor Larrearen mutilek. Etxeko gazteek Urki taldea izango dute aurkari. Partidua 16:00etan izango da, domekan.

## Eskerrik asko

Estalako kontuez gain, Aritz Saidi zinegotziak eskerrak eman nahi izan dizkiete Udalaren eta antolaketaren inean domekako mendilasterketan boluntario lanetan jardun zuten guztiei, eta baita herritarrei eta gerturatutako guztiei ere, izan zuten jarreragatik.

## NIRE USTEZ

IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ



## Gazte gain prestatuak

Rakurketa bikoitza duen gai batekin natorkizue honetan; izan ere, paradoxa ere bada: sekula santan Antzuolan izan ez dugun belaualdi prestatuena dugu, baina, aldi berean, gero eta zailagoa dute lan bat topatzea.

Betidanik entzun izan dugu etorkizun on bat ziurtatzeko asko ikasi behar dela, eta zenbat eta titulu eta hizkuntza izan, orduan eta aukera gehiago dutela produkzio sarean sartzeko. Hala ere, denbora larregi pasatu ondoren konturatu gara produkzio sareak eskatzen duena eta kaleratu diren profesionalak ez datozela bat. Ondorioa zein den? Bada, hainbeste izerdi prestatzea kostatu zaigun seme-alabendako ez dugula produkzio sarerik sortu. Non islatzen den hori guztia? Bada, dagoeneko errealitate batean. Izan ere, poliki-poliki produkzioa gehitzen baldin badao ere, hori ez da lanpostu berrietan gauzatzen. Are gehiago, produkzioa gehitzen doa, baina lanpostuak, ostera, galduz doaz. Non dago akatsa? Administrazio, produkzio- eta heziketa-eragileen arteko komunikaziorik ezan. Berandu da jada, kalean dugulako belaualdi prestatuena. Konpondu dezagun euren etorkizuna. Baina berriro hanka sartze hau egin ez dezagun hobegonek aipatutako eragileok harremanetan jarri eta ondorengo belaualdiarekin sare produktiboan ondo egokitzen den profesionala prestatzen hasi. Guk, aukeran, Euskal Herrian nahi dugu gure seme-alaben prestakuntza amortizatu.

## "Berandu da jada, kalean dugu belaualdi prestatuena"

## Lau kontzertu indartsu bihar iluntzean gaztetxean

Bihar, zapatua, kontzertuak izango dira nagusi gaztetxean. Lau talde hauek izango dira taula gainean: Inquietud (Zaragoza), Crimental (Bilbo), Ernia (Zarautz) eta Colapso (Beasain). Hardcore estiloko lantzen dute laurak; beraz, soinu gogorak izango dira gaztetxean. 22:15ean hasiko dira kontzertuak. Sarrera 3 euro da.



ANE ETXEBERRIA

## Tokiko garapena mintzagai

Ehun industrialaren galera eta Tokiko garapena izenburupean hitzaldia izan zen eguaztenean Olanar Etxean, bailarako EHBildu alderdiak antolatutako hitzaldi sorten barruan. Jone Etxeberria eta Josu Lizarralde izan ziren hizlari lanetan. Datozen asteetan Bergaran eta Oñatin ere izango dira hitzaldiak.

## Hontza Extrem abentura parkera irteera egingo dute gazte txokoko kideek

A.E | ANTZUOLA

Gazte txokoko neska-mutilek irteera dibertigarria izango dute bihar. Izan ere, Aramaio eta Otxandio artean dagoen Hontza Extrem abentura parkera joango dira egun-pasa. 12:00etan irtengo dira herritik eta 19:00 inguruan izango dira berriz ere bueltan. Sagastin autobusa hartu eta abentura

parkean bertan bazkalduko dute. 30 lagunek eman dute izena tirolina, zuhaitzetan ibili eta beste hainbat ekintza egiteko.

Aurtengo ikasturtean egiten duten bigarren irteera da. Abenduan Euskal Selektzioaren partidua ikustera joan ziren. Ikasturteari amaiera emateko ere egingo dute beste irteera bat.

## Herri bazkarirako eta erretiratuen afarirako txartelak salgai daude

A.E | ANTZUOLA

Inauteriak iristear dira eta poliki-poliki egun berezi horietara zuzendutako ekintzen berri izaten ari gara. Oraingoan, herri bazkariaren gaineko informazioa dago eskuragarri. Izan ere, martxoaren 2an izango den herri bazkarirako txartelak dagoeneko salgai daude, otsailaren 26ra arte, hain zuzen ere.

Ohikoa denez, dantzariak 10:00etan hasiko dira kaleak alaitzen, tximinoa, hartza eta hezitzailea lagun dituztela, eta 14:30ean izango da herri bazkaria. Helduendako eta umeendako menuak egongo dira. Txartelak gaztetxean, udaletxean eta liburutegian daude salgai, otsailaren 26ra arte;

hau da, eguaztenera arte. Prezioei dagokienez, helduek 13,5 euro ordaindu beharko dituzte eta haurrek, 10 euro.

## Erretiratuen afaria

Inauterietako martitzenean, hau da, martxoaren 4an, afaria egingo dute erretiratuek. Bada, afaltzera joan nahi dutenek izena eman beharko dute datorren astean, hilaren 25ean edo 26an, erretiratuen bulegoan, 16:00etatik 18:00etara. 4 euro ordaindu behar da. Aurten, baina, afariaren ondoren kinan jokatu beharrean dantzaldia egongo dela jakinarazi dute erretiratuen elkartetik. Eta, iaz bezala, afarira moztortuta joateko dei egin dute.



lazgo afari festan erretiratuak moztortuta. | GOIENA

# Herri batzarra bihar, udal aurrekontuaz hitz egiteko

Udalak 1.935.000 euro izango ditu aurten, 2013an baino %12 gutxiago

**JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE**  
Aramaioko Udalak iaz baino 256.000 euro gutxiago izango ditu aurten herria kudeatzeko. 2014ko udal aurrekontua 1.935.000 euro izango da, iaz baino %12 txikiagoa. Udal aurrekontua onartzeko parte-hartze prozesua bihar amaituko da, udaletxeko osoko bilkuren aretoan egingo den herri batzarrekin; 11:00etan hasiko da bilera. Uribarri, Zabola, Etxaguen, Untzilla eta Oletako elkar-

teetan egin dituzte bilerak eta joan den zapatuan udaletxean ere bildu ziren.

**Auzoetan, oso erantzun ona**  
Hala, herriko auzo guztietako biztanleek aukera izan dute aurrekontuaren gaineko azalpenak jaso eta ekarpenak egiteko. Deialdiak auzoetan izan duen erantzuna "oso positiboa" izan da, Ramon Ajuria alkatearen arabera: "Baserritarrek asko eskertu

digute bertan egon izana. Udaletik lau edo bost ordezkari egon gara bilera bakoitzean eta gehienetan 20 lagunetik gora elkartu gara; oso pozik gaude".

Auzoetako ekarpenei dago kienez, alkateak nabarmendu du baserritarrek "zentsuzko" eskaerak egin dituztela orokorrean: "Baserritarrek sentsibilizatuta daude orokorrean, sentsazio hori eman didate. Badakite ezin dutela gauza handirik eskatu egoera

ekonomikoa zaila delako. Egoerara egokitu dira eta egin dituzten eskaera gehienak zentsuzkoak izan dira". Ajuriak dioenez, beharrezkoak diren konponketa lanak eskatu dituzte: "Lan horietako batzuk egin ditugu dagoeneko, eskaeretakoa batzuk hasi gara betetzen".

Era berean, auzoz auzoz egin dako azaldu dituzte biomasaren proiektuaren nondik norakoak azaltzeko eta Ajuriak dio gaiak "interesa handia" piztu duela.

**Ez da inbertsio handirik eskatu**  
Biharko herri batzarrean Ogasun batzordera eramango den behin betiko proiektua aurkeztuko du Udalak.

Diru sarrerak eta irteerak zeintzuk diren zehazki azaltzeaz gain, erabaki egingo da zer egin eta zer ez: "Herriarrek ez dute inbertsio handirik eskatu, baina

zerrenda luze bat badugu herri-tarrek batera adosteko", azaldu du alkateak. Bada, orain arte egin diren herri batzarretan ez da eztabaida handirik izan, eta normalean onartu egin dira Udalak aurkezten dituen proposamenak.

Otsailaren 26an Ogasun batzordera landuko dute aurrekontua eta gero, martxoaren 5ean, osoko bilkuran onartu beharko da.

## ESANAK

**"Baserritarrek asko eskertu dute auzoetara joan izana"**

RAMON AJURIA | ALKATEA

# Gaur aurkeztuko dute 'Bazan behin Aramaixon' liburuxka

Herriko ondare diren ipuinak jasotzen ditu lanak; hamar eurotan salduko da

**J.B. | ARRASATE**

Gaur aurkeztuko dute, kultura etxean (17:30) *Bazan behin Aramaixon* liburuxka. Aspaldiko ekimen baten emaitza da proiektua, Udaleko Euskara batzordeak bultzatu duena. Euskararen transmisio lanerako lekukorik garrantzitsuenak eta egokienak bildu dira liburuxka batean: Aramaion bertan, ahoz aho, urtetan zehar gorde diren ipuin, kondaira eta kontu zaharrak. Bertako edadeko jendeari bildu, eta ume nahiz helduentzako bildumatxo bat prestatu dute, ikusgarria eta ondo zaindua. Dibina Arriolabengoa eta Arantza Ozaeta izan dira duela zenbait urte bilketa-lan mardul hori egin zutenak.

Ozaeta eta Arriolabengoz gain, Belen Morenok –irudigilea–, Miel A. Elustondok, Jabier Kartzakortak, Txipi Ormaetxeak –edizioa– eta Manex Agirrek –zuzentzailea– hartu dute parte proiektuan. Ipuinak Aramaio euskararen daude idatzita eta ondoan itzulpena dago, euskara batuan. Proiektu berezia denez, modu berezian aurkeztu gura du Uda-



Liburuxkako pasarteetako bat. | BELEN MORENO

lak. Zenbait herritar gonbidatu dituzte liburuan agertzen diren ipuin laburrak kontatzeko. Era berean, San Martin eskolako haurrek eta bertso eskolako kideek kantatzekoak diren ipuinak abestuko dituzte.

**Txirritolaren ipuin lehiaketa**  
Bestalde, Txirritolak ipuin lehiaketa antolatu du aurten ere. Lehiaketa San Martin eskolako ikasleek hartzen dute parte bere-

ziki, baina euskara elkarteak helduengana ere heldu gura du. Epaimahaiak baloratuko du ipuina euskaraz zuzen idatzita egotea eta originaltasuna.

Lanak entregatzeko azken eguna martxoaren 17a izango da eta sari banaketa maiatzaren 9an egingo dute. Ekitaldi horretarako egitaraua ez dute lotu oraindik eta aurrerago iragarriko dute. Hainbat sari egongo dira, adinen eta mailen arabera.

# Martxoaren 8ko kartel lehiaketa parte hartzeko azken egunak

**J.B. | ARAMAIO**

Udaleko Gazteria, Migrazio eta Berdintasun batzordeak Martxoaren 8ko kartel lehiaketa antolatu du aurten ere: "Gure herrian, gizarte arlo guztietan, emakumeen eskubideen defentsa bultzatu gura dugu", diote. Lehiaketa, Aramaion jaiotako edo bertan bizi den edonork har dezake parte. Kartelak derrigorrez izan beharko du testu bat euskaraz –librea dena– eta testu horri diseinuari ematen zaion garrantzi bera emango zaio irabazlea nor den erabakitzeke. Horrez gain, honako testua ere

jaso beharko du kartelak: *Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna 2014*.

**Otsailaren 27ra arte**

Lanak entregatzeko azken eguna otsailaren 27a izango da. Bi sari banatuko dira: irabazleak 200 euro jasoko ditu eta bigarrenak, berriz, 100 euro.

Epaimahaia ondokoek osatuko dute: Gazteria, Migrazio eta Berdintasun batzordeko buruak, Iturri-Zuri emakume taldeko bi kidek eta berdintasunaren alorrean aditua den pertsona batek.

# Costa Brava ingurua bisitatzeko aukera Alaiak erretiratu elkartearen eskutik

**J.B. | ARAMAIO**

Alaiak erretiratu elkarteak bidaia berezia antolatu du apiril hasierarako. Costa Brava aldera joango dira, apirilaren 3tik 9ra. Honako lekuak bisitatu dituzte, besteak beste: Tossa de Mar, Bartzelona, La Garrocha, Roses, Figueres eta Montserrat. Bisiten artean nabar-

mentzekoa da Codorniu cava egiten den lantegiaren bisita, Sant Sadurni d'Anoian.

**Martxoaren 1a baino lehen**

Izena emateko Alaiak elkartearen Laboral Kutxako kontu korrontean 365 euroko ordainketa egin beharko da, martxoaren 1a baino lehen.

## ARETO FUTBOLA

### SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 New Beer House	27	12
2 Bar Gin Tonic's	26	12
3 Real Beni	25	13
4 Galtzagorri Gasteiz	23	13
5 Electricidad Jolma	22	11
6 Numero K	19	12
7 Aramaixo	17	13
8 Cafeteria Manai	13	13
9 Colegio San Prudencio	12	12
10 Bar Pura Vida	3	12
11 Iparra Taberna	-6	11

### PARTIDUAK

HILAK 22, ZAPATUA  
18:00 Aramaixo - New Beer House

### Liderraren aurka, bihar

Azken jardunaldian galdu ostean, irabazteko gogoz daude aramaioarrak. Hori bai, biharkoa ez da lehia erraza izango, liderra dator eta Aramaioarra.

## OHARRAK

### 1974AN JAIOTAKOAK

1974an jaiotako aramaioarrek afaria egingo dute martxoaren 8an. Izena emateko herriko tabernetan zerrendak jarri dituzte eta honako helbide elektronikoa ireki dute: [aramaixo74@gmail.com](mailto:aramaixo74@gmail.com); oraindik aukera dago izena emateko. Iluntzean, 19:30ean, elkartuko dira Bizente Goikoetxea plazan, eta, herriko kaleetan poteoa egin ostean, Iturrieta sagardotegian afalduko dute.

### Iñaki Perurenaren hitzaldia antolatu du Txirritolak etziko

Txirritola euskara elkarteak gonbidatuta, Iñaki Perurena harri-jasotzaile famatuak hitzaldia eskainiko du domekan kultura etxean (18:30). *Harri eta herri* izenburu duen saioa eskainiko du Perurenak: harriak zelan altxatzen diren azalduko du, zuzenean askotariko harriak altxatuta. Sarrera doakoa izango da.

### Joan den asteburuan 37 lagun egon ziren eskiatzen Orixoli esker

Joan den aste bukaeran 37 lagunek hartu zuten parte Orixol mendizale elkarteak antolatutako eski irteeran. Eguraldi eskasa zela-eta, zapatuan 13:00ak arte bakarrik eskiatu zuten; horregatik, trikiti doinuaz girotutako poteoa egin zuten Jakako kaleetan. Domekan, egun eder-rra izan zuten eskiatzeko.

## ELGETA



Euskal dantzak, iaz, Ferixa Nagusiko jaietan. | IMANOL SORIANO

## Euskal dantzen ikastaroa antolatu dute aurten ere

Ferixa Nagusiko jaietako egitaraua hobetzeko herritarren proposamenak jaso nahi ditu Udalak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Uztailaren 3tik 6ra bitartean izango dira 2014ko Ferixa Nagusiko jaiak. Umeek iazko Herri Egunean egindako euskal dantzen emanaldiak harrera ona izan zuen, eta aurten ere jarraipena izango du. Hala, euskal dantzen ikastaroan izena emateko epea zabaldu du Udalak. Interesatuak liburutegian edo udaletxean eman behar dute izena hilaren 28a baino lehen. Prezioa 12 euro da.

### Hasiera, martxoaren 19an

Irati Kortabitarte eta Xabat Leanizbarrutia arduratuko dira, aurten ere, dantza ikastaroaz. Martxoaren 19tik ekainaren 18ra bitartean —eguztenetan, 18:15ean— izango da ikastaroa. "Taldeak, printzipioz, iaz moduan adinka egitea aurreikusten dugu", adierazi du Kortabitartek. "Hala ere, izena ematen duen ume kopu-

ruaren arabera izango da hori". Bi talde egiten badira, bigarrenaren ordutegia 19:00etatik 20:00etara izango da.

Dantza errepertorioaren gainean galdetuta, Kortabitartek esan du dantza berriren bat edo beste lantzea dela asmoa, baina baita iaz ikasitako dantzak errepasatzea ere.

Herri Eguna, aurten, uztailearen 5ean izango da. Egun horretan egingo dute dantza emanaldia herriko neska-mutikoei.

### Herritarren proposamenak

Oraindik ere Ferixa Nagusiko egitaraua lantzen dihardute Jaiei batzordean. Batzordea irekia dela ekarri dute gogora, baita herritarren proposamenak eskertuko lituzketela ere. Egin ekarpenak udaletxean bertan edo [danonartian@elgeta.net](mailto:danonartian@elgeta.net) helbide elektronikokoan.

## Rock-zaleek hitzordua dute zapatuan Elgetako gaztetxean

L.Z. | ELGETA

Kontzertu berezia proposatu dute biharko, zapatua, Elgetako gaztetxean. Hiru talde izango dira 22:30etik aurrera oholtza gainean: Toni Metralla y los Antibalas —Bilbo—, Undecimo Mandamiento —Bilbo— eta Odolkiak Ordainetan —Tafalla—. "Rock-and-roll kontzertua izango da, baina adin eta estilo ezberdinetako jendea elkartuko duena", adierazi dute David Peñalverekin batera kontzertuaren antolaketa diharduten Birdtrouble EH Productions-eko kideek. "Azkenaldian zabal-kunde handia izan du oi! estiloak Euskal Herrian, eta rocka indartu nahi dugu, atzera ere". Hala, zapatukoa, betiko topikoetatik ihes egiteko kontzertua izango da.

### Eskarmentudun musikariak

Bilbotik datoz Toni Metralla y los Antibalas; besteak beste, Parabellum, MCD eta Mundo Matadero taldeetan aritutako

jendearekin. Undecimo Mandamiento, berriz, Bilboko punk-rock talde mitiko bat da.

### Odolkiak Ordainetan

Laukote tafallarra izango da nobedadea. Orain dela bi urte sortu zuten taldea, eta euskaraz abesten dute. Otsailean kalera-tu zuten lehen diskoa aurkeztuko dute Elgetako gaztetxean. Sarrera bost euro da.



Tonino. | LUCIA DE ANDRES

## OHARRAK

### IPIUINEN ORDUA

Gaur, 17:20an, bigarren saioa liburutegian. Honakoan, Mireia Berriozabalen eskutik eta 8 eta 12 urte arteko umeendako gomendatuta.

### POTOLOGUAK

Gaur, 22:30ean, Txintxeta konpainiak *Potologuak* umorezko ikuskizuna estreinatuko du antzokian. Ikus 31. orria.

### MENDI IRTEERA DOMEKAN

Kantsatzeke taldearen eskutik Garai-Oiz-Garai irteera plazatik 08:00etan abiatuta. Informazio gehiago jasotzeko: [kantsatzeke@gmail.com](mailto:kantsatzeke@gmail.com).

### BANATZAILE BILA

Goienak banatzailea behar du Elgetan bariku goiztarako. Interesatuak deitu 688 690 007 telefono zenbakira.

## Azaleko ipuinen tailerrera plaza libreak

L.Z. | ELGETA

Hilaren 26an egingo dute lehenengo saioa, eta, plaza mugatuak izan arren, bada oraindik ere izena emateko aukera.

0-3 adin tarteko umeendako eta haien gurasoendako proposamena da. Saroa Bikan-di ipuin kontalariaren gidaritzapean, eta 45 minutuko hiru saiotan, masajeak komunikaziorako eskaintzen dituen baliabideetan sakonduko dute. Horretarako, ipuinak, poemak, kantuak, jolasak... baliatuko dituzte. Hala, entzumena, kontaktua, ikusmena, usaimena... landuko dituzte. Azken finean, azaleko ipuinak.

Beste bi saioak martxoaren 12an eta 16an egingo dituzte, 18:00etan hasita. Gaur, barikua, da Udal Liburutegian izena emateko azken eguna.

## Jabier Leanizbarrutia gaur Goiena TBren sukaldaritza tartean

Errezeta berezi bat proposatuko du gaur, barikua, Jabier Leanizbarrutiak Goiena telebistako *Debagoiena zuzenean* saioan —20:00etan, 21:00etan eta 22:30ean—. Leanizbarrutiak Intxorta elkartearen hartuko du Goienako lantaldea sukaldaritzari eskaintako tartea egiteko.

## LEINTZ GATZAGA

# 80.000 euro handitu da herrirako aurtengo aurrekontua

Martxoan herri ekimena egingo dute, azkeneko erabakien berri emateko

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

482.034 euro. Horixe da Gatzagako Udalak 2014ko jardunerako erabili ahal izango duen diru kopurua. Iazkoarekin alderatuta, 80.000 euro handiagoa da. Besteak beste, mendi aprobetxamendutik (28.000 euro) eta turismo alorre-tik (6.000 euro) eskuratuko dute kopuru gehigarria.

### Aldunditik ere bai

Eta hortik aparte, Gipuzkoako Foru Aldunditik ere iritsiko dira diru laguntza batzuk: baserrietara ura eramateko proiekturako 27.000-28.000 euro emango ditu eta Gaztainuzketako txabolak berritzeko, berriz, 15.000 euro.

### Pertsonal gastuak, gora

Gastuen atalean, berriz, pertsonal kontuetan %12ko igoera izango dute, turismoa bultzatzeko hain-

bat hilabetetarako teknikaria hartu gura du-eta Udalak. Eta horrez gainera, udal idazkaria aldatu beharrak 8.000 euroko gastua ekarriko dio Udalari.

Oraingo asteko martitzenean aztertu du udalbatzak 2014ko aurrekontua osoko bilkuran, eta baita aho batez onartu ere. Datorren asteko GOIENA paperean azalduko ditugu haren gaineko xehetasun gehiago. Izan ere,

aurrekontuaz gainera, bestelako gaiak ere landu zituzten udalbatzarrean.

### Bake epailea: Beloki

Hain justu, 14 gai izan zituzten aztergai. Esanguratsuenak nabarmen-tze aldera, Jose Inazio Beloki izendatu dute, atzera ere, datozen lau urteotarako bake epaile. Hura da kargurako aurkeztu den bakarra, eta, udalbatza



Udalbatza, osorik, martitzeneko osoko bilkuran. | UBANE MADERA

## Aurrekontua, Labidea, txakur kakak...

Udaleko azken erabakien berri emateko herri ekimena martxoan egingo dute. Data zehaztu bezain laster jakinaraziko dute eguna. Besteak beste, 2014ko aurrekontua, Labidearen gaineko azken berriak, turismo alorrerako dituzten asmoak, aparkalekuetarako ordenantza beharra... eta txakur-kakak direla-eta sentsibilizazio beharra dagoela azalduko diete herritarrei.

haren jardunarekin gustura dagoenez, onartu egin dute haren proposamena.

Bestalde, adostu egin zuten Gipuzkoako Diputazioarekin hitzarmena sinatzea etxe kalera-zeak gertatzen diren kasuetarako. Diputazioak aholkularitza eskaintzen du halakoetarako, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren bitartez. Eta hori baliatu gura dute baita gatzagarrendako ere.

### Bellon eta Martxoaren 8a

Horrekin batera, bi mozio onartu zituzten: Arkaitz Bellon pre-

soaren heriotzaren harira sakanaketa eta espetxe politika salatzen dituen mozioa, batetik. Eta Martxoaren 8aren bueltan EHBilduren adierazpenarekin bat egitea onetsi zuten, bestetik. Laburbilduz, Euskal Herri euskalduna eta feminista ezkerretik eraikitzearen aldeko adierazpena onartu dute.

Eta bestelakoan artean adostu zuten hurrengo herri ekimena martxoan egingo dutela, azken hilabeteotan udalerrian nagusi diren gaiak herritarrei zuzenean azaltzeko asmoarekin.

**HERRI KIROLAK**

# 'Urrezko aizkolari' bilakatzeko, finalerako txartela Oñatin jokoan

Atutxa eta Mugertza Olasagastiren eta Cañaberasen kontra lehiatuko dira domekan

XABIER URZELAI | ARRASATE

"Oñatin ere herri kirolak gustuko ditugulako" aitzakia hartuta Oñatiko Herri Kirol Taldeak egun Euskal Herrian dagoen hitzordu handietako bat ekarriko du Zubikoara domekan (12:00, ETB), Eusko Label Sari barruan Urrezko

Aizkora egongo da eta jokoan. Hobeto esanda, aizkora bera baino gehiago, finalerako txartela.

Hala, taldeko kide Anjel Billarrek adierazi digu onenetakoak izango direla gurean: "Atutzak eta Mugertzak Olasagastiren eta Cañaberasen kontra jokatuko dute



Herri Egunean, plazan, egindako herri kirol erakustaldia. | GOIENA

eta beste finalerdian egongo dira Azurmendi eta Otaño eta Etxeberria eta Larretxea, baina lehia hori non egingo duten oraindik erabakitzeke dago".

### 32 enborreko lana

Etzi izango da kanporaketa (12:00), Zubikoa kiroldegian, eta sarrera 10 euro da. Prezio horretan, puntako aizkolariak ikusteaz batera, harri-jasotzaileen erakustaldiaz ere gozatu ahal izango da, eta baita hainbat produkturen zozketan esku hartu ere: "Aizkolariek modalitate ezberdinetan egin beharko dute lan: zutik, kolpeka, txanda librea... Eta, guztira, 32 enbor moztuko dituzte". Proba batetik besterako hutsarteetan, ostera, Izeta aita-seeek erakustaldia egingo dute harriak jasotzen. Eta herriko negozio edo komertzioei esker lortutako bost sari ere banatuko dituzte: "Udalari, Ulmari, Ormazabal Instalazioei, Gereta Ardoei, Berezaio Ametsi eta Mekalkiri esker antolatuta ahal izan dugu hau dena".



Selekzioa; tartean, ibarreko Iban Letamendi eta Iñaki Uribe-Etxebarria (biak makurtuta). | EH MENDI SELEKZIOA

**MENDI LASTERKETAK**

## Iban Letamendi, Euskal Selekzioaz 2014an

Eskoriatzako Iñaki Uribe-Etxebarria talde teknikoan izango da

X.U. | ARRASATE

Joan den astean aurkeztu zuten mendiko lasterketan Euskal Selekzioak izango duen ordezkariak, eta bertan da Iban Letamendi.

Oñatikoaz batera taldea osatuko dute Leire Agirrezabalak (Ibarra), Jokin Lizeagak (Urnietza), Aritz Egeak (Urretxu), Aitziber Ibarbiak (Zizurkil), Hassan Ait Chaouk (Billabona) eta Oihana Azkorbebeitiak (Abadiño). Eta

talde horri, Zegama-Aizkorri lasterketaren ostean, hainbat atleta gehituko zaizkio.

Agirrezabalak, Lizeagak eta Egeak hartuko dute esku Munduko Kopan, eta Espainiako Kopa lehiatuko dute besteek; Jokin Lizeaga izango da, gainera, entrenamenduak zuzenduko dituena. Talde teknikoan, bestalde, Iñaki Uribe-Etxebarria eskoriatzarra hasiko da lanean.

### Ternuaren babesaz

Arrasateko Ternuak selekzioari laguntzen jarraituko du aurten ere, lasterkariak jantzen eta "bermerik handieneko" jantzi teknikoak eskaintzen; lasterkariekin lankidetzan garatutakoak dira jantziak.

Hala, martxoaren 16an izango dute Espainiako Kopan urteko lehen hitzordua, Katalunian (Vall del Congost).

**IGERIKETA**

## Lepoa bete domina Jon Muxikak Euskal Herriko txapelketan

X.U. | ARRASATE

Euskal Herriko Igeriketa Txapelketa egin zuten joan den asteburuan Iruñean, eta kategoria absolutuan Jon Muxika bergararrak aparteko nagusitasuna erakutsi zuen.

Hala, Bidasoa XXI Igeriketa Taldeko ordezkariak pozik egoteko moduko lana egin zuen, zortzi domina jantzi zituen-eta: urrezko lau bakarkako lasterketan eta lau domina errelebotako probetan –urrezko bi eta zilarrezko beste bi-. Zalan-tza barik, txapelketako prota-

gonista nagusietakoa izan zen; edozelan ere, denboraldi hasiera izanda, marka ikusgarriak ez zen egon.

### Modalitate askotan

Bakarka lortutako garaipenak izan ziren bizkar estiloan: 50 metro, 100 metro eta 200 metroko lasterketan. Eta urrezko laugarren domina irabazi zuen 200 metroko bular estiloan.

Bergarakoak Espainiako Openean jarriko ditu indar guztiak; apirilean du hurrengo hitzordua.



Jon Muxika –erdian–, igeriketa saioa hasteko gertu. | MIKEL MUXIKA

**TXIRRINDULARITZA**

## Andaluziako Itzuliko atarikoan zulatua izanda hasi da Irizar

X.U. | ARRASATE

Qatarretik itzulita Andaluziako bidea hartu du Markel Irizarrek (Oñati, 1980), eta, eguaztena ezkerreko, harendako berezia den lasterketa jokatzen dabil, Andaluziako Itzulia.

Trek taldeko ziklistak ondo daki 2011n lortutako garaipena

errepikatzea oso gaitza dela –puntuak parte-hartzea egongo da–, baina aurrealdean kokatzeko eguaztenean zuen aukera ona, atariko erlojupekoan (7,3km).

Oñatikoak, baina, ez zuen zorte ona izan distantzia motzeko erlojupekoan, zulatua izan zuen eta aukera guztiak galdu.



Irizar, talde berriaz. | TREKFACTORYRACING.COM

**FUTBOLA**

## Realeko emakumezkoen entrenatzaileekin lan-saioak egin dituzte aste barruan

X.U. | ARRASATE

Infantil mailako neska kuadrilla batek –22 dira guztira– Realeko emakumezkoen entrenatzaileekin lan egiteko aukera izan du aste barruan Aretxabalako Ibarra futbol zelaian.

Jokalariek inguruko taldeetatik aukeratutakoak izan dira (Bergara, Aloña, Arizmendi,

Mondra, Mutriku, Soralue eta Antzuola), eta martitzenean eta eguenean egin zituzten lan-saioak ordezkari txuri-urdinekin.

Hala, Realaren harrobira begira, ekimen berri honekin, jokalariek Zubietara joan beharrean Realeko ordezkariak dira ikuskatzaile lanetan Gipuzkoan barrena dabilzanak.

## PILOTA

## Iribarria, Bergarako Lau t'erdiko finalerdietan 22-10 irabazi ostean

Martitzenean ezagutu zuen Bergarako Lau t'erdiko Txapelketak finalerdietan izango den hirugarren gizona: Iribarria. Larunbek ez zion traba handirik egin, eta Aramako ezkertiarak eroso irabazi zuen partidua (22-10). Hala, Errandoneak dagoeneko badu finalerako sailkatzeko kontrarioa, Iribarria. Beste finalerdian, erabakitzeke dago Bakaikoak edo Arteagak jokatuko duten zain dagoen Erasunen kontra. Martitzenean erabakiko da hori.

## SASKIBALOA

## Ointxe taldeko bi kimu Cadizen egon daitezke Euskal Selektzioarekin

Euskadiko Selektzioak hamalau jokalariz osatutako zerrenda egin du Cadizera egingo duten bidaiaari begira, baina behin-behineko zerrenda da, eta zerrenda horietatik hamabi jokalarik osatuko dute selektzioaren ordezkariak. Horrenbestez, hautatzaileak bi jokalarik zerrendatik kanpo utzi behar ditu. Oraingoz, Ointxe-ko kimu mailako Naia eta Haizea selektzioarekin dabilta entrenatzen, eta, zorte apur batekin, esperientzia ederra bizi izango dute Cadizen.



Tolosaren kontrako partiduan, Ander Arana presio egiten. | IMANOL SORIANO

## FUTBOLA

## Antzuolak indartsu datorren Vasconia hartuko du Estalan

X.U. | ARRASATE

Antzuolaren biharko (16:00, Estala) kontrario Vasconiak errepa-so polita eman zion joan den astean Getariakori (4-1). Eta aipatzekoa da, Donostiakoa ligan gol gutxien sartzen duen taldeetako bat delako. Kontrara, baina, defentsa sendoa dute, 25 gol baino ez dituzte jaso, eta defentsa hori hausten ahaleginduko dira Juanina Garairen mutilak bihar. Etxetik kanpora bi partidua jarraian jokatuko ostean –eta puntu bat batu–, ordua da ostera etxean irabazi eta aurre-rapausoa egiteko.

## Bergarak ere etxean

Joan den astean Aretxabaletaren kontra derbia galdu ostean (2-1

Bergarak zauria osatu nahiko du Zarautzen kontura. Hamazortzi puntu batuta, kategoriatik hartuko du bat da Zarautz, orain artekoa ikusita, behintzat (16:15, Agorrosin).

## Aloñak eta UDAk, kanpoan

Aretxabaleta ikusgarri dabil –sei garaipen segidan–, baina kontrario gogorra izango dute bihar, hirugarren dagoen Tolosa. Gainera, zarautzarrek azken bi partidua erraz irabazi dituzte, hiruna gol sartuta.

Hernani ere ez da hankamotza, baina Aloñaren biharko kontrarioa maila apalagoan dabil aurten. Zubipen jokatuko dute bihar (16:30).

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

## FUTBOLA

**EMAKUMEZ. BIG. MAILA**  
Mondra-Athletic  
Zehaztu gabe.

**GAZTEAK, EUSKAL LIGA**  
Aretxabaleta-Amorebieta  
Domeka. 16:00. Ibarra.

**OHOREZKO ERREGIONALA**  
Antzuola-Vasconia  
Zapatua. 16:00. Estala.  
Bergara-Zarautz  
Zapatua. 16:15. Agorrosin.  
Hernani-Aloña Mendi  
Zapatua. 16:30. Zubijpe.  
Tolosa-Aretxabaleta  
Zapatua. 16:30. Berazubi.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**  
Mondra-Anaitasuna  
Domeka. 16:30. Mojategi.

**LEHEN ERREGIONALA, IGO.**  
Aretxabaleta UDA B-Vasconia  
Zapatua. 16:30. Ibarra.

## OHOREZKO GAZTEAK

Elgoibar-Mondra  
Zapatua. 16:30. Mintxeta.  
Aloña Mendi-Kostkas  
Domeka. 16:30. Azkoagain.  
Bergara-Lengokoak  
Domeka. 17:00. Ipintza.

## ARETO FUTBOLA

**EUSKAL LIGA**  
Eskoriatza-Meatzari Gallarta  
Zapatua. 19:00. Manuel Muñoz.

## LEHENENGO MAILA

Aretxabaleta-Ventanas Isu  
Gaur. 19:45. Ibarra

## HIRUGARREN MAILA

Zarautz-Mondrate  
Gaur. 22:15. Antoniano.

## ESKUBALOA

**LEHENENGO NAZIONALA**  
Tolosa-Ford Mugarri  
Zapatua. 20:00. Tolosa.

**EUSKADIK. GIZONEZKOAK**  
Escolapios-Soraluce BKE  
Zapatua. 18:00. Bilbo.

## SASKIBALOA

**LEHEN NAZIONAL MAILA**  
Atletico SS-MU  
Zapatua. 18:00. Donostia.

**MAILA AUTONOMIKOAK**  
Urdaneta-Natra Oñati  
Zapatua. 18:00. Loiu.

**SENIOR BIGARREN MAILA**  
Alleru-Soraluce BKE  
Gaur. 20:00. Lezo  
Tecnum-Aloña Mendi  
Zapatua. 20:00. Bidebideta.

**EMAKUMEZKOAK**  
Eskoriatza-Alde Zaharra  
Gaur. 20:15. Manuel Muñoz.

## HERRI KIROLAK

**URREZKO AIZKORA**  
Finalerdia.  
Domeka. 12:00. Oñati.



IMANOL SORIANO

**MONDRAK ANAITASUNA HARTUKO DU** Gotzon Urzelaireren mutilek Azkoitiko taldea menderatu beharko dute Erregional Preferente mailako goiko postuetan egotea gura badute.

## Debagoieneko GREMIOAK

## ARROZTEGIAK

## AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

[blogak.goiena.net/azkarate](http://blogak.goiena.net/azkarate)

## ERAIKUNTZAK

## ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

ARRASATE

Meatzerreka auzoa

Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

[e.arrasate@euskalnet.net](mailto:e.arrasate@euskalnet.net)

## ITURGINTZA

## EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

## OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

[f.oyanguren@ctv.es](mailto:f.oyanguren@ctv.es)

## URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

## LEIHOAK

## ARGI-PLASTIK

ARRASATE

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

## LOREZAINNTZA

## MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatzeko sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

## MARGOAK

## APAIN MARGO ETA APAINKETA

ARRASATE

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



## Tertulia

**Gaurkotasuneko eztabaidak**

Larraitz Zeberioek aurkeztuta

► Egubakoitza, 19:00, 22:00 eta 00:20



## Harira

**Herri ordezkariekin elkarrizketak**

Eneko Azkaratek aurkeztuta

► Martitzena, 22:00 eta 00:20.

► Parte hartzeko:

· Posta elektronikoz: harira@goiena.com

· Twitter: #harira

· Whatsapp: 688 69 00 17 (ahots- edo testu-mezua)

· Telegram: 688 69 00 17 (ahots- edo testu-mezua)

· Erantzungailu automatikoa: 688 69 00 17

## Debagoiena zuzenean

**Gertuko kontuak, bertatik bertara**

Txomin Madinak gidatuta eta aurkeztuta

► Egunero, 20:00, 21:00, 22:30 eta 23:50



**Bertakoa  
eta  
sasoikoa**

**Telebistako  
programazio  
berria**

## KULTURA

## 'Potologuak' estreinatzean

- ▶ Nagore Aranbururen, Mikel Pagadiren eta Egoitz Lasaren bakarrizketetan oinarrituta
- ▶ Elgetako Espaloian erakutsiko dute estreinakoz gaur, egubakoitza, 22:30ean

**AITZIBER ARANBURUZABALA | ELGETA**  
Orain dela bi urte sortutako *Bodologuak* lanak izandako harrera onak bultzatuta eta bakarrizketa gauzak kontatzeko gustuko formatua dutelako, *Potologuak* izeneko lanean murgildu da Txintxeta taldeko hirukotea: Nagore Aranburu, Mikel Pagadi eta Egoitz Lasa. Umorea ardatz hartuta, gure gizartearen eta harremanen analisia egiten dute.

Elgetako Espaloia antzokian estreinatuko dute gaur, egubakoitza, 22:30ean. Sarrerak, aurrez salgai daude *kulturalive.com* atarian eta Espaloian 10 eurotan, eta leihatilan 12 eurotan.

**Familiaz, opariez, tabernez...**

Aurrez egindako *Bodologuak* lanaren bidetik badoa ere, ez da ezinbestekoa bat ikustea bestea ulertzeko: "Independenteak dira, estilo berekoak badira ere", azaldu du Mikel Pagadik.

Aktore bakoitzak berak aukeratutako gaien gainean idatzitako gidoiarekin jardungo du. "Egoitzek, hirugarren semea izateari buruz eta teknologia berriei buruz zaharragoz egingo du, bereziki, berba. Ama den Nagorek, berriz, bere amatasunaren inguruko ikuspuntu dibertigarria erakutsiko du; eta, era berean, ospitalera joaten garenean bizi izaten ditugun hainbat gertakizunen kontakizuna ere ekarriko du taularen gainera. Nik neuk, berriz, Euskal Herriko tabernei buruz jardungo dut eta baita opariaren gainean ere. Taberna konkretu batean kokatu baino gehiago, azkenaldian sortu diren ohituren gainean jardungo dut, pintxo-poteoak eta tabernetako terrazak berberak hartuta. Opariekin, berriz, trauma bat dudalakoan nago; izan ere, sarritan pertsona anonimoek *-lagun ezkutu, Perez Sagua...* egiten dizkigute opariak edo gauez etortzen direnek bestela, Olentzerok edo Errege Magoek... Era berean, badut zer kontatu jasotzen ditugun erregalu ez hain gustukoaren gainean ere. Zaplazteko bat hartzea batzuetan ez ote da hobeto...", dio barrez Pagadik.

Esperientzia pertsonalean oinarritutako kontakizunak taularatuko ditu, beraz, hirukoteak; horiek guztiak, fikzioarekin nahastuta badira ere. Nork bere uneak ditu, baina badira hirurek



Nagore Aranburu, Mikel Pagadi eta Egoitz Lasa dira *Potologuak* laneko protagonistak. | TXINTXETA

elkarrekin egiten dituzten zatiak ere. Ikuslearen erantzunaren arabera moldaketak egingo dituzten arren, ikasitako gidoian apenas inprobisatzen dutela dio Pagadik, bata besteari trabarik ez egiteko.

**Lagunak oholta gainean**

Aktore bakoitzak egin du aurrez bere zatiaren gidoia eta ondoren hirurek elkarrekin eman diote monologo itxura txukuna: "Txiste edo gag bat gaineratu, honek funtzionatzen du eta besteak ez esanaz...". Bi hilabete inguruan idatzi dute gidoia, gero entseatu, eta ondoren Anartz Zuazuak lagundu die ikuskizunari forma ematen, besteak beste, taularen gainean jarraitu beharreko argibideak emanda.

Lagunak ere badira, eta elkar ondo ezagutzen dutela diote, hainbat urtean lantalde berean egon dira-eta: "2004an, kasualitatez Wazemank proiektuan elkartu ginen hirurok. Gu bion irakaslea izan da Nagore. Lanak egiteko buru berezia duen pertsona da eta gure umoreek ederki konektatzen dute, gainera".

**Etxeko giro goxoa irudikatuz**

*Bodologuak* lanean gaueko ikuskizun itxura eman bazioten ere, oraingoan, etxeko goxotasuna irudikatu nahi izan dute. Horretarako, argi bereziak erabiliko dituzte eta hainbat objektu izango dituzte oholta: pertxero bat, izebaren etxeko paper pintatua duen pareta eta aulki batzuk.

**'Bodologuak'-en bideari eutsita**

Aranburu izan ezik monologo profesional moduan sekula jardun gabekoak ziren arren, bakarrizketak gustatu eta beste osagai batzuekin *Bodologuak* egin zuten. 50 emanalditik gora egin zituen hirukoteak urtebetean.

Elgetan ere izan ziren, eta etxean moduan daudela diote Espaloian. Gustura daude, monologista on asko izan diren taula gainean izango direlako berriz. Deseatzen daude egindako lana erakusteko.



*Bodologuak* lana egin zuten Espaloian 2012ko otsailean. | ENKOA AZKARATE

**ESANAK**

**"Publiko guztiarentzako eta askotariko gaiak batzen dituen lana da"**

**"Oraingoa estilo berekoa bada ere, ez da aurreko lanaren jarraipena"**

MIKEL PAGADI | AKTOREA

# 'Erpurutxo' klasikoaren berrinterpretazioa Bergaran

Domekan izango da emanaldia eta sarrera 4 euro ordaindu beharko da

ZURIÑE V.D.M. | BERGARA

Paraiso Antzerkia konpainiak *Erpurutxo* lana ekarriko du domeka honetan Bergarara. Zabalotegi aretoan izango da emanaldia, 18:00etan hasita.

"Klasikoak klasiko dira edozein arotan garaikide izateko ahalmena dutelako eta *Erpurutxo* horren erakusgarria da". Hala eman du aditzera konpainiako zuzendari Pilar Lopezek. "Baina jendeak ez du ohiko kontakizuna aurkituko domekako emanaldian,

klasikoaren bertsio oso pertsonala sortu baitugu. Izan ere, nahiz eta *Erpurutxo*-ren istorioa kontatu, beste testuinguru batean kokatuta dago obra". *Erpurutxo* ipuinean, abandonatzeaz egiten da berba, eta Paraisoko kideek gai horri helduko diote, egungo testuinguruan kokatuta.

Eta alderdi poetikoari dago-kionez, hunkitu eta gogoeta egitera gonbidatzen ditu ikus-entzuleak gure *Erpurutxo* obraren bertsio honek".

**Familiarentzako ikuskizuna**

Adineko aita baten eta seme baten arteko harremana da kontakizuneko ildo nagusia. "Beraien bizitzan zerbait aldatuko da istorioa kokatzen den gau horretan. Aitak semeari garai batean *Erpurutxo*-ren ipuina kontatzen zion, eta oraingo honetan beraien arteko erlazioari buelta emateko eta gutziz aldatzeko balioko du".

Lopezek aditzera eman duenez, nahiz eta haurrentzako ikuskizuna izan, helduek ere gozatuko



Erpurutxo antzezlanean protagonista. | AITOR AUDICAN

dute: "6 urtetik gorakoei zuzendutako obra da, baina jorratzen den gaia dela eta, heldu asko harritu egiten dira gazteei begirako lana delako".

Paraisoko zuzendariak gogora ekarri du hurrei zuzendutako antzezlaren irakurketa berezia egiten dutela gazteek: "Horrek sormen alderdiari dagokionez bestelako aukerak ematen dizkigu, alde sinbolikoa irakurtzeko erraztasuna baitute hurrek. Modu natural batetan barneratzen dira alderdi poetikoan eta baita sentsibilizazio alorrean, eta badi-rudi helduoi gehixeago kostatzen zaigula".

**Lantalde sendoa**

Haurrentzako antzerkia hizki larriz idazten den artea dela ekarri du gogora urteetako esperientzia duen antzerki konpainiako zuzendariak.

Eta *Erpurutxo* aurrera ateratzeko lanean aritu den lantaldea ere esperientzia handiko profesionalen osatuta dagoela gaineratu du Lopezek: "Iñaki Rikart zuzendari bikaina da, maila handikoa; Aitor Fernandino eta Peio Arnaez aktoreek ibilbide profesional oparoa dute; eta Iñaki Salvador konpositore gipuzkoar bikainaren eskutik entzun dezakegu musika".

ESANAK

**"Gaur egungo testuinguruan kokatutako antzezlana da"**

PILAR LOPEZ | PARAISO ANTZERKIA

**Aurreztu.com**  
Debagoieneko eskaintza onenak

Debagoieneko eskaintza onenak Aurreztu.com-en dituzu.  
Ezagut itzazu eskaintza hauek eta beste batzuk Aurreztu.com webgunean!

BIARK ARKITEKTOAK  
**Etxea edo lokalerako  
ziurtagiria energetikoa**

**120€**

LEHEN:  
**185€**

DESKONTUA:  
**%36**



NEREA.M DANCE&FITNESS  
**Modan dagoen Zumba  
dantza probatu gura duzu?**

**59€**

LEHEN:  
**131€**

DESKONTUA:  
**%55**



IGARO ESTETIKA  
**Hidratatu aurpegia pintzel  
bidezko tratamenduarekin**

**30€**

LEHEN:  
**50€**

DESKONTUA:  
**%40**



BEGIRA ARGAZKILARITZA  
**Bikotekidearekin estudioko  
argazkiak**

**27€**

LEHEN:  
**45€**

DESKONTUA:  
**%40**



Negozio baten jabea zara eta Aurreztu.com-en agertu nahi duzu?

Jarri gurekin harremanetan: 943 25 05 05

goiena

## 'Euskalduna naiz eta arrarora nago' bakarrizketa saioa Eskoriatzan

Z.V.D.M. | ESKORIATZA

*Euskalduna naiz eta arrarora nago* bakarrizketa saioa eskainiko dute gaur, egubakoitza, Eskoriatzako Huheziko fakultatean, 22:30ean hasita. Barry Manley irlandar-euskaldunaren eta Aitor Txarterina nafarraren eskutik euskaldun izatearen ondorioez egingo dute berba eta euskaraz bizi izateko tresna edo gakoak emango dituzte gaur gauean.

**Musika, umorea, ironia...**

"Bakoitzak hiru zati ditugu, eta Barryk, gainera, musika uztartzen du bere emanaldian. Bi umore, bi estilo uztartzen ditugu; ni ironikoagoa naizela esango nuke, eta Barryk, oster, txiste gehiago

baliatzen ditu". Hala eman du aditzera Txarterinak.

Oraindik ere euskaldun izatea arraro izatearekin lotzen dela dio eta euskaraz bizi izatearen esperientzian oinarritutako lana ikusi ahal izango da gaur Eskoriatzan: "Eta ondorio batzuez ere hitz egingo dugu, batzuk onak eta beste batzuk abisu modukoak dira". Betiere, umore puntuarekin jorratuko dute gaia, eta gogoetara bultzatzeko ere balio izango duela dio *Baltziskueta* ezizenez ezagun den nafarrak.

"Hizkuntza minorizatuak ditugun jendarteok gorabehera, beldur eta bestelakoak partekatzen ditugu, eta mugak gaindi ditzakeen obratxo dela esango nuke".

## Otsailari amaiera emateko 'Satisfaktion' antzezlana ekarriko du Arrasateko Gaztetxera Kooltur ekimenak

Eguenero bezala, Kooltur Ostegunak ekimenaren gune bilakatuko da otsailaren 27an Arrasateko Gaztetxea eta *Satisfaktion* antzezlana ikusteko aukera egongo da, 22:00etan hasita. Hilabeteari amaiera emateko, Khea Ziater konpainiaren obra jarraitu ahal izango dute gaztetxera bertaratzen direnek. Maria Urzelai bergararra igoko da oholtzara, eta *Kriss* aktorearen paperean sartuko da. Gordintasun puntua daukan antzezlana den arren, umorerik ez da falta Alex Gerediaga zuzendariaren obra horretan.



# Aurtengo 'Bertso movie' lehiaketan parte hartzeko epea irekita

laz oñatiar talde batek irabazi zuen publikoaren saria 'Badator aguazila'-rekin

ANE ETXEBERRIA | DEBAGOIENA

*Bertso movie* lehiaketaren aurtengo edizioa abian da. Berez, martxoaren 1etik aurrera aurkeztu ahal dira lanak, baina norbaitek lana egin eta bidali nahi badu, ateak irekita daudela adierazi dute antolatzaileek. Hain zuzen ere, Iñaki Apalategi antolakuntzako kideak esandako moduan, "martxoaren 1etik 24ra bitartean dago epea irekita, baina nahi dutenek orain bidal dezakete, gehienek azkenengo astean bidaltzen baitituzte bestela. Oraingoz, ez dugu ezer jaso eta ez gaitu harritzen; edozelan ere, zirraragarria izaten da azkenengo astean lan guztiak jaso eta erabakiak hartzea".

**laz 40 lan jaso zituzten**

Aurten hirugarren aldia da, eta, iaz bezala, Debagoieneko lanak jasotzea espero dute antolatzaileek. Joan den urtean 40 lan jaso zituzten eta horietako batzuk gure bailarakoak zirela adierazi du Apalategik. Horien artean, gainera, bat garaile atera zen: Oñatiko Gero Pentzauku Produxions taldearen *Badator aguazila* lanak publikoaren saria jaso zuen. 500 euroko saria lortu zuten, hain zuzen ere. Iñaki Olalde eta Egoitz Aizpuruak beste lagun batzuekin batera eginiko lanak lehia gogorra izan zuen; izan ere, Gabiriako gazte batzuek aurkeztutako *Beneritoak* lanarekin lehia estua izan zuten oñatiarrek, baina, asko-



Gero Pentzauku Produxions-eko lantaldea. | GERO PENTSAUKU PRODUXIONS

gatik izan ez bazen ere, debagoien-darrek jaso zuten saria.

*Bertso movie* lehiaketa horretan parte hartu nahi dutenek bideo bat prestatu beharko dute; betiere, euskaraz izan behar du eta, gutxienez, bertso bat izan behar du. Sarie dagokienez, gazteen mailan, lehen saridunak 300 euro jasoko ditu eta bigarrenak,

100 euro. Helduen mailan, aldiz, lehen saridunak 1.000 euro lortuko ditu eta bigarrenak, 350 euro. Ikusleen saria lortzen duen taldeak, berriz, 500 euro bereganatuko ditu. Sari politikak, horrenbestez, lehian.

Bada, xehetasun guztiak helbide honetan kontsulta daitezke: [www.bertsomovie.com](http://www.bertsomovie.com).

## Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikusteko sarrerak salgai

A.E | BERGARA

Martxoaren 1ean (zapatua), Pirritx, Porrotx eta Marimotots izango dira Bergaran, *Bizipoza* emanaldiarekin, ohi duten moduan, bertako Udal Pilotalekuan.

**Sarrerak salgai**

Eta Euskal Herriko pailazo ezagunenek izaten duten arrakasta kontuan hartuta, Bergarako Udalak dagoeneko jarri ditu sarrerak salgai.

Egun bakarrean bi emanaldi eskainiko dituzte: lehen 15:30ean eta bigarrena 18:00etan.

Sei eurotan eskuratu ahaliko dira sarrerak eta hainbat modu jarri ditu Bergarako Udalak sarrerok erosteko: Internet bidez erosi gura izanez gero, [www.bergara.net](http://www.bergara.net) webgunera jo beharko da, eta bertan sarrerak erosi; hori bai, kontuan hartu behar da gero inprimatuta eraman beharko direla.

Modu tradizionallean eskuratu gura izanez gero, berriz, kultura etxean izango dira salgai. Eguaztena ezkerro daude salgai; beraz, guztiak saltzen ez badira, behintzat, emanaldiaren egunean bertan ere leihatilari erosi ahal izango direla azpimarratu dute Bergarako Udaletik.



*Bizipoza* saiokoa. | KATXIPORRETA.COM

## Asteburu honetan musika izango da protagonista Antixena gaztetxean

A.E | OÑATI

Gaur eta bihar kontzetuak izango dira Oñatiko Antixena gaztetxean. Gaur, egubakoitza, 22:00etan MobyDick-en saioa izango da. MobyDick-en atzean Eneko Burzako dago. 2008an martxan jarritako proiektua da eta egiten duen musika estiloa folk akustikoa dela esan daiteke.

**Malenkonia eta Izaki Gardenak**

Bihar, zapatua, aldiz, erritmo goxoak izango dira nagusi. Malenkonia eta Izaki Gardenak taldeak izango dira kontzertua eskaintzen. Haiek ere 22:00etatik aurrera izango dira oholta gainean.

Malenkonia musika taldeak bere ibilbideko bigarrena laneko abestiak eskainiko ditu gaztetxean; hau da, *Homo Homini Lupus* disko abestiak. Oñatiarrek izanik, ondo ezagutzen duten oholta da, eta, etxean egonda, euren publikoaren aurrean dena emango dute.

Izaki Gardenak taldea, aldiz, 2012. urtean Jon Basagurenen bakarkako abestiei forma emateko sortu zen. *Amaieratik hasi* azken disko doinuak aurkeztuko dituzte zapatuan. Pop, rock eta country doinuak lantzen dituzte; beraz, denetarik abestiak izango dira entzungai.



Malenkonia taldeko kideak. | MALENKONIA

ZATOZ

ASTOKILLO'S CIRCUS

LANAREN ESTREINALDIRA

OTSAILAREN 22an. ZAPATUAN. 19:30ean.

PANTA RHEI  
el arte de imaginar

GORBEIA .K  
centrocomercialgorbeia.com

AURKEZTUTA



Gorette Abaunz | Abeslaria

Argazki handian, Gorette Abaunz gitarratekin. Txikian, David Bisbalekin eta Rosariorekin.

## "Aurkezleak eta 'coach'-ak oso eskuzabalak eta jatorrak izan ziren; nik uste nuena baino gehiago"

TXOMIN MADINA | OÑATI

Gaur bertan 15 urte bete dituen oñatiarrak barruan darama musika. *La Voz Kids* lehiaketan en hartu du parte, eta, itsuan egindako entzunaldien fasea ez gainditu arren, pozik dago esperientziarekin.

**Nolatan aurkeztu zinen *La Voz Kids*-saia?**

Iragarkia ikusi, amak parte hartu gura nuen galdetu eta baietz esan nion. Baina hurrengo egunean ezetz esan nion, lotsagatik. Amak, ezkutuan, nire izena eman zuen eta ni abesten agertzen nintzen

bideo bat bidali zuen. Hartu nindutela esateko Telecincotik deitu zutenean jakin nuen dena.

**Nolakoa izan zen grabazioa?**

Aurretik beste bi *casting* pasatu behar izan nituen. Azkenean, abuztuan grabatu nuen itsuan egindako entzunaldia. Gurasoekin, bi anaiekin eta lehengusinarekin joan nintzen Madrilerara, eta oso ondo tratatu gintuzten. Hiru egun iraun zuen grabazioak: lehengoan, elkarriketa grabatu nuen, baita jantziak aukeratu ere; bigarrenean, alfonbra gorriko zatia eta entseguak; eta hirugarrenean, emanaldia. Celine Dionen *I surrender* abestu nuen nik. Urduri nengoen, baina nik uste nuena baino gutxiago. Taniak [Llasera] eta bertako psikologoek lagundu zuten horretan.

**Zer moduz aurkezleekin eta *coach*-ekin?**

Oso ondo: oso eskuzabalak eta jatorrak izan ziren, nik uste nuena baino gehiago. Hiru *coach*-ak gustatzen zaizkit, baina uste dut Malu egokituko litzatekeela ondoen nire estilora.

**Azkenean, ez zuten buelta eman...**

Unerik txarrena da abestia aurrera joan eta inork bueltarik ematen ez duela ikustea. Baina gero pentsatzen duzu: "Hemen nago ni, sekulakoak diren hiru artistarekin; aukera hau ez du edonork!". Triste ez jartzeko, alde positiboa bilatu behar diozu esperientziari.

**Ez hartzeagatik baino pena handiagoa ei duzu zure emanaldia ez delako emititu.**

Bai. Saioa hasi baino pare bat ordu lehenago deitu ziguten esa-

teko nirea ez zela emango... Behin puntu horretara heldu eta ez emitzeagatik badut arantzaxoa.

**Asko kostatu zaizu abuztutik otsailera arte sekretua mantentzea?**

Lagunek, kuadrillakoek eta familiakoek bazekiten sekretua, baina oso ondo gorde dute. Momentu batzuetan izan dut kontatzeko gogoia, baina lortu dut tentazioari eustea. Azken astera arte ez nuen ezer ere esan, baina, azkenean, argazki bat jarri nuen profilean, eta hurrengo egunean iruzkin pila bat neuzkan! Ez naiz telebistan agertu, baina herrian, behintzat, egin naiz ezagun!

**Saiatuko zinateke berriz ere horrelako saio baten parte hartzen?**

Gurasoek utziz gero, bai. Mundu hau gustatzen zait eta esperientzia honek ez du hori aldatu.

**Betidanik izan zara musikazalea?**

Bai, txikitatik abestu izan dut eta 6 urterekin Ganbaran hasi nintzen. Gitarra jotzen ere banabil ikasten:

hau bigarren urtea da. Gitarra aukeratu nuen abesteko orduan beste batzuek gehiago laguntzen duelako.

**Abesti batzuen bertsioak egiteaz gain, konposatzen duzu?**

Ez, baina orain horretan hasi gura dut. Josu Zubiari laguntza eskatu diot eta uste dut abesti bat konposatuko dugula elkarrekin. Beste batzuen bertsioak abestea ondo dago, baina onena da norberak konposatzea.

**Imajinatzen duzu mundua musikaririk gabe?**

Ezta pentsatu ere! Ezin dut ezer egin musika barik, edozertarako jartzen dut: gela jasotzeko, etxeko lanak egiteko... Une bakoitzak bere estiloa du, baina beti nabil musika entzuten.

**Gaur, 15 urte. Nola ospatuko duzu?**

Gaur familiarekin ospatuko dut; baina beste egun baten lagunekin, behar den moduan!

**Bideoa ikusteko:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



### PERTSONALA

**Oñatiko txoko maiteena:** Usako eta Pottorrosin.

**Ikasgai gustukoena:** Musika eta heziketa fisikoa.

**Gutxien gustatzen zaizuna:** Matematika.

**Kantu gustukoena:** Radioheaden *Creep*.

**Plater gustukoena:** Pasta eta pizza.

**Egin gura duzun bidai:** New Yorkera.

**Sekretu bat kontatzekotan, nori?** Nire lagunik onenei, Arianari eta Mariari.

**Zerk alaitzen dizu eguna?** Gurasoekin ondo egotea; haserre bagaude, nabari dut.





## ESKER ONA

**Miguel Mugarza Erostarbe**

2014ko otsailaren 15ean hil zen, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Ondra-meza zapatuan izango da, otsailaren 22an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2014ko otsailaren 21ean.

## ESKER ONA

**Felix Eguren Azkorbebeitia**

Arlette Conderen alarguna

Bergaran hil zen 2014ko otsailaren 17an, 88 urte zituela.

Momentu latz hauetan gurekin egon zareten guztioi eskerrik asko, familiaren izenean.

Bergaran, 2014ko otsailaren 21ean.

## ESKER ONA

**Jose Irazabal Aranzabal**

2014ko otsailaren 15ean hil zen, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.

Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Bergaran, 2014ko otsailaren 21ean.

## HILDAKOAK

**Consuelo Rubio Herrero.** Arrasaten, otsailaren 12an. 92 urte.  
**Jose M. Izturitz Sanz.** Arrasaten, otsailaren 12an. 82 urte.  
**Alberto Urtzelai Lonbide.** Aretxabaletan, otsailaren 13an. 77 urte.  
**Tomas Aizpeurrutia Mendiguren.** Oñatin, otsailaren 13an. 93 urte.  
**Gregorio Romanelli Sangines.** Elgetan, otsailaren 14an. 78 urte.  
**Migel Mugarza Erostarbe.** Oñatin, otsailaren 15ean. 85 urte.  
**Karmelo Arzelus Mujika.** Bergaran, otsailaren 15ean. 70 urte.  
**Jose Irazabal Aranzabal.** Bergaran, otsailaren 15ean. 85 urte.  
**Araceli Martinez Franco.** Arrasaten, otsailaren 16an. 86 urte.  
**Fredrevinda Garcia Barbero.** Arrasaten, otsailaren 16an. 92 urte.  
**Juan Dominguez Rosado.** Arrasaten, otsailaren 16an. 90 urte.  
**Felipe Santamaria Ajuriagerra.** Arrasaten, otsailaren 16an. 82 urte.  
**Felix Eguren Azkorbebeitia.** Bergaran, otsailaren 17an. 88 urte.  
**Beatriz Altuna Urdingio.** Arrasaten, otsailaren 19an. 86 urte.

## ESKER ONA

**Karmelo Arzelus Mujika**

2014ko otsailaren 15ean hil zen, 70 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Sustraiak senda eta hegoak arin.

Bergaran, 2014ko otsailaren 21ean.

## OROIGARRIA

**Karmelo Arzelus Mujika**

2014ko otsailaren 15ean hil zen, 70 urte zituela.

Gaxotasunaren bidea izan da zurea zure tarteak gordeko dute bihotzean aitta-aittite maitea.

Gatzagako lagunak. Bergaran, 2014ko otsailaren 21ean.

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.

Goiena: irakurriena Debagoienean.

**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:**

ARRASATE Goiena: Oñalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun elkartea: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 08 19.

OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

ARETXABALETA Goiena: Basabe poligonoa E05. 943 25 05 05.

ARAMAIO Kintelena janari-denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.

ELGETA Ugari janari-denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**OROILORE**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardua handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.

maribi 617 44 21 55  
BERGARA**HARIRA****Herri ordezkariekin elkarrizketak Eneko Azkaratek aurkeztuta**

► Martitzena, otsailak 25, 22:00 eta 00:20

**INAZIO AZKARRAGAUZAR****Parte hartzeko:**

- Posta elektronikoz: harira@goiena.com
- Twitter: #harira
- Whatsapp: 688 69 00 17 (ahots- edo testu-mezua)
- Telegram: 688 69 00 17 (ahots- edo testu-mezua)
- Erantzungailu automatikoa: 688 69 00 17

**Bertakoa eta sasoikoa**  
Telebistako programazio berria

**ELGETA 'Potologuak' lanaren estreinaldia**

*Bodologuak* ikuskizunarekin Elgeta eta beste hainbat txoko barrez lehertu ostean, Mikel Pagadi, Egoitz Lasa eta Nagore Aranburu *Potologuak* ikuskizunaren datoz aste bukaeran. Espaloian egingo dute estreinako emanaldia. Sarrerak *kulturalive.com*-en (10 euro) eta leihatilan (12 euro).

Gaur, egubakoitza, Espaloian, 22:30ean.



POTOLOGUAK



TEATRO PARAISO

**BERGARA 'Erpurutxo', Teatro Paraisoren eskutik**

Perrault-ek hainbat gai jorrazten ditu jatorrizko bertsoan; horietako bat, zalantzarik gabe, abandonua da. Teatro Paraisok gai hori nabarmentzen du ipuinaz egiten duen bertsoan. 7-10 urte arteko umeendako da. Sarrera, 4 euro.

Etzi, domeka, Zabalotegin, 18:00etan.

**MUSIKA****BERGARA Rolling Dice taldea**

Donostiako boskoteak girotuko du Laino skate-guneko oholtza. Rock musika egiten du. Sarrera doan izango da.

Gaur, egubakoitza, Laino Skaten, 21:30ean.

**OÑATI MobyDick gaztetxean**

MobyDick artistaren izenaren atzean Eneko Burzako dago. Antixenan *Cotard Delusion* diskoa aurkeztuko du.

Gaur, egubakoitza, Antixenan, 22:00etan.

**BERGARA DJ jaialdia**

Amaia Txintxurretarekin musika emanaldia Zabalotegin. Gaztetxoendako izango da, doan.

Bihar, zapatua, Zabalotegin, 18:30ean.

**ARRASATE Disko festa, Oihan Vegarekin**

Oihan Vega aurkezle eta esatariak disko festa egingo du erdiguneko gazte txokoan. Herriko disko festarik handienak egin ditu bergararrak; adibidez, Donostian, Aste Nagusian Zurriolako hondartzan 3.000 pertsonaren aurrean eta Kilometroak eta Ibilaldia jaialdietan 8.000 pertsonarekin.

Bihar, zapatua, Zabalotegin, 18:30ean.

**OÑATI 'Ikastetxeak kantari' delako kontzertua**

Elkar Hezi, Txantxiku Ikastola eta Urgain ikastetxeetako abesbatzek parte hartuko dute.

Bihar, zapatua, Santa Anan, 19:00etan.

**ANTZUOLA Lau talde zuzenean**

Inquietud (Zaragoza), Ernia (Zarautz), Crimental (Bilbo) eta Colapso (Beasain) taldeek kontzertua egingo dute. Ondoren, *Jar Itzazu Tapoiak Mezedez!* irratsaioko kideek musika jarriko dute. Sarrera, hiru euro.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:15ean.

**ELGETA Rock gaua**

Punk musika izango da nagusi gaztetxean. Han egingo dira Toni Metralla Y Los Antibalas, Undecimo Mandamiento eta Odolkiak Ordainetan taldeak.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

**OÑATI Okene Abrego eta Mariano Hurtado**

Bap! taldeko kide ohi eta egun Inoren Ero Ni taldeko abeslaria dugu Okene Abrego. Erritmo

**NON-ZER**

Emaguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com) | Faxa: 943 25 05 00

OTSAILA 21  
OTSAILA 27

azkar eta oldarkorrek jorraztu izan ditu beti Abregok, bere ahots berezi eta sakonarekin. Emanaldian, Inoren Ero Ni taldeko Mariano Hurtado baxu-jotzailea izango du lagun.

Etzi, domeka, Pako tabernan, 19:30ean.

**ANTZERKIA****ESKORIATZA 'Euskalduna naiz eta arraroa nago'**

*Euskalduna naiz eta arraroa nago* delako saioa egingo dute Ballry Manley *Barry Barrez* eta Aitor Xarterina *Baltziskueta* bakarlariek. Sarrera doan da herritar guztiendako.

Gaur, egubakoitza, unibertsitatean, 22:30ean.

**OSPAKIZUNAK****BERGARA Artzain Eguna**

Debagoieneko III. Artzain Eguna ospatuko dute. Besteak beste, artzainen azoka, tailerrak, hainbat produkturen dastatzeak, haurrentako jolasak, argazki lehiaketa eta bisita gidatuak egingo

dituzte, Debagoieneko Mankomunitatearen eskutik.

Bihar, zapatua, San Martin plazan, 10:00etatik

14:00etara arte.

**ARRASATE Zuhaitz Eguna, espezie jangarriak landatzea helburu**

Arrasateko Udalak Zuhaitz Eguna egingo du bihar. Musakolako Antoniñaerreak inguruan Udalak duen 14 hektareako lursail baten egingo dira landaketak. Arrasate Institutuko goiko eraikinaren aparkalekuan elkartzeko dira.

Bihar, zapatua, Antoniñaerrekan, 10:00etan.

**OÑATI Zuhaitz Eguna**

Ingurumen jardunaldietan, herri-guneko parkeetan zuhaitz landaketa egingo dute Natur Eskola-koekin. Herritar guztiak gonbidatu dituzte landaketan parte hartzera.

Etzi, domeka, herri guneko parketan, 10:00etan.

**ERAKUSKETA****ARETXABALETA 'Atxuri 1' erakusketa**

Gaur da Helena Azkarragauzarenak, Amaia Martinez de Are-

nazak eta Nagore Uriartek elkarrekin egindako erakusketa ikusteko azken eguna.

Otsailaren 28ra arte, Arkupen.

**OÑATI 'Egurra eta natura'**

Imanol Artolak, Oñatiko basozainak, inguruetako mendietan jasotako egur eta bestelako elementuekin egindako eskulturak daude ikusgai *Egurra eta natura* izeneko erakusketan. Hain zuzen ere, Oñatiko ingurumen jardunaldietako ekintza da, Natur Eskolak antolatutakoa, beste hainbat hitzaldi eta ikus-entzuznekoekin batera.

Martxoaren 2ra arte, kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara.

**KIROLA****ARRASATE Aukearen ate irekiak: gimnasia abdominal hipopresiboa eta yoga**

Aukeak ate irekiak antolatu ditu gimnasia abdominal hipopresiboa (17:30) eta yoga (18:30) ezagutzeko. Interesatuek Musakolako kiroldegian eman behar dute izena.

Gaur, egubakoitza, Musakolan, 17:30ean.



WWW.FLICKR.COM

**OÑATI Izaki Gardenak eta Malenkonia taldeak**

Malenkonia oñatiarrak lehen aldiz igoko dira gaztetxe oholtzara. *Homo, homini, lupus* diskoa aurkeztuko dute Antixenan, herritarren aurrean. Eurekin batera egongo da Gasteizko Izaki Gardenak taldea. Jon Basaguren buru duela, *Amaieratik hasi* disko-kantuak joko ditu.

Bihar, zapatua, Antixenan, 22:00etan.

**OÑATI 'Urrezko aizkora' sariko finalerdia**

Atutxa-Mugertza bikotea Olasagasti-Cañabares bikotearen kontra lehiatuko da. Sei lan egingo dituzte: kolpeka, erlojuaren kontra, abiadura, enborra zutik eta etzanda. Ikuskizuna osatuz, Ize-ta aita-seekek erakustaldia egingo dute harriak jasotzen. Sarrera, hamar euro.

Etzi, domeka, Zubikoan, 12:00etan.

**IPUIN KONTAKETA****BERGARA Umeendako saioa**

Karabi-Karaba delako saioa egingo du Ines Bengoak haurrentako. Emanaldi bikoitza egingo du: 18:00etan, 3 eta 5 urte arteko neska-mutikoendako; eta 18:30ean, 6-8 urte artekoendako.

Gaur, egubakoitza, liburutegian, 18:00etan eta 18:30ean.

**ARETXABALETA Mirian Mendoza ipuin kontalaria**

Animalia hizlariak, lapiko magikoak eta beste hainbat pertsonaia eta istorio kontatuko dizkie neska-mutikoei Mirian Mendoza ipuin kontalariak.

Bihar, zapatua, liburutegian, 11:30ean.

**BERGARA 'Zer daramagu emakumeek poltsan?' ipuin kontaketa**

Ines Bengoak helduentzako ipuin kontaketa saioa egingo du. Emakumeek poltsan daramatenaren gainean egingo du berba, euskaraz eta doan.

Otsailaren 25ean, Aroztegin, 19:00etan.

**OÑATI Izaskun Muxika aktorearekin**

*Ostegun kontalariak* programan, 6-10 urte arteko haurrentako saioa egingo du Izaskun Muxika aktore eta kontalari nafarrak. Gonbidapenak, liburutegian.

Otsailaren 27an, liburutegian, 18:00etan.

**IKUS-ENTZUNEZKOAK****BERGARA 'Izan pirata' dokumentala**

Donostiako piraten inguruko ikus-entzunezkoa emango du, eta ostean, jai ereduaren inguruko mahai-ingurua egingo dute kartzela zaharrean.

Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 19:00etan.





# goiena

2014-02-21

## BUKATZEKO



Egutegian azaltzen diren argazkietako batzuk. | FAGOR EDERLAN

## AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO



## Gu bagoaz

Hala izendatu du Ezker Abertzaleak datozen urteetarako egiten duen planteamendua. Estatuaren (frantziar nahiz espainiar) zain egon gabe erabakiak hartu eta gure etorkizuna eraikitzea goaz. Aldebakartasunetik. Estatuarekin akordioak egongo ote diren zain egon gabe. Euskal Herri independentea lortu arte, hausnartu, partekatu, erabaki eta egin da proposatzen den ibilbidea. Ibilbide berri honek askotariko akordioak, askotariko eremuetan eta askotariko eragileekin eta herritarrekin eskatzen ditu. Harik eta Euskal Herriak bere buruaren jabe izan eta independentziaren aldeko hautua egiten duen arte.

Honetarako, Ezker Abertzaleak bidelagunak behar ditu. Eragileak (politiko, sindikal nahiz sozialak) eta herritarrak. Euskal Herriaren etorkizun burujabea eraikitzen joan nahi duten guztiak eta hauetako edonor.

Lanez eta erronkaz betetako planteamendua. Baita ilusioz betetako ere.

Debagoienean eta bertako herri bakoitzean gauzatzen has gaitzkeena. Atzea ahaztu gabe aurrera begira jartzeko aukera paregabea.

# Orriak pasatzea, elkartasun keinu

- ▶ Fagor Ederlan Taldeak 50. urteurreneko ospakizunetako argazkiak batu ditu 2014ko egutegian
- ▶ Bazkide-langileen artean salduko dituzte eta batutako dirua Aspanogi elkarteari emango diote

### IRATI GOITIA | ARRASATE

Iaz 50. urteurrena ospatzen ibili ziren Fagor Ederlan Taldekoak eta hainbat ekintza egin zituzten. Bada, orain, oroitzapen guztiak egutegi batean bildu dituzte. Bazkide-langileen artean jarri dituzte salgai. Bildutako dirua Aspanogirentzat izango da (Gipuzkoako haur minbizidunen guraso elkarte).

### Inguruari eskerrak eman nahi

"Horrenbeste eman digun gure inguruari itzuli nahi genion dugunaren zati bat eta horretara bideratu dira 50. urteurreneko egi-

tasmo asko. Adibidez, ate irekiak egin genituenean ere dirua biltzen ibili ginen. Etorri zirenek libreki ematen zuten. Gure asmoa orduan batutakoa bi elkarteri bideratzea zen -Zu Behar Zaitut eta Aspanogi-. Ez genuen esperotakoa batu, ordea. Beraz, ate irekietakoa Zu Behar Zaituti bideratu zitzaion eta Aspanogirentzat izango da egutegiaren batutakoa", adierazi du Ederlaneko komunikazio arduradun Inma Rodriguezek. Era berean, beste hainbat ekintza ere babestu zituzten joan zen urtean; adibidez, Eskoriatzako jaietako kontzertuak.

### 12 hilabete, 12 ekintza

Bestalde, bazkideek eurek hainbat ekintza egin zituzten joan den urtean, urteurrena ospatuko. "Guk eskatu geniena izan zen ospa zezatela 50. urteurrena euren erara. Izugarritzko emaitza izan genuen, denetarik antolatu zuten", esan du Rodriguezek. Hala, egutegiko hilabete bakoitzak egin zituzten ekintzak oroitzen ditu, besteak beste: enpresen arteko lasterketa otsailean, 18. Korrika martxoan, BTT martxa apirilaren, sortzaileei eginko omenaldi ekitaldia uztailean, motorrean eginko irteera azaroan, *Ederlantzen*

### bideoaren grabazioa abenduan...

"Urte osoan egin duguna bertan dago islatuta. 2013a oso berezia izan da guretzat eta oroitzapen bat izan nahi genuen. Orain, etxean ditugu argazki guztiak", gaineratu du Rodriguezek.

Bi egutegi mota egin dituzte: hormarako eredu eta mahai gainerakoa. Kostuen %100 Ederlanek ordaindu ditu eta salmentan lortutako diru guztia Aspanogi elkarteari emango zaio, "Gipuzkoako umeei eta haien familiei laguntzeko, eta baita elkarteak martxan dituen programetarako", dio Rodriguezek.

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95  
**ARRASATE**

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75  
**BERGARA**

**MULTIÓPTICAS**  
lehen zerbiztu optikoetan

\* kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA